EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIA

BOLETÍN OFICIAL DEL PAÍS VASCO

Itundutako posta-ordaina: 8/98

Administrazioa: Donostia kalea, 1
Legezko Gordailua: VI - 286 - 78 - VITORIA-GASTEIZ

Internet
www.euskadi.net

Franqueo concertado: 8/98

Administración: c/ Donostia-San Sebastián, 1
Depósito Legal: VI - 286 - 78 - VITORIA-GASTEIZ

# Xedapen Orokorrak

## JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

3/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Euskal Unibertsitate Sistemarena.

Eusko Legebiltzarrak otsailaren 25eko 3/2004 Legea, Euskal Unibertsitate Sistemarena, onartu duela jakinarazten zaie Euskadiko herritar guztiei.

OTSAILAREN 25EKO 3/2004 LEGEA,
EUSKAL UNIBERTSITATE SISTEMARENA

ZIOEN ADIERAZPENA

I

Euskal unibertsitate-sistemak, dinamikoa eta konplexua denez, kalitate-maila handiagoak lortu eta nazioartera zabaltzea nahi du; horrek, ordea, erregulazio orokorra eta sistematikoa eskatzen du, batez ere gure Autonomia Erkidegoan, Euskal Autonomia Estatutuaren arabera eskumen osoak baititu hezkuntza eta ikerketako gaietan. Bestalde, Unibertsitateei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoak, bertako erabaki asko eta askotan aurreko araubidearen jarraipena nabarmentzen badu ere, hainbat alderdi sartu dira beharrezkoa egiten dutenak Euskal Autonomia Erkidegoan lege bat egitea, batez ere, unibertsitate publikoari dagokionez, irakasle eta ikertzaile kontratatuen gainean, eta oro har, Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentzia sortu eta bere araubide juridikoa eta eginkizunak zehazteko.

# Disposiciones Generales

## PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

LEY 3/2004, de 25 de febrero, del Sistema Universitario Vasco.

Se hace saber a todos los ciudadanos y ciudadanas de Euskadi que el Parlamento Vasco ha aprobado la siguiente Ley:

LEY 3/2004, DE 25 DE FEBRERO, DEL SISTEMA
UNIVERSITARIO VASCO

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

I

El sistema universitario vasco, que es dinámico y complejo, ambiciona alcanzar mayores niveles de calidad e internacionalización, lo cual exige una regulación global y sistemática, máxime en nuestra Comunidad Autónoma, que, según su Estatuto de Autonomía, goza de plenas competencias en materia de educación e investigación. Por otro lado, la Ley Orgánica 6/2001, de 21 de diciembre, de Universidades, al tiempo que hace perceptible la continuidad del régimen anterior en muchos de sus pronunciamientos, ha introducido algunos aspectos que particularmente en lo referente a la universidad pública, en materia de profesores e investigadores contratados y, con carácter general, en la creación y determinación del régimen jurídico y funciones de la Agencia de Evaluación de la Calidad y Acreditación del Sistema Universitario Vasco, hacen precisa la elaboración de una ley de la Comunidad Autónoma.

PAPER BIRZIKLATUA %100 PAPEL RECICLADO 100%

Unibertsitateei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikotik sortutako alderdiak arautzeko unean, bideragarria zen puntu berriak arautzera mugatuko zen lege bat egitea eta Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitatea Antolatzeko ekainaren 29ko 19/1998 Legea premiazkoa zenetan aldatzea; eta ahalmena ematen zitzaion Eusko Jaurlaritzari bi legeok testu bakar batean biltzeko. Bestalde, 19/1998 Legea ona izan arren –eta horren lekuko da bertako hainbat ideia Unibertsitateei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoan sartu izana–, komenigarria da bertako zenbait alderdi aldatzea. Hala eta guztiz ere, arrazoizkoagoa dirudi lege bakar bat onartzea, bertan, eskarmentuak aholkatutako aldaketak sartuz, Gizarte Kontseilua ere arautzeko. Modu horretan, lege bakar batean zehazten da euskal unibertsitate-sistemaren eredua, nahiz eta onartu lege honetan jasotako alderdi asko eta asko Unibertsitatea Antolatzeko ekainaren 29ko 19/1998 Legean termino beretan edo bertsuetan aurreikusita zeudela.

II

Legeak oinarrian duen printzipioa da unibertsitateak unibertsitate-sistema bateratu gisa ikusi behar direla, Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duten unibertsitate guztien artean osatutako unibertsitate-sistema bateratu gisa, alegia.

Unibertsitate publikoen eta unibertsitate ez publikoen araubide juridikoen artean dauden ezberdintasunak legedi organikotik datoz eta funtsezkoak dira alderdi asko eta askotan, baina ez dira eragozpen horiek guztiak adierazi dugun era horretan ikusteko. Guztiek ematen diete zerbitzua euskal gizarteari eta pertsonei, prestakuntza, jakintza eta gizarte-ongizatea gehitzearen alde eginez, eta guztiei onartu behar zaie aniztasunetik betetzen ari diren betebehar soziala. Azpimarragarria da, hala ere, Euskal Herriko Unibertsitateak funtsezko papera jokatzen duela sistema horretan, bera baita goi-mailako hezkuntzaren eta ikerketaren zerbitzu publikoaren adierazle nagusia eta bermatzailea, bai bere ikasle-kopuruagatik, bai bere profesionalen ikerkuntza eta gaitasun mailagatik, bai eta eskaintzen dituen tituluen aniztasunagatik ere. Hori dela eta, nabarmentzekoa da, orobat, herri-aginteek Euskal Herriko Unibertsitateari behar adinako finantzaketa egonkorra emateko ardura eta konpromisoa dutela; gainerako unibertsitateekin, berriz, ez dute halako konpromisorik.

Alde horretatik, oinarrizkoa da Euskadiko Unibertsitate Kontseilua, lankidetzarekin eta indarrak koordinatuz sistema hori taxutzeko, eta bere eginkizunak indartuta aterako dira arauketa berri honekin. Aldi berean, Euskadiko Unibertsitate Kontseiluak betebehar erabakitzailea izan behar du euskal unibertsitate-sistema goi-mailako irakaskuntzako Europako sisteman sartzeko, lege honetako 1. artikuluan zehaztutako moduan

A la hora de afrontar la regulación de los aspectos derivados de la Ley Orgánica 6/2001, de 21 de diciembre, de Universidades, era factible una ley limitada exclusivamente a la regulación de lo nuevo y modificar en lo preciso la Ley 19/1998, de 29 de junio, de Ordenación Universitaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco, habilitando al Gobierno Vasco para refundir ambas leyes en un solo texto. Sin embargo, a pesar de la bondad de la Ley 19/1998, que se atestigua en la incorporación de muchas de sus ideas a la Ley Orgánica 6/2001, de 21 de diciembre, de Universidades, y siendo conveniente la modificación de algunos de sus aspectos, ha parecido más razonable la aprobación de una sola ley que recoja también la regulación del Consejo Social, incorporando las modificaciones que la experiencia aconseja. Se hace posible, de esta manera, que una sola ley defina el modelo del sistema universitario vasco, sin perjuicio de reconocer que muchos de los aspectos que recoge la presente ley venían ya previstos en sus mismos términos o en semejantes en la Ley 19/1998, de 29 de junio, de Ordenación Universitaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

II

La ley parte del entendimiento global de las universidades como sistema universitario integrado por todas las que tienen su sede social en la Comunidad Autónoma.

Las diferencias de régimen jurídico entre las universidades públicas y las universidades no públicas que resultan de la legislación orgánica, sustanciales en muchos aspectos, no constituyen obstáculo para este entendimiento. Todas ellas prestan un servicio a la sociedad vasca y a las personas, propiciando el incremento de la formación, el conocimiento y el bienestar social, y a todas ellas ha de reconocerse el papel social que desempeñan desde su diversidad. No obstante, hay que destacar el papel clave que en dicho sistema corresponde a la Universidad del País Vasco, como referente principal y garante del servicio público de la educación superior e investigación, tanto por el número de alumnos como por el nivel de investigación y cualificación de sus profesionales, cuanto por la oferta y diversidad de titulaciones. Por ello, cabe así mismo destacar la responsabilidad y el compromiso de una financiación suficiente y estable que para con ella tienen los poderes públicos, compromiso éste que no se da para con el resto de universidades.

En esta pretensión, el Consejo Vasco de Universidades aparece como una pieza básica para el diseño de este sistema a partir de la colaboración y de la coordinación de esfuerzos, quedando sus funciones reforzadas con la nueva regulación. A la par, el consejo ha de desempeñar un papel determinante en la inserción del sistema universitario vasco en el sistema europeo de la enseñanza superior, uno de los objetivos estructurales de

Euskal Herriko unibertsitateari buruzko politikaren egiturazko helburuetako bat baita hori.

Legeak oinarrian hartzen du jakintza unibertsala dela, eta berariaz nahi du euskal unibertsitate-sistema goimailako irakaskuntzaren Europako sisteman sartzea, langileen eta profesionalen erreferentzia-eremu eta mugikortasunaren esparru izan dadin. Gaur egun asko dira Europako zuzentarauak Europako ekonomia-gunearen eremu osoan goi-mailako irakaskuntzako tituluak parekidetzeko eta homologatzeko. Aldi berean, ikaskuntzaren diseinu berri baten aldeko lanak egiten ari dira, ikasgelako irakaskuntza eta curriculum-irakaskuntza bera ere gainditzeko. Ingurumari horretan, unibertsitateak kredituak berriz ere taxutzen ari dira, ikasleek kredituok gainditzeko benetan egindako lanean oinarrituta; eta ez, egun Espainiako Estatuko esparruan gertatzen ari den bezala, ikasgelan egindako ordu-kopuruan oinarrituta. Gizartea eraberritzeko erronka berri baten aurrean gaude, eta euskal unibertsitate-sistemak horretara azkar egokitzeko egoeran egon behar du.

III

Unibertsitateen autonomia-printzipioa eta autonomia-eskubidea bermatzen ditu legeak, batetik, katedra, ikasketa eta ikerketako askatasunen berme bezala, eta bestetik, kudeaketarako autonomia bezala.

Legeak aurrerapausoak ematen ditu aipatutako eremua zehazten. Batetik, unibertsitatearen printzipio gidari bezala aipatzen ditu printzipio demokratikoak, lehenengo eta behin, unibertsitatearen barruan oinarrizko eskubide guztien onarpenean eta bermean oinarrituta, eta hurren, unibertsitate-erkidegoak unibertsitatearen kudeaketan parte hartu eta kudeaketa kontrolatzeko eskubidean oinarrituta. Legeak, bestetik, goimailako prestakuntza zerbitzu publikoa dela ulertzen du, eta beraz, herri-aginteek eta unibertsitateek elkarrekin ezarri behar dituztela zerbitzu horren oinarrizko ezaugarriak, helburu orokorrak eta gida-lerro nagusiak, bakoitzak bere eskumenen esparruan.

IV

Legeko II. titulua unibertsitate-erkidegoari buruzkoa da. Ikasleei dagokienez, berdina da erregulazioa unibertsitate guztientzat, eta legeak ikasleen oinarrizko eskubide eta betebeharren zerrenda luzea egin du; era berean, unibertsitateko zerbitzuaren oinarrizko hartzaile unibertsitateko ikasleak direnez, legean jasotako programazio-irizpide asko eta asko ulertzeko erarik osoena kalitateko irakaskuntza eta ikaskuntza nahi direla jakitea da.

Unibertsitate-erkidegoaren erregulazioan jasotako berrikuntzarik nabarmenena irakasle eta ikertzaile kontratatuei buruzkoa da. Kontratatutako langile-tipoek, batez ere kontratatutako irakasle doktorearenak, langileei buruzko politika propioa taxutzeko aukera-eremu zabala ematen dute.

la política universitaria del País Vasco, definido en el artículo 1 de la ley.

La ley, que parte de la universalidad del conocimiento, pretende explícitamente la inserción del sistema universitario vasco en el sistema europeo de la enseñanza superior, como marco de referencia y espacio de movilidad de los trabajadores y de los profesionales. Existen ya en el presente muy diversas directivas europeas sobre equiparación u homologación de títulos de enseñanza superior en todo el ámbito del espacio económico europeo. Al tiempo, se trabaja en un nuevo diseño del aprendizaje, como idea superadora de la enseñanza presencial e, incluso, de la enseñanza curricular. En este contexto, las universidades están procediendo, igualmente, a un rediseño de los créditos, basado en el trabajo real de los y las estudiantes para su superación y no, como ocurre en la actualidad en el espacio del Estado español, en el número de horas de presencia en las aulas. Estamos ante un nuevo reto de modernización social, y el sistema universitario vasco ha de estar en condiciones para adaptarse de forma rápida y flexible.

III

La ley garantiza el principio y derecho de las universidades a su autonomía, en su doble vertiente de garantía de las libertades de cátedra, de estudio e investigación, y de autonomía en la gestión.

La ley progresa en la definición de dicho marco. Por un lado, explicita como principio rector de la universidad los principios democráticos, basados en primer lugar en el reconocimiento y garantía de todos los derechos fundamentales en el interior de la universidad, y expresado también en el derecho de la comunidad universitaria a participar en su gestión y a controlar la gestión. Por otro, entiende que, al ser la formación superior un servicio público, sus características fundamentales, los objetivos generales, así como las líneas maestras del mismo, deben ser establecidos conjuntamente por las universidades y los poderes públicos, en el ámbito de sus respectivas competencias.

IV

El título II de la ley se dedica a la comunidad universitaria. Respecto a los estudiantes, regulación que es común a todas las universidades, la ley viene a comprender un amplio catálogo de sus derechos y deberes básicos, al tiempo que, entendidos los universitarios como los destinatarios básicos del servicio universitario, muchos de los criterios programáticos que contiene la ley encuentran su entendimiento más cabal en la pretensión de una enseñanza y un aprendizaje de calidad.

La novedad más notable en la regulación de la comunidad universitaria viene constituida por lo referente al personal docente e investigador contratado. Las figuras del personal contratado, particularmente del profesor contratado doctor, ofrecen un marco de oportunidades para diseñar una política propia de personal.

Irakasle kontratatuei dagokienez legeak egindako taxuketan aurrekari hauek hartu dira kontuan:

1.– Unibertsitate-karreraren definizioa. Eremu horretan, laguntzailea aipatzean, prestakuntzan ari den langileari buruz ari da, ia besterik gabe doktore-tesia egiten ari dena; eta doktore den irakasle laguntzailea aipatzean –legean irakasle atxiki esaten zaio–, unibertsitate-karrera hartu dutenentzat gordetako kategoriari buruz ari da. Aldi berean, oinarrizko legedi organikoan jasotako figura bat, doktore den irakasle kontratatuarena, bi kategoriatan egituratzen da, irakasle oso eta irakasle agregatu bezala, eta eskakizunak ere ezberdinak dira kategoria bakoitzera iristeko.

2.– Orokorrean, lehia publikoen bidezko sistema bat ezarri da langile kontratatu guztien lanpostuak betetzeko, publizitate, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioetan oinarrituta. Hala ere, aski nabariak diren salbuespen batzuk alde batera utzita, irakasle bisitarien eta irakasle emerituen kasuan gertatzen den moduan, araubide horri larregiko zurruntasuna dario, eta atzeratu egingo lituzke onartutako ospea eta merezimendu nabariak dituzten zenbait pertsona unibertsitatean sartzeko orduan; eta hala litzateke atzerrian diharduten irakasleen eta ikertzaileen kasuan, biluzik dauden jakintza-arloak indartzeko, interes estrategikoko ikerketa-proiektuak bultzatu eta koordinatzeko, sortzen ari diren ikerketa-taldeak sendotzeko, zein sendotutako ikerketa-taldeak indartzeko, pertsona horiek unibertsitatean sartzea komenigarri jo izan arren. Eskarmentua ikusita, arrazoizko jo da pertsona horien hautaketa lehiaketa-sistematik kanpo uztea; hala ere, horiek ere ebaluatu beharko dituzte kalitate-agentziek. Nolanahi ere, salbuespeneko prozedura da, eta kontratatutako irakasle guztien ehuneko 15era mugatzen da.

3.– Irakasle-kategoria bakoitzari dagokionez, beren eginkizunen oinarrizko ezaugarriak zehazten ditu legeak, eta bereizi egiten ditu irakaskuntzako eginkizunak baino ez dituzten kategoriak, irakaskuntza eta ikerketako eginkizunak dituztenak, eta gehienbat ikerketakoak dituztenak edo ikerketakoak baino ez dituztenak.

4.– Azkenik, unibertsitatearen eremuan irakasle batzuk administrazio-zuzenbideko araubidearen menpe daudenez, eta beste batzuk lan-zuzenbideko araubidearen menpe, harmonizatzeko zail diren kudeaketa-arazoak sor daitezke. Horregatik, bada, oinarrizko legedian aurreikusitakoaren eremuan, lan-kontratuko langileei irakasleen kidegoetakoen araubide juridikoa luzatzen die legeak, urteko ordu-kopuruari dagokionez, eta lizentzia, baimen eta oporrei dagokienez.

V

Lege honek Gizarte Kontseilua ere arautu du, Euskal Herriko Unibertsitatearen gobernuan gizarteak parte hartzeko organo bezala. Gizarte Kontseiluari emandako araudi berrian, eskarmentuak erakutsitako eskakizunei eta ardurei erantzun zaie, eta gai horren gai-

En el diseño de la ley referente al profesorado contratado se parte de las siguientes premisas:

1.– La definición de una carrera universitaria. En este marco se configura al ayudante como personal en formación dedicado en forma prácticamente exclusiva a la elaboración de la tesis doctoral, y al profesor ayudante doctor, que en la ley se denomina profesor adjunto, como categoría reservada a las personas que inician su carrera universitaria. A la par, la figura del profesor contratado doctor recogida en la legislación orgánica básica se estructura en dos categorías, profesor pleno y profesor agregado, con exigencias diferentes en cada caso para el acceso a una u otra.

2.– Con carácter general, se establece un sistema de concursos públicos para la selección de todos los puestos de personal contratado, basados en los principios de publicidad, igualdad, mérito y capacidad. Ahora bien, aparte de excepciones que resultan obvias, como las de los profesores visitantes y eméritos, tal régimen ofrece un exceso de rigidez que podría desalentar la incorporación de personas de reconocido prestigio y méritos notables, como sería el caso de profesores e investigadores que ejercen su tarea en el extranjero y cuya incorporación a la universidad se estime conveniente para potenciar áreas de conocimiento desnudas, para impulsar y coordinar proyectos de investigación de interés estratégico o la consolidación de grupos emergentes de investigación, o para potenciar grupos de investigación consolidados. Se ha entendido razonable, a la vista de la experiencia, excluir la selección de estas personas del sistema de concurso, sin perjuicio de su necesaria evaluación por las Agencias de la Calidad. En todo caso, se trata de un procedimiento excepcional limitado al 15 por 100 del total del profesorado contratado.

3.– En relación a cada categoría de profesores, la ley define las características básicas de sus funciones, diferenciando aquellas categorías que sólo tienen encomendada docencia y aquellas que tienen asignada docencia e investigación o sólo, o prioritariamente, investigación.

4.– Finalmente, la coexistencia en el ámbito de la universidad de profesorado regido por el derecho administrativo y por el derecho laboral puede ocasionar problemas de gestión difícilmente armonizables. A ello obedece que, en el marco de lo previsto en la legislación básica, la ley extienda al personal laboral el régimen jurídico del personal de los cuerpos docentes, en cuestiones tales como número de horas anuales, licencias, permisos y vacaciones.

V

La presente ley ha procedido a incorporar la regulación del Consejo Social, como órgano de la Universidad del País Vasco a través del cual participa la sociedad en su gobierno. En la nueva regulación que se ofrece se ha atendido a demandas y preocupaciones facili-

nean beste autonomia-erkidego batzuk arautukatakoa aurrean jarri eta hartu da kontuan. Sartu diren aldaketak gehienbat eginkizunei eta osaerari dagozkie.

Osaeraz den bezainbatean, praktikak eta zuzenbide erkatuak irizpide objektiboak sartzeko aholkua eman dute, eta, sartu ere, Gizarte Kontseiluko kideek bete beharreko ezaugarri moduan sartzeko, hartara, izendatu dituzten instituzioen zein erakundeen ordezkari-izaera baino gehiago, hainbat eremutan onartutako beren profesionaltasuna egiaztatzeko, eta, oro har, gizartearen interesak ordezkatuak izateko. Eskakizun horiek osatzeko, bateraezintasunen araubidea sartu da, iritzi-independentzia bermatzeko.

Aurreikusita utzi da, halaber, Gizarte Kontseiluak eztabaidarako topaguneak sor ditzakeela, osaeran beren esperientzia eta jakintza ekar dezaketen beste pertsona batzuei zabalduta. Interes guztiak ordezkatzen dituzten gizarte-erakundeetatik sortutako informazioa eta irizpideak jaso nahi dira, ekarpena handiagoa izanik, Gizarte Kontseiluak gizartearen eta unibertsitatearen artean duen bitartekotza-lana indartzeko.

Era berean, berriz egituratu dira Gizarte Kontseiluaren eginkizunak, eta garrantzi gehiago eman zaie unibertsitate-politikaren helburuak zehazterakoan gizartearen partaidetzak dituen eginkizun orokorrei, baina, jakina, ez zaie indarrik kendu legeak unibertsitateko beste organo batzuei egotzitakoei.

Egiturari dagokionez, garrantzizko azken gaia da Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentzia sortzea eta bere eginkizunak zehaztea. Agentziari berezko nortasun juridikoa ematerakoan, berezko araubide bat aukeratu da, berari agindutako eginkizun-motetarako egokiena dela uste izan delako.

Eta hori guztia, Europar Batasunaren baitako elkarganatzea iristeko Eusko Jaurlaritzaren xede orokorra iristea herri honetako Herri Administrazioaren konpromisoa dela jakinik, hori abiapuntu delarik.

VI

Legeak euskal unibertsitate-sistema osoaren kalitatea hobetzen lagunduko duten eskubide eta eskakizunak ezartzen ditu publikoak ez diren unibertsitateentzat.

ATARIKO TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

*1. artikulua.–* Xedea

Kontuan harturik Euskal Herriak hezkuntza-sistema nazionala izateko eskubidea duela, euskal unibertsitate-sistema, euskal hezkuntza-sistemaren atal gisa hartuta, goi-mailako irakaskuntzaren Europako siste-

tadas por la experiencia, al igual que se ha contemplado y tenido en consideración lo que otras comunidades autónomas han regulado al respecto. Las modificaciones que se introducen afectan básicamente a las funciones y a la composición.

En cuanto a la composición, la práctica y el derecho comparado han aconsejado la introducción de criterios objetivos en forma de condiciones que han de reunir los miembros del Consejo Social que acrediten no tanto el carácter representativo de las instituciones u organizaciones que les designan, sino su profesionalidad reconocida en diferentes ámbitos y su carácter representativo, en general, de los intereses sociales. Estas exigencias se completan con un régimen de incompatibilidades que garantice su independencia de juicio.

Se prevé igualmente que el Consejo Social pueda crear foros de debate ampliados en su composición a otras personas que puedan aportar su experiencia y sus conocimientos. Se trata de ampliar la aportación de información y de criterios que emanen de las instancias sociales representativas de todos los intereses, reforzando así el papel medial del Consejo Social entre la sociedad y la universidad.

Asimismo, se procede a una reestructuración de sus funciones, dando mayor relevancia a funciones generales de participación de la sociedad en la definición de los objetivos de la política universitaria, sin menoscabo, obviamente, de las que la ley atribuye a otros órganos de la universidad.

Última cuestión estructural significativa es la creación de la Agencia de Evaluación de la Calidad y Acreditación del Sistema Universitario Vasco y la definición de sus funciones. En cuanto a la dotación de personalidad jurídica propia de la agencia, se ha optado por un régimen propio, por entender que es el más adecuado para el tipo de funciones que se le encomiendan.

Todo ello desde el compromiso de la administración pública de este país para llegar a un escenario acorde con el objetivo general del Gobierno Vasco de convergencia con la Unión Europea.

VI

La ley introduce para las universidades no públicas derechos y exigencias que redundan en una mejora de la calidad de todo el sistema universitario vasco.

TÍTULO PRELIMINAR

DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1.–* Objeto

Considerando el derecho del País Vasco a tener un sistema nacional de educación, la presente ley tiene por objeto la regulación del sistema universitario vasco, considerado como parte del sistema educativo vasco, en el

maren eremuan arautzea da lege honen xedea, Euskal Autonomia Estatutuko 16. artikuluan onartutako eskumena garatze bidean.

*2. artikulua.*– Euskal unibertsitate-sistema

Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean egoitza duten unibertsitate guztien artean osatzen dute unibertsitate-sistema, eta Eusko Legebiltzarrak etorkizunean sortu zein onar ditzanak ere sistema horretan batera bilduko dira. Era berean, sistemaren barruan harremanak eta lankidetza sustatuko dira euskararen erabilera bultzatzeko etorkizuneko proiektua edo euskararen kultura partekatzen duten beste lurralde batzuetan kokaturiko beste unibertsitate-erakunde batzuekin; sustatzelan hori irakaskuntza, ikerketa eta ekimen kulturalak koordinatuz egingo da, eta aipatutako unibertsitate-erakundeetako ikasle zein irakasleen arteko mugikortasunaren bidez, euskararen erabilera bultzatzeko, eta hori guztia Europako nazioen eremuan. Lehentasunezko harremanak ezarriko dira Euskal Herrian kokaturiko gainerako unibertsitateekin.

I. TITULUA

EUSKAL UNIBERTSITATE SISTEMA

LEHENENGO KAPITULUA
UNIBERTSITATE-SISTEMAREN PRINTZIPIOAK, HELBURUAK ETA EGINKIZUNAK

*3. artikulua.*– Gizartearen zerbitzura

1.– Euskal unibertsitate-sistemari dagokio, euskal hezkuntza-sistemaren ikuskera integral baten barruan, goi-mailako unibertsitateko hezkuntza ematea, zerbitzu publikoaren moduan, irakaskuntzaren, ikasketen, etenik gabeko prestakuntzaren eta ikerketaren bidez, eta jakintzak eta teknologia gizartearen eskueran jarriz.

2.– Euskal unibertsitate-sistemak eta bera osatzen duten guztiek, diren titulartasun publikoko edo ez publikoko unibertsitateak, euskal gizarteari ekonomiaren, zientziaren eta kulturaren garapenean lagunduko diote, bai eta kohesioa eta herritarren ongizatea lortzen ere, bidezkoago eta solidarioagoa izango den gizartearen bidean.

3.– Era berean, unibertsitateek giza eskubideen errespetuaren gaineko hezkuntza eta demokraziaren eta justizia sozialaren baloreen gainekoa sustatu behar dute. Ohiko irakaskuntzaren osagarri diren ekimenak indartu beharko dituzte, eta horiei laguntza eman, giza duintasunari eta herri eta kultura guztien arteko elkartasunari dagozkien balioak transmititzen dituzten heinean. Gainera, orokorrean euskal kultur ondarearen gaineko defentsa, azterlana eta sustapena bultzatuko dituzte, eta bereziki euskararena.

4.– Unibertsitateak, gizartearen zein pertsonaren pentsamendu librea, sormen librea eta garapen librea bultzatzeko gunea izanik, bermatu egin behar ditu oinarrizko eskubide eta askatasunak, eta ikasleen, irakasleen eta langileen gaineko kontrol soziala ezetsi egin be-

marco del sistema europeo de la enseñanza superior, en desarrollo de la competencia reconocida en el artículo 16 del Estatuto de Autonomía del País Vasco.

*Artículo 2.*– Sistema universitario vasco

El sistema universitario está formado por todas las universidades con sede en el territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco, y en él se integrarán las que en el futuro sean creadas o reconocidas por el Parlamento Vasco. Asimismo, en el seno del sistema se promoverán las relaciones y la colaboración con otras instituciones universitarias ubicadas en otros territorios que comparten el cuerpo cultural del euskera o proyecto de futuro al objeto de potenciar el uso del euskera, a través de la coordinación de la docencia, la investigación, las actividades culturales y la movilidad entre el alumnado y el profesorado de las citadas instituciones universitarias, a fin de impulsar el uso del euskera, y todo ello dentro del ámbito de la Europa de las naciones. Se establecerán relaciones prioritarias con el resto de las universidades ubicadas en Euskal Herria.

TÍTULO I

EL SISTEMA UNIVERSITARIO VASCO

CAPÍTULO PRIMERO
PRINCIPIOS, OBJETIVOS Y FUNCIONES DEL SISTEMA UNIVERSITARIO VASCO

*Artículo 3.*– Servicio a la sociedad

1.– Corresponde al sistema universitario vasco, dentro de una concepción integral del sistema educativo vasco, la prestación del servicio público de la educación universitaria superior mediante la docencia, el estudio, la formación permanente, la investigación y la transferencia de conocimientos y de tecnología.

2.– El sistema universitario vasco y todos sus integrantes, sean de titularidad pública o no pública, contribuirán al desarrollo económico, científico y cultural de la sociedad vasca, a su cohesión y al bienestar de sus ciudadanos, en clave de una sociedad más justa y solidaria.

3.– Asimismo, las universidades han de promover la educación en los valores democráticos y de justicia social y en el respeto a los derechos humanos. Habrán de estimular y dar apoyo a las iniciativas complementarias a la enseñanza ordinaria que comporten la transmisión de los valores correspondientes a la dignidad humana y a la solidaridad entre todos los pueblos y culturas. Fomentarán, además, la defensa, el estudio y la promoción del patrimonio cultural vasco en general, y del euskera en particular.

4.– La universidad, como lugar de impulso del libre pensamiento, de la libre creación y del libre desarrollo tanto de la sociedad como del individuo, ha de garantizar los derechos y libertades básicos, rechazando el control social sobre alumnos, profesores y trabajadores,

har du, bakean eta askatasunean oinarritutako elkarbizitza lortzeko asmoz.

*4. artikulua.–* Autonomia

1.– Unibertsitatearen autonomiaren oinarria askatasun akademikoa da, eta ikasketa, ikerketa eta katedrako askatasunak dira askatasun horren adierazgarri.

Herri-aginteek eta, era berean, unibertsitateetako gobernu-organoek errespetatu eta sustatu egin behar dituzte esandako askatasun horiek; eta, beharrezkoa bada, askatasun horietaz baliatzeko eragozpen diren oztopoak kendu behar dituzte.

2.– Unibertsitateak, halaber, bere helburuak, bere interesak eta bere zerbitzuak kudeatzeko autonomia du, ordenamendu juridikoan ezarritako eremuaren barruan.

3.– Unibertsitate-autonomiak eskatzen eta ahalbidetzen du irakasleek, ikertzaileek eta ikasleek beren erantzukizunak betetzea, gizarteak hezkuntza, zientzia eta lanbide arloan dituen beharrak aseta izan ditzan, bai eta unibertsitateek gizarteari kontuak ematea ere beren bitarteko eta baliabideez.

*5. artikulua.–* Jarduera demokratikoa

1.– Unibertsitatearen antolaketa eta jarduera demokrazian oinarrituko dira, bere antolaketaren baitan diren arauen arabera.

2.– Unibertsitatearen antolaketak eta jarduerak unibertsitatearen barruan oinarrizko eskubideez eta askatasun publikoez baliatzeko bermea eskatzen dute; eta berekin dakarte, era berean, unibertsitate-erkidegoak unibertsitatearen kudeaketan eta kudeaketa horren kontrolean parte hartzeko eskubidea, indarrean dagoen araudi juridikoan ezarritako moduan.

*6. artikulua.–* Euskal unibertsitate-sistemaren helburuak

1.– Hauek dira euskal unibertsitate-sistemaren oinarrizko helburuak:

a) Zientziak, humanitateak, teknikak, arteak eta kultura sortu, garatu, transmititu, zabaldu eta kritikatzea.

b) Ikasleen prestakuntza intelektuala, zientifikoa, humanistikoa eta teknikoa eta beren lanbide-trebakuntza; eta pertsonen bizitza osoan etenik gabeko prestakuntzan laguntzea.

c) Gizartearen kohesioan laguntzea, euskal ondare intelektuala, humanistikoa, artistikoa, kulturala, teknikoa eta zientzietakoa indartuz eta haziz.

d) Pentsamendu eta adierazpen askatasun demokratikoen eta inoren ideologiarik kontuan hartzen ez duen berdintasun politikoaren errespetuan oinarritutako heziketa.

e) Jakintza-arlo guztietan euskara sartuz joatea, euskararen erabileraren normalizazioari laguntzeko.

encaminado a conseguir una convivencia basada en la paz y libertad.

*Artículo 4.–* Autonomía

1.– La autonomía de la universidad se fundamenta en la libertad académica, que se manifiesta en las libertades de estudio, de investigación y de cátedra.

Los poderes públicos, así como los órganos de gobierno de las universidades, han de respetar y promover dichas libertades y, en su caso, remover los obstáculos que se opongan a su ejercicio.

2.– La universidad dispone igualmente de autonomía para la gestión de sus finalidades, de sus intereses y de sus servicios en el marco establecido en el ordenamiento jurídico.

3.– La autonomía universitaria exige y hace posible que docentes, investigadores y estudiantes cumplan con sus respectivas responsabilidades, en orden a la satisfacción de las necesidades educativas, científicas y profesionales de la sociedad, así como que las universidades rindan cuentas del uso de sus medios y recursos a la sociedad.

*Artículo 5.–* Funcionamiento democrático

1.– La organización y funcionamiento de la universidad serán democráticos, de acuerdo con las normas existentes en su organización.

2.– La organización y funcionamiento de la universidad requiere la garantía del ejercicio de los derechos fundamentales y de las libertades públicas en su interior, y conlleva igualmente el derecho de la comunidad universitaria a participar en su gestión y en el control de dicha gestión en las formas establecidas en el ordenamiento jurídico vigente.

*Artículo 6.–* Objetivos del sistema universitario vasco

1.– El sistema universitario vasco tiene como objetivos fundamentales:

a) La creación, el desarrollo, la transmisión, la difusión y la crítica de las ciencias, las humanidades, las técnicas, las artes y la cultura.

b) La formación intelectual, científica, humanista y técnica y la capacitación profesional de los estudiantes y las estudiantes, así como la contribución a la formación permanente de las personas a lo largo de toda su vida.

c) Contribuir a la cohesión social, a través de la consolidación y el crecimiento del patrimonio intelectual, humanístico, artístico, cultural, técnico y científico vasco.

d) La educación en el respeto a la libertad del pensamiento y expresión democráticas y en el derecho a la igualdad política al margen de la ideología de las personas.

e) La incorporación progresiva del euskera a todos los ámbitos del conocimiento, contribuyendo así a la normalización de su uso.

f) Euskal unibertsitate-sistemaren eta lanaren, produkzioaren eta/edo enpresaren arteko lotura ezartzea.

g) Gizarte eta kulturako desberdintasunak gutxitzen eta gizonezkoen eta emakumeen arteko berdintasuna lortzen laguntzea, borondatea eta gaitasuna duten pertsona guztiei unibertsitate-heziketara iristeko bidea erraztuz.

h) Nazioarteko trukaketa eta lankidetza laguntzea.

2.– Bai unibertsitateen gaietan eskumenak dituen sailak, eta bai unibertsitateek berek ere, beren autonomiaz baliatuz, aipatutako helburuak lortzeko egoki deritzeten kontratuak eta hitzarmenak egin ahal izango dituzte, hala beren artean nola beste unibertsitate nahiz erakunde publiko eta pribatu batzuekin, diren Euskal Herrikoak nahiz kanpokoak.

7. ***artikulua***.– Printzipio gidariak

Hauek dira euskal unibertsitate-sistemaren antolaketak oinarri dituen printzipioak:

a) Unibertsitatearen autonomiaren erabateko onarpena, eta autonomia horrek oinarri dituen eskubideen eta askatasunen berme osoa.

b) Jakintzaren unibertsaltasuna, eta metodo zientifikoa edozein eragozpen politiko zein ideologikotik askatuta aplikatzea.

c) Irakaskuntza eta ikerketa unibertsitatearen jarduearen berezko eta funtsezko osagaitzat hartzea.

d) Irakaskuntzan eta ikerketan kalitatea eta bikaintasuna bultzatzea, eta jarduera horiek euskal gizartearen eta bertan bizi diren pertsonen gizarteko, kulturako eta ekonomiako interesetara egokitzea.

e) Unibertsitate-heziketa eta euskal unibertsitatesistema hezkuntza-sistemaren antolamendu orokorrera biltzea.

f) Unibertsitateko irakaskuntza euskaraz jasotzeko eskubidea benetan beteko dela bermatzeko eta zaintzeko herri-aginteek duten erantzukizuna; horretarako, beharrezko deritzeten arau bidezko garapenak eta ekintza positiboko neurriak sustatu beharko dituzte, unibertsitate-politika orokorraren barruan.

g) Gizarteak goi-mailako heziketari buruz dituen eskaera eta beharrizanei erantzutea, ikasleek, gizarte-eragileek eta lan-merkatuak adierazitakoei, alegia.

h) Ikasketa-eskaintza eta ikasketa-plan malguak, ikasleek aukera zabalak izan ditzaten, baliabide publikoak eraginkor erabiliko direla bermatuz.

i) Nafarroa eta Ipar Euskal Herriko unibertsitateekiko elkarlan eta koordinazio hitzarmenak bultzatzea eta garatzea, unibertsitate horiek horrela nahi izanez gero, batez ere ikasleen zirkulazio libreari dagokionez,

f) Conectar el sistema universitario vasco con el ámbito laboral, productivo y/o empresarial.

g) Contribuir a la reducción de las desigualdades sociales y culturales y a la consecución de la igualdad entre mujeres y hombres, facilitando a todas las personas con voluntad y capacidad el acceso a la formación universitaria.

h) Contribuir al intercambio y cooperación internacional.

2.– Para el logro de dichos objetivos, el departamento competente en materia de universidades, así como las propias universidades, en ejercicio de su autonomía, podrán establecer los contratos y convenios que estimen oportunos, entre sí o con otras universidades o con organismos públicos y privados, tanto de dentro como de fuera del País Vasco.

***Artículo*** 7.– Principios informadores

La ordenación del sistema universitario vasco se fundamenta en los siguientes principios:

a) El pleno reconocimiento de la autonomía universitaria y la plena garantía de los derechos y libertades en que se fundamenta.

b) La universalidad del conocimiento y la aplicación del método científico liberado de cualquier traba política o ideológica.

c) La consideración de la docencia y de la investigación como elementos constitutivos y centrales de la actividad universitaria.

d) El fomento de la calidad y de la excelencia en la enseñanza y en la investigación y su adecuación a los intereses sociales, culturales y económicos de la sociedad vasca y de las personas que habitan en ella.

e) La integración de la formación universitaria y del sistema universitario vasco en la ordenación general del sistema educativo.

f) La responsabilidad de los poderes públicos de garantizar y velar por el efectivo cumplimiento del derecho a recibir docencia universitaria en euskera, promoviendo para ello los desarrollos normativos y las medidas de acción positiva que se consideren necesarias, dentro de la política universitaria general.

g) La satisfacción de las demandas y necesidades sociales de formación superior, expresadas por las estudiantes y los estudiantes, los agentes sociales y las necesidades del mercado de trabajo.

h) La flexibilidad de las ofertas de estudio y de los planes de estudio, de forma que las estudiantes y los estudiantes cuenten con amplias posibilidades, a la vez que se garantiza un uso eficiente de los recursos públicos.

i) El impulso y desarrollo de acuerdos de colaboración y coordinación con las universidades de Navarra y el País Vasco Norte en la medida que éstas lo deseen, y en particular lo relativo al derecho a la libre circula-

unibertsitate horietako ikasleak euskal unibertsitate-sisteman onartzeko bide normalizatuak ezarriz.

j) Ikasketa-ibilbide malguak indartzea.

k) Herritarrek bizitza osoan zehar ikasten jarraitu ahal izateko aukera garatzen parte hartzea.

l) Gizarte eta kulturako desberdintasunak gutxitzen eta gizonezkoen eta emakumeen arteko berdintasuna lortzen laguntzea, borondatea eta gaitasuna duten pertsona guztiei arautUtako unibertsitate-heziketara eta etenik gabeko lanbide-heziketara iristeko bideak erraztuz.

m) Androzentrikoa ez den jakintza ekoizten laguntzea, unibertsitateek egoki iritzitako ekintza positiboko neurriak babestuz, emakumeei unibertsitatean sartzeko bidea errazteko eta emakumeak jakintza-arlo guztietan aritzea bultzatzeko.

n) Goi-mailako irakaskuntzako Europako esparrua eratzen parte hartzea eta bertara biltzea, eta euskal unibertsitate-sistema Europan eta munduan sustatzea.

ñ) Lege honen ezarpen-eremuan, unibertsitateko irakaskuntzaren garapen orekatua.

o) Unibertsitatea aurrerapenaren eta gizarte-ongizatearen gizarte-eragiletzat hartzea.

p) Irakaskuntzaren, ikerketaren eta unibertsitateko zerbitzuen kudeaketaren kalitatea ebaluatzeko, nazioartean erabilitakoen pareko sistemak eta metodoak aplikatzea.

q) Gutxi garatutako eta garatze bidean diren herrialdeekin elkartasun-lankidetza izatea.

***8. artikulua.***– Irakaskuntza jaso eta aukera-berdintasuna izateko eskubidea

1.– Duten nazionalitatea dutela, pertsona guztiek dute unibertsitatean ikasteko eskubidea, legearen arabera ezarritako baldintzak betetzen badituzte, eta unibertsitateek beren eskumenen eremuan ezarritako irizpideekin bat etorriz.

Unibertsitatean, unibertsitateak emandako irakaskuntza edo tituluetara iristeko bidea honen arabera ezarriko da: goi-mailako irakaskuntzaren programazio orokorraren, gizarteak eskatutako prestakuntzaren eta unibertsitateak instalazio eta irakasletan duen gaitasunaren arabera.

2.– Ekonomiako arrazoiengatik, askatasunik ezagatik, osasun edo elbarritasun arazoengatik edo beste era bateko arrazoiengatik euskal unibertsitate-sistematik inor ere ez dadin baztertuta gera, Jaurlaritzak arau bidezko garapenari ekingo dio eta aukera-berdintasuneko politikak bultzatuko ditu ikasleei bekak, laguntzak eta maileguak eskainiz, eta gizarteko, ekonomiako eta geografiako oztopoak ezabatzeko politikak garatuz.

ción de estudiantes, de forma que se establecerán mecanismos normalizados de admisión de los mismos en el sistema universitario vasco.

j) La potenciación de itinerarios flexibles.

k) La participación en el desarrollo del aprendizaje de los ciudadanos y ciudadanas a lo largo de su vida.

l) La contribución a la reducción de las desigualdades sociales y culturales y a la consecución de la igualdad entre los hombres y las mujeres, facilitando a todas las personas con voluntad y capacidad el acceso a la formación universitaria reglada y a la formación profesional permanente.

m) La contribución a la producción de un conocimiento no androcéntrico, apoyando las medidas de acción positiva que las universidades consideren necesarias a fin de facilitar una mejor inserción y promoción de las mujeres en todas las áreas de conocimiento.

n) La participación en la configuración del espacio europeo de enseñanza superior y la integración en el mismo, así como la promoción del sistema universitario vasco en Europa y en el mundo.

ñ) El desarrollo de la enseñanza universitaria en el ámbito de aplicación de esta ley.

o) La consideración de la universidad como agente social de progreso y de bienestar social.

p) La aplicación de sistemas y métodos de evaluación de la calidad de la enseñanza, la investigación y la gestión de los servicios universitarios, equiparables internacionalmente.

q) La cooperación solidaria con los países subdesarrollados y en vías de desarrollo.

***Artículo 8.***– Derecho a la enseñanza y a la igualdad de oportunidades

1.– Todas las personas de cualquier nacionalidad que cumplan los requisitos legalmente establecidos tienen derecho al estudio en la universidad, de conformidad con los criterios que, en el marco de sus competencias, establezcan las universidades.

En la universidad, el acceso a las diferentes enseñanzas o titulaciones que imparta será establecido en función de la programación general de la enseñanza superior, la demanda social de formación y la propia capacidad en instalaciones y en profesorado.

2.– El Gobierno, para garantizar que nadie quede excluido del acceso al sistema universitario vasco por razones económicas, ausencia de libertad, problemas de salud o discapacidad u otro tipo de circunstancias, procederá al desarrollo normativo correspondiente e impulsará políticas de igualdad a través de la oferta de becas, ayudas y créditos a los estudiantes y las estudiantes, y mediante el desarrollo de una política destinada a salvar las barreras sociales, económicas y geográficas.

3.– Politika hauek lagundu nahi diren unibertsitate-eskaintzen izaera publiko edo pribatuaren araberako arauen bidez garatuko dira, eta bakoitzari dagozkion baldintzen eta betebeharren araberako arauen bidez.

## BIGARREN KAPITULUA
## UNIBERTSITATEEN ARAUBIDE JURIDIKOA

***9. artikulua.***– Xedapen orokorra

1.– Unibertsitateen autonomia legeen eremuan eta legeok garatzeko arauen eremuan, zein unibertsitateen antolaketaren eta jarduteko moduaren gaineko estatutu eta arauen eremuan gauzatuko da.

2.– Aginduta dituen eginkizunen eremuan, unibertsitateari dagokio legeetan eta horiek garatzeko erregelamenduetan arautu gabeko eta beste organo zein instituzio batzuei egotzi gabeko gaiak arautzea eta horien garapeneko arauak egitea.

***10. artikulua.***– Estatutuak eta antolaketaren eta jarduteko moduaren gaineko arauak

1.– Euskal Herriko Unibertsitatearen estatutu eta gainerako arauak eta publikoak ez diren unibertsitateen antolaketa eta jarduteko moduaren gaineko arauak egin, onartu eta argitaratzea ordenamendu juridikoan aurreikusitakoarekin bat etorriz egingo da, eta orobat horien guztien aldaketak.

2.– Antolaketaren eta jarduteko moduaren gainean unibertsitate publikoko gobernu-organoek emandako estatutuak eta arauak, baita horien gaineko aldaketak eta orokorrean aplikatzekoak diren xedapenak ere, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, eta ez dira indarrean jarriko harik eta testuak oso-osorik argitaratu arte.

3.– Euskal unibertsitate-sisteman dauden unibertsitate ez publikoen antolaketa eta jarduera arauak, bai eta horien aldaketak ere, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira. Gobernu-organoek emandako ebazpen orokorrak unibertsitate-erkidegoko kideek horien berri jakiteko moduan egongo dira.

## HIRUGARREN KAPITULUA
## UNIBERTSITATEAN ERABILTZEKO HIZKUNTZAK

***11. artikulua.***– Hizkuntzen erabilera

1.– Euskara, Euskal Herriko berezko hizkuntza denez, eta gaztelania hizkuntza ofizialak dira euskal unibertsitate-sisteman.

2.– Herri-aginteei dagokie hizkuntza-normalizazioa bermatzea, euskararen aldeko ekintza positiboko hizkuntza-politikaren oinarriak ezarrita.

3.– Unibertsitateek beharrezko diren neurriak hartuko dituzte, araudian eta berariazko planetan gai ho-

3.– Estas políticas tendrán su desarrollo mediante normativas acordes con el carácter público o privado de las ofertas universitarias a las que se dirijan estas ayudas, así como con los condicionantes y requisitos que sean preceptivos para cada una.

## CAPÍTULO SEGUNDO
## RÉGIMEN JURÍDICO DE LAS UNIVERSIDADES

***Artículo 9.***– Disposición general

1.– La autonomía de las universidades se ejerce en el marco de las leyes y de las normas que las desarrollan, así como de sus estatutos y normas de organización y funcionamiento.

2.– Corresponde a la universidad, en el ámbito de las funciones que tiene asignadas, la regulación y desarrollo normativo de las materias que no se encuentren reguladas en las leyes y sus reglamentos de desarrollo, ni atribuidas a otros órganos o instituciones.

***Artículo 10.***– Estatutos y normas de organización y funcionamiento

1.– Los estatutos y demás normas de la Universidad del País Vasco y las normas de organización y funcionamiento de las universidades no públicas, así como sus modificaciones, serán elaborados, aprobados y publicados conforme a lo previsto en el ordenamiento jurídico.

2.– Los estatutos y las normas de organización y funcionamiento de la universidad pública, así como sus modificaciones y las disposiciones de general aplicación que dicten los órganos de gobierno de la misma, serán publicados en el Boletín Oficial del País Vasco y en el Boletín Oficial del Estado, y no entrarán en vigor hasta la íntegra publicación de sus textos.

3.– Las normas de organización y funcionamiento de las universidades no públicas integradas en el sistema universitario vasco, así como sus modificaciones, serán publicadas en el Boletín Oficial del País Vasco. Las resoluciones de carácter general de sus órganos de gobierno serán accesibles para su conocimiento por los miembros de su comunidad universitaria.

## CAPÍTULO TERCERO
## DE LAS LENGUAS DE USO EN LA UNIVERSIDAD

***Artículo 11.***– Uso de las lenguas

1.– El euskera, lengua propia del País Vasco, y el castellano tienen el carácter de lenguas oficiales en el sistema universitario vasco.

2.– Corresponde a los poderes públicos garantizar la normalización lingüística, estableciendo para ello las bases de una política lingüística de acción positiva a favor del euskera.

3.– Las universidades adoptarán las medidas necesarias de acuerdo con lo que al respecto se establezca en

ni buruz ezarritakoarekin bat etorriz, bere osotasunean bermatuz euskaraz ikasteko eta bizitzeko eskubidea.

4.– Irakasle eta ikertzaileei dagokienez, Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen (uztailaren 6ko 6/89 Legearen) 2. artikuluaren aplikazioari jarraituz, Eusko Jaurlaritzak, hezkuntzako eskumena duen sailak proposaturikoaren arabera, irakaskuntzaren eta ikerkuntzaren berezitasunei egokitzeko arau espezifikoak onartuko ditu. Eusko Jaurlaritzak eta unibertsitateak, indarrean dagoen araudia kontuan hartuta, hautaketa, sarbide eta ebaluaketa prozesuak arau horiei egokiturik egotea bermatu behar dute.

5.– Euskal Herriko Unibertsitateko administrazioko eta zerbitzuetako langile guztiei, bestalde, Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean herri-administrazioen zerbitzura diharduten langileentzat aurreikusitakoa aplikatuko zaie.

6.– Unibertsitateen gaian eskumena duen sailak eta unibertsitateek eurek zientziarako erabiltzen diren beste hizkuntza batzuk jakitea sustatuko dute, eta unibertsitatearen jarduera akademikoetan sartuko dute hizkuntza horien erabilera

II. TITULUA

UNIBERTSITATE ERKIDEGOA

LEHENENGO KAPITULUA
UNIBERTSITATE-ERKIDEGOAREN DEFINIZIOA

*12. artikulua.–* Unibertsitate-erkidegoa

Unibertsitate-erkidegoa honako hauek osatzen dute: euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateetan ematen diren ikasketetan matrikulatutako ikasleek; prestaldian diren ikertzaileek; irakasleek eta ikertzaileek, eta euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateei atxikitako administrazioko eta zerbitzuetako langileek.

BIGARREN KAPITULUA
UNIBERTSITATE PUBLIKOKO IRAKASLE
ETA IKERTZAILEAK

LEHENENGO ATALA
Xedapen Orokorrak

*13. artikulua.–* Osaera

1.– Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle-taldea osatzen dute unibertsitateko irakasleen kidegoetako irakasleek eta lan-zuzenbideko araubidearen arabera kontratatutako irakasleek eta ikertzaileek.

2.– Euskal Herriko Unibertsitateko estatutuetan bermatu egin behar da kontratatutako langileak uni-

la propia normativa y planes específicos, garantizando en su integridad el derecho a estudiar en euskera y vivir en dicho idioma.

4.– En lo relativo al profesorado y al personal investigador, de conformidad con la aplicación del artículo 2 de la Ley 6/89, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca, el Gobierno Vasco, a propuesta del departamento competente en educación, aprobará normas específicas de adecuación a las peculiaridades de la enseñanza y la investigación. El Gobierno Vasco y la universidad, de acuerdo con la normativa en vigor, deberán garantizar que los procesos de selección, acceso y evaluación se adecuan a dichas normas.

5.– A todo el personal de administración y servicios de la Universidad del País Vasco le será de aplicación lo previsto para los trabajadores al servicio de las administraciones públicas en la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, Básica de Normalización del Uso del Euskera.

6.– El departamento competente en materia de universidades y las universidades fomentarán el conocimiento de otras lenguas en que se desarrolle la ciencia e incluirán su uso en las actividades académicas de la universidad.

TÍTULO II

LA COMUNIDAD UNIVERSITARIA

CAPÍTULO PRIMERO
DEFINICIÓN DE COMUNIDAD UNIVERSITARIA

*Artículo 12.–* Comunidad universitaria

La comunidad universitaria está integrada por estudiantes matriculados en cualquiera de las enseñanzas que se impartan en las universidades del sistema universitario vasco, el personal investigador, el personal docente e investigador, y el de administración y servicios adscrito a universidades del sistema universitario vasco.

CAPÍTULO SEGUNDO
EL PERSONAL DOCENTE E INVESTIGADOR
DE LA UNIVERSIDAD PÚBLICA

SECCIÓN PRIMERA
Disposiciones Generales

*Artículo 13.–* Composición

1.– El profesorado de la Universidad del País Vasco está compuesto por el profesorado perteneciente a los cuerpos docentes universitarios y por el personal docente e investigador contratado en régimen de derecho laboral.

2.– Los estatutos de la Universidad del País Vasco habrán de asegurar la presencia en los órganos de go-

bertsitateko irakasleen kidegoetako langileen antzeko baldintzetan egongo direla gobernu-organoetan.

*14. artikulua.*– Irakasle eta ikertzaile kontratatuen kategoriak

1.– Hauek dira irakasle eta ikertzaile kontratatuen kategoriak:

a) Irakasle osoa.

b) Irakasle agregatua.

c) Irakasle atxikia.

d) Irakasle lankidea.

e) Irakasle elkartua.

f) Irakasle bisitaria.

g) Irakasle emeritua.

h) Laguntzailea.

2.– Halaber, lan eta zerbitzu jakinetarako irakasle eta ikertzaileak nahiz teknikari edo bestelako langileak ere kontratatu ahal izango dira, zientzia eta teknika ikerketako proiektu jakinak egiteko.

*15. artikulua.*– Irakasle eta ikertzaile kontratatuen ehunekoa

1.– Oinarrizko legedian ezarritakoaren ondorioetarako, hauek izango dira unibertsitateko funtzionarioen kidegoetako langileen arteko eta irakasle eta ikertzaile kontratatuen arteko ehunekoa zehazteko irizpideak:

a) Unibertsitate osoa kontuan hartuta kalkulatuko da. Horretarako, unibertsitateko plantilla osoa hartuko da, onartutako lanpostuen zerrenden arabera, lanpostu hutsak barne direla, erregelamenduz ezarritako salbuespenak salbuespen.

b) Zenbaketa egiteko, denbora osoa izango da neurria, eta denbora-zati batez diharduten irakasleen eragina haztatu egingo da.

c) Ez dira kontratatutako irakasle moduan zenbatuko titulu ofizialak lortzeko bideratutako irakaskuntza ofizialak irakasten ez dituztenak. Ez dira zenbatuko ehuneko horretan Unibertsitateei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoko 12. xedapen gehigarrian aipatzen diren unibertsitateari atxikitako ikerketa-institutuetako langileak ere, ez ikertzaile lotetsiak, ez irakasle elkartuak.

2.– Unibertsitateko gobernu-kontseiluak, oinarrizko legedian finkatutako ehunekotik urrundu gabe, unibertsitateko premia orokorrak kontuan hartuta zenbait zentro edo sailetarako kontratuetarako baldintzak eta mugak jarri ahal izango ditu, eta, zehazki, titulazio berrietako irakasle-premiei aurre egiteko.

bierno del personal contratado en condiciones equilibradas con el personal perteneciente a los cuerpos docentes universitarios.

*Artículo 14.*– Categorías de personal docente e investigador contratado

1.– Las categorías del personal docente e investigador contratado son las siguientes:

a) Profesora o profesor pleno.

b) Profesora o profesor agregado.

c) Profesora o profesor adjunto.

d) Profesora o profesor colaborador.

e) Profesora o profesor asociado.

f) Profesora o profesor visitante.

g) Profesora o profesor emérito.

h) Ayudante.

2.– También podrá contratarse personal docente e investigador, personal técnico u otro personal para obra y servicio determinado, con el fin de desarrollar proyectos concretos de investigación científico-técnica.

*Artículo 15.*– Porcentaje de personal docente e investigador contratado

1.– A los efectos de lo establecido en la legislación básica, el cómputo porcentual del personal docente e investigador contratado en relación al perteneciente a los cuerpos de funcionarios universitarios se efectuará conforme a los siguientes criterios:

a) Se calculará tomando como referencia toda la universidad, es decir, la plantilla total de las relaciones de puestos trabajo, incluidas las plazas vacantes, sin perjuicio de las excepciones que reglamentariamente puedan fijarse.

b) El cómputo se hará en equivalencia a tiempo completo, ponderando la incidencia del profesorado a tiempo parcial.

c) No se computará como profesoras o profesores contratados a quienes no impartan docencia en las enseñanzas oficiales conducentes a la obtención de los títulos oficiales. Tampoco se computará en dicho porcentaje el personal propio de los institutos de investigación adscritos a la universidad, las investigadoras e investigadores vinculados y las profesoras y profesores asociados a que se refiere la disposición adicional 12.ª de la Ley Orgánica 6/2001, de 21 de diciembre, de Universidades.

2.– El consejo de gobierno de la universidad podrá establecer, dentro del porcentaje fijado en la legislación básica, condiciones y/o limitaciones para la contratación en relación con determinados centros o departamentos en atención a las necesidades generales de la universidad y, en particular, para hacer frente a las necesidades de profesorado en las nuevas titulaciones.

BIGARREN ATALA
Irakasle eta ikertzaile kontratatuen hautaketa

*16. artikulua.–* Lehiaketa publikoa

1.– Unibertsitateko irakasleen eta ikertzaileen kontratazioa lehiaketa publikoz egingo da, berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioak errespetatuz. Lege honetan eta gainerako ordenamendu juridikoan ezarritako eskakizunak eta deialdi bakoitzean ezarritako eskakizun zehatzak betetzen dituzten pertsona guztiek har dezakete parte, edozein nazionalitate dutela ere.

2.– Ondorengo kasu hauetan ez da lehiaketa-araubidea aplikatuko, eta zuzeneko kontratazioa egingo da irakasle bisitarien eta irakasle emerituen kasuan. Nolanahi ere, irakasle horien kopuru osoa kontratatutako irakasleen ehuneko bostekoa izango da gehienez ere.

*17. artikulua.–* Deialdia

1.– Kontratatutako irakasleen eta ikertzaileen lanpostuak betetzeko lehiaketa publikoetarako deialdia unibertsitateko errektoreak onartu behar du, lehiaketako oinarriak jaso behar dira bertan, eta dagokion zabalkundea eman beharko zaio. Zerrenda zehaztugabe baten bidez betetzekoak diren lanpostuetarako deialdia denean, errektoreak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin aginduko du.

2.– Ezin izango da inolako lanpostutarako deialdirik egin, lanpostuen zerrendan lanpostu hutsik ez badago eta aurrekontuko diru-izendapenik ez badago. Horretarako, deialdia egin aurretik, errektoreak txostena eskatuko dio kudeatzaileari eta loteslea izango da alderdi horietan.

*18. artikulua.–* Hautaketa-batzordeak

1.– Kontratatutako irakasleen eta ikertzaileen hautaketa lanpostuaren jakintza-arloko edo, bestela, horren gertuko jakintza-arlo bateko irakaslez osatutako batzordeek egingo dute, Jaurlaritzak erregelamenduz zehaztutako moduan, unibertsitateen gainean eskumenak dituen sailak proposatuta.

2.– Hautaketa-batzordeetako kideen izendapena zozketaz egingo da iraunkorrak diren lanpostu edo plaza guztietarako. Zozketa publikoa izango da, eta gutxienez batzordekide-kopurua halako hiru dituen zerrenda bat erabiliz egingo da, dagokion jakintza-arloan dauden aukeren arabera.

3.– Irakasle osoen zein irakasle agregatuen kategorietara iristeko hautaketa-batzordeak unibertsitateko katedradunek eta irakasle kontratatu doktoreek osatuko dituzte, goi-mailako irakaskuntzako Europako esparruko unibertsitate publikoetako kide direnek nolanahi ere. Horietako bat, gehienez, Euskal Herriko Uni-

SECCIÓN SEGUNDA
Selección de personal docente e investigador contratado

*Artículo 16.–* Concurso público

1.– La contratación del personal docente e investigador de la universidad se hará mediante concurso público, con respeto a los principios de igualdad, mérito y capacidad. Podrán participar todas las personas de cualquier nacionalidad que cumplan los requisitos establecidos en la presente ley y en el resto del ordenamiento jurídico y los específicos que figuren en la respectiva convocatoria.

2.– No será de aplicación el régimen de concurso y procederá la contratación directa en el caso de profesores o profesoras visitantes y profesoras o profesores eméritos. En todo caso, el número total de éstos no podrá superar el 5 por 100 del total del profesorado contratado.

*Artículo 17.–* Convocatoria.

1.– La convocatoria de concursos públicos para la selección de puestos de personal docente e investigador contratado será acordada por el rector o rectora de la universidad y habrá de incluir las bases del concurso, dándole la oportuna publicidad. Cuando se trate de convocatorias dirigidas a la provisión de puestos mediante una relación de carácter indefinido, la rectora o rector ordenará su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

2.– No se podrá convocar ningún puesto si no existe vacante en la relación de puestos de trabajo y consignación presupuestaria. A tal efecto, con carácter previo a la convocatoria el rector o rectora requerirá informe del gerente, que será vinculante en dichos aspectos.

*Artículo 18.–* Comisiones de selección.

1.– La selección del personal docente e investigador contratado se llevará a cabo mediante comisiones integradas por profesores y profesoras pertenecientes al área de conocimiento o, en su caso, al área afín a que pertenezca el puesto, en la forma que determine el Gobierno reglamentariamente, a propuesta del departamento competente en materia de universidades.

2.– La designación de los miembros de las comisiones de selección se hará en todos los puestos o plazas de carácter permanente mediante sorteo público, sobre una lista que contenga al menos un número tres veces mayor del número de componentes de la comisión en función de la disponibilidad vigente en el ámbito del conocimiento.

3.– Las comisiones de selección para el acceso a las categorías de profesora o profesor pleno o profesora o profesor agregado estarán integradas por catedráticas o catedráticos de universidad o profesoras o profesores plenos pertenecientes a universidades públicas del espacio europeo de la enseñanza superior. Uno de ellos, como

bertsitateko plantillako kide izan daiteke, non eta lanpostuak nahitaez euskaraz jakin beharrekoak ez diren, zeren eta orduan sistema malgutu egin ahal izango baita erregelamendu bidez, hautaprobak euskaraz egin ahal izan daitezen. Era berean, irakasle agregatuak hautatzeko hautaketa-batzordeetan irakasle titularrek edo irakasle agregatuek parte hartzea ezar dezake Gobernuak. Bestalde, ordezkaritza sindikalak izendaturiko langileen ordezkariak ere parte hartuko du hautaketa-batzordeetan, betiere indarrean dagoen legeriarekin bat.

4.– Gainerako irakasle eta ikertzaileak, bai eta laguntzaileak ere, katedradun, irakasle titular, irakasle oso eta irakasle agregatuek osatutako batzordeek hautatuko dituzte, betiere jardunean badaude eta Euskal Herriko Unibertsitateko plantillako kide badira; hala ere, irakasle lankideak iraunkorrak hautatu behar direnean, hautaketa-batzordeetan unibertsitatetik kanpoko irakasleek parte hartzea ezarri ahal izango da erregelamendu bidez.

5.– Hautaketa-batzordeek izangai guztien merezimenduak eta jarritako proben emaitzak baloratu beharko dituzte, eta lehenesteen eta bakoitzari zenbakitan emandako balorazioaren gaineko arrazoiak azaldu egin beharko dituzte. Aginduzkoa da merezimenduen artean Euskadiko hizkuntza ofizialak jakitea balora dadin, eta lanpostuen zerrendan elebidun izendatutako lanpostu guztietan aginduzkoa izango da euskara jakitea.

6.– Hautaketa-batzordeen erabakiak lotesleak dira izendapena egiteko eskumenak dituen organoarentzat, hurrengo paragrafoan aurreikusitakoaren aurka jarri gabe.

7.– Unibertsitateko estatutuetan erreklamazioetarako araubide bat aurreikusi behar da, hautaketa-batzordeen erabakiei aurre egin ahal izateko; erreklamazioak jasoko dituen organoak bere independentzia eta inpartzialtasuna bermatu behar ditu, eta deuseztatu egin ahal izango ditu errekurtsoz aurkatutako erabakiak.

### HIRUGARREN ATALA
### Irakasle kontratatuen kategoriak eta horietara iristeko eskakizunak

*19. artikulua.–* Irakasle osoa

1.– Irakasle osoen lanpostuetara iritsi nahi duten hautagaiek eskakizun hauek bete eta egiaztatu behar dituzte:

a) Doktore-titulua beharrezkoa duten unibertsitateko irakasle-kidegoetakoren batekoa izatea, edo lege honen arabera irakasle agregatua izatea, eta gutxienez hiru urteko esperientzia egiaztatzea unibertsitateko irakaskuntza eta ikerketa jardueretan.

máximo, podrá pertenecer a la plantilla de la Universidad del País Vasco, salvo para las plazas en que fuera preceptivo el conocimiento del euskera, en cuyo caso reglamentariamente podría flexibilizarse el sistema con el objetivo de que las pruebas puedan realizarse en euskera. Asimismo, el Gobierno podrá determinar la participación de profesores titulares o profesores agregados en las comisiones de selección de estos últimos. Por otra parte, la representante o el representante de los trabajadores y trabajadoras designado por la representación sindical también participará en las comisiones de selección, siempre de acuerdo con la legislación vigente.

4.– El resto del personal docente e investigador, así como los ayudantes y las ayudantes, será seleccionado por comisiones formadas por catedráticas o catedráticos, profesoras o profesores titulares, profesoras o profesores plenos o profesoras o profesores agregados, en activo, pertenecientes a la plantilla de la Universidad del País Vasco, salvo cuando se trate de profesoras o profesores colaboradores de carácter permanente, en cuyo caso en las comisiones de selección podrá arbitrarse reglamentariamente la participación de profesorado externo a la propia universidad.

5.– Las comisiones de selección habrán de valorar los méritos de todos los candidatos o candidatas y el resultado de las pruebas en que consistan, con expresión motivada de las preferencias y de la valoración numérica que se otorgue a cada uno. Entre los méritos preceptivamente se valorará el conocimiento de las lenguas oficiales de Euskadi, y en todas las plazas calificadas como bilingües en la relación de puestos de trabajo el conocimiento del euskera será preceptivo.

6.– Los acuerdos de las comisiones de selección serán vinculantes para el órgano competente para el nombramiento, sin perjuicio de lo previsto en el apartado siguiente.

7.– Los estatutos de la universidad habrán de prever un régimen de reclamaciones frente a los acuerdos de las comisiones de selección, que serán formuladas ante un órgano constituido en forma tal que se garantice su independencia e imparcialidad y que podrá anular los acuerdos recurridos.

### SECCIÓN TERCERA
### Categorías de profesores contratados y requisitos para el acceso

***Artículo 19.–*** Profesoras y profesores plenos.

1.– Los candidatos y candidatas que vayan a acceder a puestos de profesoras o profesores plenos han de reunir y acreditar los requisitos siguientes:

a) Pertenecer a cualquiera de los cuerpos docentes universitarios para cuyo acceso se requiere el título de doctor, o tener la condición de profesora o profesor agregado conforme a esta ley y acreditar, al menos, tres años de actividad docente universitaria e investigadora.

b) Irakaskuntza eta ikerketa jarduera horien gaineko ebaluazio positiboa edukitzea, hain zuzen ere Gobernuak erregelamendu bidez ezarritakoa, Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentziaren txostenaz edo Euskal Autonomia Erkidegoko araudiak onartutako antzeko erakunde batenaz egiaztatuta.

2.– Hautaketa-prozesuak hiru aldi izango ditu. Lehenengo aldian, hautaketa-batzordeari aurkeztuko zaizkio hautagaiak irakasle zein ikertzaile moduan eta bere lanbidean dituen merezimenduak eta historiala, eta batzordearekin horien gainean eztabaida egingo da. Bigarren aldian, batzordeari aurkeztu eta berarekin eztabaidatuko dira proposatutako irakaskuntza-programa eta ikerketa-proiektua edo proiektuak. Hirugarren aldian, bestalde, lanpostuari dagokion jakintza-arloko jatorrizko ikerketa-lan bat aurkeztu eta eztabaidatuko da.

3.– Mota honetako irakasleen kontratuek epe-mugarik gabeko iraupena izango dute.

*20. artikulua.*– Irakasle agregatua

1.– Irakasle agregatu izatera iritsi nahi duten hautagaiek eskakizun hauek bete behar dituzte:

a) Doktore-titulua izatea.

b) Gutxienez hiru urteko esperientzia egiaztatzea unibertsitateko irakaskuntza eta ikerketa jardueretan.

c) Irakaskuntza eta ikerketa jarduera horien gaineko ebaluazio positiboa edukitzea, hain zuzen ere Gobernuak erregelamendu bidez ezarritakoa Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentziaren txostenaz edo Euskal Autonomia Erkidegoko araudiak onartutako antzeko erakunde batenaz egiaztatuta.

2.– Irakasle agregatu izatera iristeko probak hiru aldi izango ditu. Lehenengo aldian, batzordeari aurkeztuko zaizkio, eta berarekin eztabaidatuko, hautagaiaren merezimenduak eta ikasle, irakasle eta ikertzaile moduan duen historiala, baita irakaskuntzarako eta ikerketarako bere proiektua ere, dena delako jakintza-arloko gaietako edo espezialitateetako baten programa barnean dela. Bigarren aldian, batzordearen aurrean azaldu beharko da, eta harekin eztabaidatu, hautagaiak aurkeztutako programatik zozketaz ateratako hiru gaietatik bat, berak aukeratutakoa. Hirugarren aldian, batzordeari aurkeztutako jatorrizko ikerketa-lan bat eztabaidatuko da berarekin.

3.– Mota honetako irakasleen kontratuek epe-mugarik gabeko iraupena izango dute.

*21. artikulua.*– Irakasle atxikia

1.– Irakasle atxikiek irakaskuntza eta ikerketako eginkizunak betetzen dituzte. Karrera akademikoa hasten dutenentzat gordeko du unibertsitateak kontratazio-mota hau.

b) Disponer de la evaluación positiva de la actividad docente e investigadora que se fije reglamentariamente por el Gobierno, acreditada con el informe de la Agencia de Evaluación de la Calidad del Sistema Universitario Vasco u organismo similar reconocido por la normativa vasca.

2.– El proceso de selección constará de tres fases. La primera consistirá en la presentación y debate con la comisión de selección de los méritos e historial docente, investigador y, en su caso, profesional del candidato o candidata. La segunda fase consistirá en la presentación y debate con la comisión del programa docente propuesto, así como de su proyecto o proyectos de investigación. La tercera fase tratará de la presentación y debate de un trabajo original de investigación perteneciente al área de conocimiento a que corresponda el puesto.

3.– Los contratos de esta categoría del profesorado tendrán duración indefinida.

*Artículo 20.*– Profesoras y profesores agregados

1.– Los candidatos y candidatas, para acceder a la condición de profesora o profesor agregado, habrán de acreditar las siguientes condiciones:

a) Estar en posesión del título de doctora o doctor.

b) Acreditar, al menos, tres años de actividad docente universitaria e investigadora.

c) Disponer de la evaluación positiva de la actividad docente e investigadora, que se fijará reglamentariamente por el Gobierno, acreditada con el informe de la Agencia de Evaluación de la Calidad y Acreditación del Sistema Universitario Vasco u organismo similar reconocido por la normativa vasca.

2.– La prueba de acceso constará de tres fases. La primera consistirá en la presentación y discusión con la comisión de los méritos e historial académico, docente e investigador de la candidata o candidato, así como de su proyecto docente e investigador, que incluirá el programa de una de las materias o especialidades del área de conocimiento de que se trate. La segunda consistirá en la exposición y debate con la comisión de un tema del programa presentado por la candidata o candidato y elegido por éste, de entre tres sacados a sorteo. La tercera prueba consistirá en la exposición y debate con la comisión de un trabajo original de investigación.

3.– Los contratos de esta categoría del profesorado tendrán duración indefinida.

*Artículo 21.*– Profesoras y profesores adjuntos

1.– Las profesoras y profesores adjuntos desempeñan funciones docentes e investigadoras. La universidad reservará esta modalidad de contratación a quienes inician su carrera académica.

2.– Kategoria honetara iristeko, hauek behar dira:

a) Doktore-titulua izatea.

b) Euskal Herriko Unibertsitatearekin gutxienez bi urtez loturarik ez dutela izan egiaztatzea, ez kontratu bidez, ez estatutu bidez ezta beka bidez ere, eta aldi horretan unibertsitate horri lotuta ez dauden zentroetan egin dituztela irakaskuntza-lanak zein ikerketa-lanak edo doktore-titulua beste unibertsitate batek eman diela.

c) Lanpostua atxikita duen sailak emandako aldeko txostena, hautagaiaren irakaskuntzarako eta ikerketarako gaitasunaren gainean.

d) Irakaskuntza eta ikerketa jarduera horien gaineko ebaluazio positiboa edukitzea, Gobernuak erregelamendu bidez ezarritakoa, Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentziaren txostenaz edo Euskal Autonomia Erkidegoko araudiak onartutako antzeko erakunde batenaz egiaztatuta.

e) Irakaskuntza eta ikerketa arloetako merezimenduak hautaketa-batzordeari azaldu eta berarekin eztabaidatzea, eta berdin kontratua indarrean den aldian egingo dituen irakaskuntza-programa eta ikerketa-proiektua edo proiektuak ere.

3.– Unibertsitateak gehienez ere lau urterako kontratatuko ditu irakasle atxikiak, eta urte horiek ez dute zertan bata bestearen segidakoak izan. Kontratuak dirauen artean aita edo ama izatea gertatzen bada, erditu ondoko hamabi hilabeteak ez dira kontuan hartuko agindu honetan aipatutako muga-epe hori zenbatzeko.

*22. artikulua.–* Irakasle lankideak

1.– Unibertsitateak irakasle lankideak kontratatu ahal izango ditu irakaskuntza-lanak betetzeko, lizentziatu, arkitekto eta ingeniari nahiz unibertsitate-diplomadun, arkitekto tekniko edo ingeniari teknikoen artean, hala epe-mugarik gabe nola aldi baterako.

2.– Nolanahi ere, kategoria horretara iristeko, beharrezkoa izango da Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentziaren edo antzeko erakunde baten aldeko txostena, erregelamendu bidez ezarritako eran egina.

3.– Epe-mugarik gabe kontratatu beharreko irakasle lankidearen hautaketa-proban, hautaketa-batzordeari aurkeztu eta berarekin eztabaidatuko da izangaiaren irakaskuntza-programa, eta, zehazki, zozketaz bere programatik ateratako hiru ataletatik berak aukeratutako atal bati buruzko azalpena eta eztabaida egingo da.

*23. artikulua.–* Irakasle elkartua

1.– Irakasle elkartuak zati bateko lanaldirako kontratatzen dira, irakaskuntza zehatzetan irakaskuntza-zereginak betetzeko ez beste ezertarako, beren lanbide-jarduera unibertsitatetik kanpo betetzen dutela egiaztatzen duten gaitasun ezagutuko espezialisten artean hautatuta.

2.– Kategoria honetara iritsi ahal izateko, Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaz-

2.– Para el acceso a esta categoría se requiere:

a) Estar en posesión del título de doctora o doctor.

b) Acreditar que durante al menos dos años no ha tenido relación contractual, estatutaria o como becaria o becario en la Universidad del País Vasco y que durante ese periodo ha realizado tareas docentes y/o investigadoras en centros no vinculados a la misma o que el título de doctor ha sido expedido por otra universidad.

c) Informe favorable del departamento a que esté adscrito el puesto, sobre la capacidad docente e investigadora de la candidata o candidato.

d) Disponer de la evaluación positiva de la actividad docente e investigadora, que se fijará reglamentariamente por el Gobierno, acreditada con el informe de la Agencia de Evaluación de la Calidad y Acreditación del Sistema Universitario Vasco u organismo similar reconocido por la normativa vasca.

e) Exposición y debate con la comisión de selección de sus méritos académicos e investigadores, así como del programa docente y del proyecto o proyectos de investigación a llevar a cabo durante el plazo de vigencia de su contrato.

3.– Las profesoras y profesores adjuntos serán contratados por la universidad por un periodo máximo de cuatro años, no necesariamente consecutivos. En caso de maternidad o paternidad durante el periodo contractual, los doce meses posteriores al parto no serán computables a efectos de la limitación temporal enunciada en este precepto.

*Artículo 22.–* Profesoras y profesores colaboradores

1.– La universidad podrá contratar profesoras o profesores colaboradores para desarrollar tareas docentes, tanto de forma permanente como temporal, entre licenciados, arquitectos e ingenieros o diplomados universitarios, arquitectos técnicos o ingenieros técnicos.

2.– En todo caso, para el acceso a esta categoría será preciso el informe favorable de la Agencia de Evaluación de la Calidad y Acreditación del Sistema Universitario Vasco u organismo similar, en los términos que se determinen reglamentariamente.

3.– La prueba de selección de la profesora o profesor colaborador con carácter permanente consistirá en la exposición y debate con la comisión de selección de su programa docente, y en particular en la exposición y debate de un apartado de su programa, elegido por el candidato o candidata entre tres sacados a sorteo.

*Artículo 23.–* Profesoras y profesores asociados

1.– Las profesoras y profesores asociados son contratados en régimen de dedicación a tiempo parcial, con funciones exclusivamente docentes en enseñanzas específicas, entre especialistas de reconocida competencia que acrediten ejercer su actividad profesional fuera de la universidad.

2.– Para poder acceder a esta categoría se requiere informe favorable de la Agencia de Evaluación de la Ca-

tatzeko Agentziaren aldeko txostena edo Euskal Autonomia Erkidegoko araudiak onartutako antzeko erakunde batena behar da, gaitasun ezagutuko espezialista dela esanez.

3.– Kontratu horien gehieneko iraupena hiru urtekoa izango da, nahiz eta kontratua amaitu ondoren, lanposturako deialdia egiten denean, hautagaiak beste kontratu bat lortu ahal izango duen irakasle elkartu moduan lanpostu horretan bertan zein besteren batean. Ez dago mugarik bata bestearen atzean kontratuak egiteko.

*24. artikulua.–* Irakasle emeritua eta irakasle bisitaria

1.– Unibertsitateak, bere estatutuetan ezarritakoarekin bat etorriz, irakasle emerituak kontratatu ahal izango ditu Euskal Herriko Unibertsitatean edo beste batean zerbitzu nabarmen aipagarriak egin dituzten irakasle erretiratuen artean, diren funtzionario edo kontratatuak, betiere hirurogeita hamabost urte baino gutxiago badute.

2.– Era berean, unibertsitateak irakasle bisitariak kontratatu ahal izango ditu aldi baterako, ospe zientifiko zein tekniko ezagutua duten irakasleen eta ikertzaileen artean, beste unibertsitate edo ikerketa-zentro publiko zein pribatu batzuetatik badatoz.

3.– Kontratuon iraupena hiru urtekoa izango da gehienez ere, nahiz eta kontratua amaitzean beste kontratu bat izenpetu ahal izango den. Irakasle emerituen kontratuak irakasleek hirurogeita hamabost urte betetzen dituztenean amaituko dira nolanahi ere, eta baldintza honen berariazko aipamena jaso behar da kontratuotan.

*25. artikulua.–* Bestelako irakasleak

Lanpostuen zerrendetako lanposturen bat hutsik gelditzen bada, bai heriotzaren bat gertatu delako edo beste arrazoiren bat egon delako, bai lizentzia izateagatik zein legean aurreikusitako beste edozein arrazoirengatik norbait kanpoan delako, eta lanpostu hori atxikita dagoen jakintza-arloko irakasleek irakaskuntzako premiei erantzun ezin badiete, unibertsitateak ordezkoak kontratatu ahal izango ditu, behar den beste denborarako, aplikatzekoa den lan-kontratuarekin bat etorriz, betiere plantillen taxuketa orok eskatzen duen arrazionaltasuna, eraginkortasuna eta eragimena kontuan hartuta.

LAUGARREN ATALA
Kontratatu gabeko ikertzaileak

*26. artikulua.–* Kontratatu gabeko ikertzaileak

1.– Ikertzaile hasiberriak, hain zuzen, euskal unibertsitate-sistemako doktoretzako bekadunak izango dira; hala ere, hori ez dute oztopo izango laguntzaile gisa kontratatu ahal izateko. Unibertsitateek bere barnearaudian ezarritako eskubideak eta betebeharrak izango dituzte, eta, hala dagokionean, ondorengo gaietan:

lidad y Acreditación del Sistema Universitario Vasco u organismo similar reconocido por la normativa vasca, sobre la condición de especialista de reconocida competencia.

3.– El plazo máximo de duración de los contratos será de tres años, sin perjuicio de que a su finalización, y una vez convocado el puesto, el candidato o candidata pueda obtener un nuevo contrato como asociado en el mismo puesto o en otro. No existirá límite de contratos sucesivos.

*Artículo 24.–* Profesoras y profesores eméritos y visitantes

1.– La universidad, de acuerdo con sus estatutos, podrá contratar profesoras y profesores eméritos entre profesoras y profesores jubilados, funcionarios o contratados, con menos de setenta y cinco años de edad, que hayan prestado servicios destacados en la Universidad del País Vasco o en otra.

2.– Igualmente, la universidad podrá contratar temporalmente profesoras y profesores visitantes entre profesoras y profesores e investigadoras e investigadores de reconocido prestigio científico o técnico procedentes de otras universidades o centros de investigación, en ambos casos tanto de carácter público como de carácter privado.

3.– Los contratos tendrán una duración máxima de tres años, sin perjuicio de que a su finalización pueda firmarse un nuevo contrato. Los contratos con profesoras y profesores eméritos finalizarán, en todo caso, al cumplir los setenta y cinco años de edad, y habrán de contener mención expresa a esta circunstancia.

*Artículo 25.–* Otros profesores o profesoras

En los supuestos de vacante en las relaciones de puestos de trabajo producida por fallecimiento u otras causas, o de ausencia por disfrute de licencias u otras causas legalmente previstas, cuando las necesidades de docencia no pudieren ser atendidas con el profesorado del área de conocimiento a que esté adscrito el puesto, la universidad podrá contratar sustitutas o sustitutos, por el tiempo que sea preciso, conforme al tipo de contrato laboral de aplicación, atendiendo siempre a las exigencias de racionalidad, eficacia y eficiencia que todo diseño de plantilla requiere.

SECCIÓN CUARTA
Personal investigador

*Artículo 26.–* Personal investigador no contratado

1.– Serán investigadores en fase inicial las becarias y becarios de doctorado del sistema universitario vasco, sin perjuicio de su posible contratación como ayudantes. Tendrán los derechos y las obligaciones que las universidades establezcan en su normativa interna y, en su caso, todos los relativos a la selección, duración de

hautaketa, bekaren iraupena, osasun eta istripu estaldura eta beren prestakuntzari inolaz ere kalterik ekarriko ez dioten ikerketa eta irakaskuntzako jarduera osagarrietan lankidetzan aritzea.

2.– Ikertzaile esperientziadunak, hain zuzen, itun, hitzarmen edo bestelako lankidetza-mota baten bitartez unibertsitatean ari diren doktore ikertzaileak izango dira. Indarrean dauden arauetan eta unibertsitate bakoitzaren estatutuetan ezarritako baldintza eta eskubideekin bat etorriz atxikiko zaizkio unibertsitateari.

*27. artikulua.*– Ikertzaileak kontratatuak

1.– 14.1 artikuluan aipatutako irakasle-kategoriei ere ikertzeko eskumena aitortzen zaien arren, ikertzaile kontratatuak, doktore ikertzaileak eta ikerketako irakasleak ikerkuntzan arituko dira batez ere.

2.– Ikertzaile kontratatuak kontratatu aurretik, beharrezkoa izango da Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentziak aldeko ebaluazioa egitea, Euskadiko Ikerketa Kontseiluarekin eta Euskal Autonomia Erkidegoan horretarako leudekeen beste erakundeekin koordinatuta.

3.– Ebaluatu eta Egiaztatzeko Euskadiko Agentziak akreditatutako hautagaiak kontratatzeko, unibertsitateak araudi bat egingo du, gardentasuna ziurtatze aldera.

4.– Doktore ikertzaileek irakasle agregatuek dituzten eskubide berak izango dituzte. Ikerketako irakasleek ere irakasle osoek dituzten eskubide berak izango dituzte.

BOSGARREN ATALA
Unibertsitate publikoko irakasleen eta ikertzaileen eskubideak eta betebeharrak

*28. artikulua.*– Xedapen orokorra

1.– Irakasle eta ikertzaileek, diren funtzionario nahiz lan-kontratudun, hemen dituzte zehaztuta euren eskubide eta betebeharrak: lege honetan eta aplikatzekoak zaizkien gainerako arauetan –bakoitzaren enplegu-lotura, funtzionarioena zein lan-kontratupekoa, kontuan hartuta–, unibertsitateko estatutuetan eta lan-baldintzak arautzen dituen akordioan edo hitzarmen kolektiboan eta laneko kontratuan.

2.– Irakasleek eta ikertzaileek, bai funtzionarioen kasuan zein kontratatuen kasuan, unibertsitateak aginduko dizkien irakaskuntzako eta ikerketako betebeharrak izango dituzte. Berenaz besteko antzeko beste jakintzaarlo batzuetan irakaskuntza-jardueretan aritzeko izan daitezke izendatuak, horretarako arrazoiak azalduta.

*29. artikulua.*– Kontratatutako irakasle eta ikertzaileen dedikazio-araubidea

Irakasle oso, irakasle agregatu edo irakasle atxikiaren moduan kontratatutako irakasle eta ikertzaileek denbora osoko araubidearen arabera beteko dituzte be-

la beca, cobertura sanitaria y de accidentes, colaboración en la investigación y actividades docentes complementarias que, de ninguna manera, supongan menoscabo en su formación.

2.– Serán investigadores experimentados los doctores investigadores que, en virtud de convenios, acuerdos o cualquier otra forma de colaboración, desarrollen actividades en una universidad. Se vincularán a la misma en las condiciones y con los derechos que establezcan la normativa vigente y los estatutos de cada universidad.

*Artículo 27.*– Personal investigador contratado

1.– Sin perjuicio de la competencia investigadora del profesorado contemplado en el artículo 14.1, el personal investigador contratado, el doctor investigador y el profesor de investigación se dedicará fundamentalmente a la investigación.

2.– Para la contratación del personal investigador contratado se requerirá evaluación positiva previa de la Agencia Vasca de Evaluación y Acreditación en coordinación con el Consejo Vasco de Investigación y cualesquiera otras instituciones que pudieran existir al efecto en la Comunidad Autónoma vasca.

3.– Para la contratación de los candidatos acreditados por la Agencia Vasca de Evaluación y Acreditación, la universidad determinará el reglamento correspondiente al objeto de garantizar la transparencia.

4.– El personal doctor investigador tendrá los mismos derechos que el profesor agregado. El profesor de investigación tendrá los mismos derechos que el profesor pleno.

SECCIÓN QUINTA
Derechos y deberes del personal docente e investigador de la universidad pública

*Artículo 28.*– Disposición general

1.– El personal docente e investigador, funcionario o contratado, tiene los derechos y deberes que determina la presente ley y el resto de la normativa de aplicación, según la naturaleza funcionarial o contractual de su relación de empleo, los estatutos de la universidad, el acuerdo que regule las condiciones laborales o su convenio colectivo y contrato de trabajo.

2.– El personal académico, funcionario o contratado, tiene las obligaciones de docencia y de investigación que le sean ordenadas por la universidad. Podrá ser asignado, de forma motivada, a actividades docentes en áreas de conocimiento afines.

*Artículo 29.*– Régimen de dedicación del personal docente e investigador contratado

El personal docente e investigador contratado como profesora o profesor pleno, profesora o profesor agregado, o profesora o profesor adjunto, ejercerá sus funcio-

ren eginkizunak, ahal dela. Irakasle elkartuek, aldiz, denbora-zati bateko lanaldia izango dute. Irakasle lankideen lanaldi-mota irakaskuntzako beharrizanen arabera zehaztuko da.

*30. artikulua.–* Irakasle eta ikertzaile kontratatuen araubide juridikoa

1.– Denbora osoko dedikazioko irakasle eta ikertzaile kontratatuek irakasleen kidegoetako irakasleen araubide berbera izango dute gai hauei dagokienean: urteko lan-orduak, asteko lan-orduak eta orduen banaketa, lizentzien eta baimenen araubidea eta opor-egunak.

2.– Denbora-zati bateko kontratuko irakasle eta ikertzaileek beren kontratuan aipatutako irakaskuntzako –eta, hala balegokio, ikerketako– betebeharrak izango dituzte, lege honetan eta bera garatzeko emandako erregelamenduetan ezarritakoaren barruan.

3.– Langile kontratatuei indarrean dagoen lan-araudian eta dagokien hitzarmen kolektiboan aurreikusitako diziplina-araubidea aplikatuko zaie.

*31. artikulua.–* Kontratuen edukia

1.– Lehiaketetarako deialdietako oinarrietan alderdi hauek aipatu behar dira nahitaez:

a) Kontratua epe-mugarik gabekoa den edo aldi baterako den; aldi baterako kontratuen kasuan, iraupena zehaztu behar da.

b) Dedikazio-araubidea.

c) Arloa eta saila.

d) Zer eginkizun izango dituen; zehaztu egin behar da eginkizun horiek soil-soilik irakaskuntzakoak diren, tutoretzako jarduerak barne hartuta, edo ikertzeko betebeharra ere haiekin batera doan.

e) Zein hizkuntza erabiliko den edo diren irakaskuntza emateko.

f) Lanpostuaren ezaugarriak zehaztu ditzakeen eta kontratuan sartu beharrekoa den beste edozein alderdi.

2.– Aipatutako alderdiak lan-kontratuko klausuletan sartu behar dira, lan-legerian edo legeri berezian eskatutako zehaztasunak albora utzi gabe, beti ere kontratu-motaren arabera.

*32. artikulua.–* Lizentziak eta lan-utzialdiak

Irakasleei eta ikertzaileei dagozkien gainerako lizentziak baztertu gabe, irakaskuntza eta ikerketa garatzeko jardueretarako lizentziak edo lan-utzialdiak emateko beharrezko diren tresnak arautuko dira; denbora osoko dedikazioz eta doktore-titulua izanda beren jarduerak funtzionario zein kontratatu moduan betetzen dituztenei aplikatzekoak zaizkien arauekin bat etorriz arautuko dira tresna horiek.

nes preferentemente en régimen de dedicación a tiempo completo. Las profesoras y profesores asociados tendrán, por su parte, una dedicación a tiempo parcial. La dedicación de las profesoras y profesores colaboradores será determinada por las necesidades de docencia.

*Artículo 30.–* Régimen jurídico del personal docente e investigador contratado

1.– El personal docente e investigador contratado con dedicación a tiempo completo tendrá el mismo régimen que el profesorado perteneciente a los cuerpos docentes respecto al número anual de horas de trabajo, número semanal de horas de trabajo y su distribución, régimen de licencias y permisos y días de vacaciones.

2.– El personal docente e investigador contratado a tiempo parcial tendrá las obligaciones de docencia y, en su caso, de investigación que figuren en su contrato, en el marco establecido en esta ley y en sus desarrollos reglamentarios.

3.– El personal contratado estará sujeto al régimen disciplinario previsto en la normativa laboral vigente y el correspondiente convenio colectivo.

*Artículo 31.–* Contenido de los contratos

1.– Las bases de las convocatorias de los concursos contendrán necesaria referencia a los siguientes aspectos:

a) Carácter indefinido o temporal del contrato, y, en el caso de contratos temporales, el plazo de vigencia.

b) Régimen de dedicación.

c) Área y departamento.

d) Funciones asignadas, determinando, en su caso, si estas funciones son exclusivamente docentes, incluidas las actividades de tutoría, o si conllevan también el deber de investigación.

e) Lengua o lenguas en que se impartirá la docencia.

f) Cualesquiera otros aspectos que puedan concretar las características del puesto de trabajo y que hayan de incorporarse al contrato.

2.– El contrato de trabajo incorporará en sus cláusulas dichos aspectos, sin perjuicio de las especificaciones requeridas en la legislación laboral o particular, según el tipo de contrato.

*Artículo 32.–* Licencias y excedencias

Sin perjuicio de las demás licencias que correspondan al personal docente e investigador, de conformidad con la normativa que sea de aplicación a quienes ejerzan su actividad en condición de funcionario o contratado, con dedicación a tiempo completo, y estén en posesión del título de doctora o doctor, se articularán los mecanismos precisos para la concesión de licencias o excedencias que tengan por objeto el ejercicio de actividades de desarrollo de la docencia y la investigación.

Zehazki, aparteko begiramena izango dute unibertsitate-erkidegoko kideei zuzendutako lizentziek eta lan-utzialdiek, unibertsitatearen inguruko instituzioren batekin lankidetzan aritzeko proiektuak badituzte.

SEIGARREN ATALA
Irakasleen eta ikertzaileen ordainketa-araubidea

*33. artikulua.*– Xedapen orokorra

1.– Unibertsitateko funtzionarioen kidegoetako langileei oinarrizko legedian eta lege honetan ezarritako kontzeptuengatik ordainduko zaie.

2.– Eusko Jaurlaritzak erregelamendu bidez zehaztuko du irakasle eta ikertzaile kontratatuen ordainketa-araubidea. Irakasleen zein ikertzaileen kategoria bakoitzaren baitan mailak ezarri ahal izango dira, baita maila batetik bestera igotzeko eskakizunak eta prozedura ere, eta ordainketetan izango dituen ondorioak.

Irakasle kontratatu osoen eta agregatuen kategoriak arautzeko, katedratikoentzat eta irakasle titularrentzat ezarritako irizpideen homogeneoak erabiliko dira.

3.– Irakasle elkartuen ordainketa-araubidea kopuru proportzionalean oinarrituko da; irakasleei eskatutako dedikazioaren araberakoa izango da soldata, eta denbora osoko dedikazioari dagokion soldata hartuko da erreferentziatzat.

*34. artikulua.*– Ordainsari gehigarriak

1.– Jaurlaritzak ordainsari osagarriak ezarri ahal izango ditu irakasle eta ikertzaileentzat, diren funtzionario edo kontratatuak, irakaskuntza, ikerketa eta kudeaketaren inguruan egoki iritzitako irizpideen arabera; irizpide horien artean hizkuntza-merezimenduak ere izango dira.

2.– Unibertsitateen gaietan eskumenak dituen sailak proposatuta, Eusko Jaurlaritzari dagokio ordainsari horien mugak ezartzea, eraginkortasun eta eragimen irizpideen arabera, eta Gizarte Kontseiluari, unibertsitateko gobernu-kontseiluak proposaturik, muga horiek bana-banaka esleitzea behin merezimenduak Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatzeko Agentziak baloratu eta gero.

3.– Oro har unibertsitateko irakasleen kidegoei dagozkien osagarrien antzekoak ezarri ahal izango ditu Jaurlaritzak, bai kopuruetan zein baldintzetan, lege honetako 14.1 artikuluko kategorietako irakasle kontratatu iraunkorrentzat, baita bereak dituen ikertzaileentzat ere.

En particular, tendrán una consideración especial las licencias y excedencias dirigidas a aquellos miembros de la comunidad universitaria que proyecten colaborar con alguna institución periuniversitaria.

SECCIÓN SEXTA
Régimen retributivo del personal docente e investigador

*Artículo 33.*– Disposición general

1.– El personal perteneciente a los cuerpos de funcionarios universitarios será retribuido por los conceptos establecidos en la legislación básica y en la presente ley.

2.– El Gobierno Vasco determinará reglamentariamente el régimen retributivo del personal docente e investigador contratado. Dentro de cada categoría de docentes o investigadores podrán establecerse diferentes niveles, regulándose, igualmente, los requisitos y el procedimiento de promoción de uno a otro y sus consecuencias retributivas.

En la regulación de las categorías de profesoras o profesores contratados plenos y agregados se utilizarán criterios homogéneos a los establecidos para las catedráticas o catedráticos y profesoras o profesores titulares.

3.– El régimen de retribución de los asociados y asociadas consistirá en una cantidad proporcional, en función de la dedicación que se les requiera, tomando como referencia el sueldo a tiempo completo.

*Artículo 34.*– Retribuciones adicionales

1.– El Gobierno podrá establecer para el personal docente e investigador, funcionario y contratado, complementos retributivos, de acuerdo con los criterios que considere oportunos en torno a la docencia, la investigación y la gestión, entre los que se incluirán los méritos lingüísticos.

2.– Corresponde al Gobierno Vasco, a propuesta del departamento competente en materia de universidades, establecer los límites de dichas retribuciones de acuerdo con los criterios de eficacia y eficiencia, y al Consejo Social, a propuesta del consejo de gobierno de la universidad, acordar la asignación singular e individual de los mismos previa valoración de los méritos por la Agencia de Evaluación de la Calidad del Sistema Universitario Vasco.

3.– Asimismo, el Gobierno podrá establecer para las profesoras y profesores contratados permanentes de las categorías del artículo 14.1 de la presente ley y para las investigadoras e investigadores propios, complementos semejantes, en su cuantía y requisitos, a los que correspondan a los cuerpos docentes universitarios en general.

HIRUGARREN KAPITULUA
UNIBERTSITATE PUBLIKOKO ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEAK

*35. artikulua.–* Osaera eta araubide juridikoa

1.– Unibertsitate publikoko administrazio eta zerbitzuetako langileen taldea unibertsitate publikoko berezko eskaletako funtzionarioez eta unibertsitateak kontratatutako langileez dago osatua.

2.– Euskal Herriko Unibertsitateko administrazio eta zerbitzuetako langileei dagozkie hauek guztiak: agintari akademikoei sostengua, laguntza eta aholkularitza ematea; kudeaketa eta administrazioko lanak egitea, batez ere giza baliabideen, administrazio-antolaketaren, ekonomia-gaien, informatikaren, artxiboen, liburutegien, informazioaren eta zerbitzu orokorren arloetan, eta unibertsitateak bere helburuak betetzeko beharrezkotzat jotako beste edozein prozesu burutzea administrazio-kudeaketan eta euskarri-lanetan.

3.– Euskal Herriko Unibertsitateko administrazio eta zerbitzuetako funtzionarioen araubide juridikoa honako hauek osatzen dute: aplikatzekoa den oinarrizko legedi organikoan horri buruz aurreikusitakoak, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeak eta bera garatzen duten arauek, lege honek beronek eta unibertsitateko estatutuek eta barne-araubideko arauek, bai eta funtzionarioen eta lan-kontratudunen lan-baldintzak arautzen dituzten hitzarmen eta unibertsitateak berak hartutako erabakiek ere.

*36. artikulua.–* Ordainsariak

1.– Administrazio eta zerbitzuetako langileei unibertsitateko aurrekontuaren kontura ordainduko zaie.

2.– Unibertsitateari dagokio bertako funtzionarioen eta lan-kontratudunen zein administrazio eta zerbitzuetako langileen ordainketa-araubidea finkatzea, Euskal Autonomia Erkidegoak zehaztutako ordainsarien gehieneko mugaren barruan. Eusko Jaurlaritzari dagokio, kasu guztietan, administrazio eta zerbitzuetako langile guztien ordainsarien zenbateko metatu osoa baimentzea.

LAUGARREN KAPITULUA
EUSKAL UNIBERTSITATE-SISTEMAKO IKASLEAK

LEHENENGO ATALA
Araubide Orokorra

*37. artikulua.–* Unibertsitatera sartzea

1.– Unibertsitateei dagokie ikasleak onartzea.

2.– Unibertsitatera sartzeak berdintasuna, merezimendua eta gaitasuna errespetatu behar ditu printzipio moduan.

3.– Euskal Herriko Unibertsitateak hitzarmenak egin ditzake beste unibertsitate publiko batzuekin, be-

CAPÍTULO TERCERO
EL PERSONAL DE ADMINISTRACIÓN Y SERVICIOS DE LA UNIVERSIDAD PÚBLICA

*Artículo 35.–* Composición y régimen jurídico

1.– El personal de administración y servicios de la universidad pública está formado por personal funcionario, perteneciente a escalas propias de universidad pública, y personal contratado por la misma.

2.– Corresponde al personal de administración y servicios de la Universidad del País Vasco el apoyo, asistencia y asesoramiento a las autoridades académicas, y el ejercicio de la gestión y administración, particularmente en el área de los recursos humanos, organización administrativa, asuntos económicos, informática, archivos, bibliotecas, información y servicios generales, así como cualesquiera otros procesos de gestión administrativa y de soporte que se determinen necesarios para la universidad en el cumplimiento de sus objetivos.

3.– El régimen jurídico del personal funcionario de administración y servicios de la Universidad del País Vasco se rige, además de por lo previsto en la legislación orgánica y básica de aplicación, por la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca, y sus normas de desarrollo, por la presente ley y por los estatutos y otras normas de régimen interno de la universidad, así como por sus propios acuerdos y convenios reguladores de las condiciones de trabajo del personal funcionario y laboral.

*Artículo 36.–* Retribuciones

1.– El personal de administración y servicios será retribuido con cargo al presupuesto de la universidad.

2.– Corresponde a la universidad establecer el régimen retributivo de su personal funcionario y laboral o del personal de administración y servicios dentro del límite máximo de las retribuciones que determine la Comunidad Autónoma. Corresponde al Gobierno Vasco, en todo caso, autorizar el importe global agregado de las retribuciones de todo el personal de administración y servicios.

CAPÍTULO CUARTO
LAS ESTUDIANTES Y LOS ESTUDIANTES DEL SISTEMA UNIVERSITARIO VASCO

SECCIÓN PRIMERA
Régimen General

*Artículo 37.–* Acceso a la universidad

1.– Corresponde a las universidades la admisión de las estudiantes y los estudiantes.

2.– El acceso a la universidad ha de respetar los principios de igualdad, mérito y capacidad.

3.– La Universidad del País Vasco podrá establecer convenios con otras universidades públicas, sobre todo

reziki Euskal Herrian kokatuta daudenekin, unibertsitatera sartzeko sistemak homologatzeko eta aipatutako probak gainditzea elkarri onartzeko, unibertsitate batean sartzeko balio izateak besteetan ere sartzeko balio dezan.

*38. artikulua.*– Bekak, kredituak eta ikasketetarako laguntzak

1.– Unibertsitateen gaietan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako sailari dagokio oinarrizko legedian bekei, kredituei eta ikasketetarako laguntzei buruz ezarritako sistema orokorra arau bidez garatzea, baita sistema orokorra Euskal Herriko gizarte-, ekonomia eta lurralde premietara egokitzeko berezko araubide bat ezarri eta arautzea ere, unibertsitateko ikasketak probetxuz egiteko baldintzak betetzen dituen inor arrazoi ekonomiko edo sozialak direla-eta kanpoan gera ez dadin.

Deialdian zehaztuko dira, halaber, funts publikoekin emandako beken eta laguntzen informazioa, egiaztapena eta kontrola egiteko sistema, baita kasu bakoitzean bidezko izan litezkeen zigorrak ere. Emandako bekaren zein laguntzaren gaineko eskubidea eta eskabide berriak egiteko eskubidea galtzea ekar liezaiokete zigor horiek ikasleari, baita bidegabe jasotako laguntzen legezko interesak ordaindu beharra ere.

2.– Programa bereziak ezarriko dira deialdian:

a) Doktorego aurreko ikerketa-prestakuntzari buruz.

b) Gizatalde ahulenei emango zaien diru-laguntzari buruz.

c) Euskal Autonomia Erkidegoaz kanpotik datozen ikasleentzako euskarazko unibertsitate-ikasketei buruz (bakoitzaren maila sozioekonomikoaren arabera).

d) Euskal Autonomia Erkidegoko ikasleek Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo egiten dituzten unibertsitate-ikasketei buruz (bakoitzaren maila sozioekonomikoaren arabera eta kasuan kasuko aginduek arautzen duten eran).

e) Ikasleei unibertsitate-garraiorako emango zaien diru-laguntzari buruz.

3.– Unibertsitateek, bestalde, beka, kreditu eta ikasketetarako laguntzak emateko beren sistema garatu ahal izango dute.

4.– Unibertsitateek eta unibertsitateen gaietan eskumenak dituen sailak Euskadiko Unibertsitate Kontseiluaren bidez koordinatuko dituzte beken, kredituen eta ikasketetarako laguntzen gaineko beren politikak.

*39. artikulua.*– Prezio publikoen gaineko salbuespenak eta murriztapenak

1.– Euskal Herriko Unibertsitateko ikasleek Lege honetako 95. artikuluak aipatzen dituen prezioak ordaintzetik salbuetsiak izateko eskubidea izango dute, edo prezio horien gain murriztapenak egin dakizkien eskubidea izango dute, erregelamenduz ezarritakoaren esparruan:

con las ubicadas en Euskal Herria, a fin de homologar los sistemas de acceso y el reconocimiento recíproco de la superación de dichas pruebas, de manera que el acceso en una de ellas tenga efectos en la otra.

*Artículo 38.*– Becas, créditos y ayudas al estudio

1.– Corresponde al departamento competente en materia de universidades del Gobierno Vasco el desarrollo normativo del sistema general de becas, ayudas y créditos al estudio establecido en la legislación básica, así como el establecimiento y regulación de un régimen propio que adapte el sistema general a las necesidades socioeconómicas y territoriales del País Vasco, a fin de que nadie que reúna las condiciones para cursar estudios universitarios con aprovechamiento quede excluido por razones sociales y económicas.

La convocatoria determinará, igualmente, el sistema de información, verificación y control de las becas y ayudas concedidas con fondos públicos, y las sanciones que, en su caso, procedan. Estas podrán significar la pérdida del derecho del estudiante a la beca o ayuda otorgada y a nuevas solicitudes, y el abono de los intereses legales por las ayudas indebidamente ingresadas.

2.– La convocatoria establecerá programas especiales en relación con:

a) La formación investigadora predoctoral.

b) La asistencia económica a colectivos sociales desfavorecidos.

c) La realización de estudios universitarios en euskera para estudiantes procedentes de fuera de la Comunidad Autónoma, en función de su nivel socioeconómico.

d) La realización de estudios universitarios fuera de la Comunidad Autónoma para estudiantes de la misma, en función de su nivel socioeconómico y según quede regulada por las órdenes correspondientes.

e) La asistencia económica a estudiantes para el transporte universitario.

3.– Asimismo, las universidades podrán desarrollar su propio sistema de becas, créditos y ayudas al estudio.

4.– Las universidades y el departamento competente en materia de universidades coordinarán, a través del Consejo Vasco de Universidades, sus propias políticas de becas, créditos y ayudas al estudio.

*Artículo 39.*– Exenciones y reducciones de precios públicos

1.– Las estudiantes y los estudiantes de la Universidad del País Vasco disfrutarán, en el marco de las previsiones reglamentarias, de las siguientes exenciones y reducciones de los precios a que se refiere el artículo 95 de la presente ley:

a) Prezio horiek ordaintzetik erabat salbuetsiko dira, ohorezko eta lehen mailako familia ugarietako kide direnean, eta ezinduren bat duten familietako kide direnean; orobat terrorismoaren biktima izan direnak eta haien senitartekoak.

b) Ehuneko berrogeita hamarreko salbuespena egingo zaie, bigarren mailako familia ugarietakoak eta guraso bakarreko familietakoak badira.

2.– Prezio publikoak onartzeko agindu edo erabakian, aurreko paragrafoan ezarritako baldintzak zehaztu ez ezik, beste salbuespen batzuk ere ezarri ahal izango dira, erabatekoak edo zati batekoak, betiere arbitrariotasunezko bazterkeriarik eragiten ez badute.

3.– Eusko Jaurlaritzak egoki deritzen hitzarmenak egin ahal izango ditu publikoak ez diren unibertsitateetako ikasleei tasa akademikoentzat ehuneko jakin bateko diru-laguntzak Emate aldera. Hitzarmen horiek, irizpideei dagokienez, artikulu honetako lehenengo paragrafoak jasotako irizpideei egokituko zaizkie, eta, zenbatekoei dagokienez, Euskal Herriko Unibertsitateko ikasleentzako tasa-salbuespenak arautzen dituzten irizpideei.

BIGARREN ATALA
Ikasleen eskubideak
eta betebeharrak

***40. artikulua.***– Xedapen orokorra

1.– Euskal unibertsitate-sistemako ikasleek izango dituzten eskubideak eta betebeharrak oinarrizko legediko arauetan eta unibertsitateen antolaketaren eta jarduteko moduaren gaineko estatutu eta arauetan ezarritakoak dira.

2.– Inori ere ezin izango zaio bereizkeriarik egin arraza, generoa, sexu-joera, iritzia, erlijioa, hizkuntza, nazionalitatea, gutxiengoren batekoa izatea zein pertsona moduan, gizartean nahiz ekonomian beste edozein ezaugarri izatea aitzakia hartuta. Unibertsitateek berariazko programak ezarriko dituzte ezinduek unibertsitateko hezkuntzarako duten eskubidea erabat gauzatu ahal izan dezaten.

3.– Euskal Herriko Unibertsitateko estatutuek eta publikoak ez diren unibertsitateen antolaketaren eta jarduteko moduaren gaineko arauek garatuko dituzte ikasleen eskubideak eta betebeharrak, horiek bermatzeko eta eraginkor bihurtzeko xedapen, neurri eta prozedurarik egokienak ezarriz.

***41. artikulua.***– Oinarrizko eskubideak

Euskal unibertsitate-sistemako ikasleek oinarrizko eskubide hauek dituzte:

a) Beren ikasketak aukeratu eta egiteko eskubidea, indarrean dagoen legedian eta unibertsitatean egoteko arauetan ezarritako eran; matrikula zein irakaskuntza jasotzeko egin zuten, irakaskuntza horiek Euskal Autonomia Erkidegoan ofizial diren hizkuntzetako edozeinetan jasotzeko eskubidea, horretarako xedatutako baliabideak erabiliz; orobat bere prestakuntzaren prozesuan aktiboki parte hartzeko eskubidea.

a) Exención total, cuando pertenezcan a familias numerosas de honor y de primera categoría y a familias que tengan algún miembro discapacitado, así como a víctimas del terrorismo y a sus familiares.

b) Exención del 50 por 100, cuando sean miembros de familias numerosas de segunda categoría y familias monoparentales.

2.– En la orden o acuerdo de aprobación de los precios públicos podrán precisarse las condiciones referidas en el número anterior y fijarse otras exenciones totales o parciales, siempre que no impliquen una discriminación arbitraria.

3.– El Gobierno Vasco arbitrará los convenios pertinentes para subvencionar a las estudiantes y los estudiantes de las universidades no públicas un porcentaje de tasas académicas. Estos convenios se ajustarán, en cuanto a los criterios, a los recogidos en el apartado primero de este artículo, y, en cuanto a las cuantías, a las que rigen las exenciones de tasas para los estudiantes de la Universidad del País Vasco.

SECCIÓN SEGUNDA
Derechos y deberes de las estudiantes
y los estudiantes

***Artículo 40.***– Disposición general

1.– Los estudiantes y las estudiantes del sistema universitario vasco tendrán los derechos y deberes establecidos en las normas de la legislación básica, y en los estatutos y normas de organización y funcionamiento de las universidades.

2.– Nadie podrá ser discriminado por razones de raza, género, opción sexual, opinión, religión, lengua, nacionalidad, pertenencia a minorías o cualquier otra condición personal, social o económica. Las universidades establecerán programas específicos que permitan a las personas discapacitadas el ejercicio pleno de su derecho a la educación universitaria.

3.– Los estatutos de la Universidad del País Vasco y las normas de organización y funcionamiento de las universidades no públicas desarrollarán los derechos y los deberes de los estudiantes y las estudiantes, estableciendo las disposiciones, las medidas y los procedimientos más adecuados para su garantía y efectividad.

***Artículo 41.***– Derechos básicos

Las estudiantes y los estudiantes del sistema universitario vasco tienen los siguientes derechos básicos:

a) A elegir y realizar sus estudios en los términos en que se establezca por la legislación vigente y las normas de permanencia en la universidad; a recibir las enseñanzas para las que se hubieran matriculado en cualquiera de la lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, con los medios dispuestos al efecto, y a participar activamente en el proceso de su formación.

b) Irakaskuntzak askatasunez aukeratzeko eskubidea, ikasketa-plan bakoitzaren arabera. Unibertsitateko ikastetxeek, beren ahalbideen heinean, irakaskuntza antolatzen saiatuko dira irakaslea askatasunez aukeratzeko bidea uzteko eran.

c) Programa bakoitzean finkatutako edukien eta helburuen barruan, ikasketak askatasunez egiteko eskubidea.

d) Bekak, laguntzak eta ikasketetarako kredituak jasotzeko eskubidea, herri-aginteek eta unibertsitateek xedatzen duten eran (zeinek bere eskumenen esparruan).

e) Irakasleentzat unibertsitatean egoteko ezarrita dagoen ordutegiaren barruan, tutoretza-sistema eraginkor batez baliatuta laguntza jasotzeko eskubidea, eta irakaskuntzak ematen dizkietenen eta ikerketa-lanetan lehenengo urratsak egitera bultzatzen dituztenen aldetik aholkua zuzenean hartzeko eskubidea.

f) Kalifikazio objektiboa jasotzeko eskubidea, eta jaso, Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialen artean aukeratzen duten hartan jasotzekoa; orobat, kalifikazioak berriro ikustea eskatzeko eskubidea eta, unibertsitateak ezarritako prozeduraren bidez, kalifikazioen aurka egiteko dagozkion bitartekoak erabiltzekoa, direlako kalifikazio horiek behin betiko bilakatu baino lehen; hori guztia, unibertsitate-planaren arabera eta unibertsitateak dituen baliabideen arabera.

g) Ikasturtea amaitzen denean irakasle bakoitzaren gainean ebaluazioa egiten parte hartzeko eskubidea, unibertsitate bakoitzak aurreikusitako eran.

h) Emandako irakaskuntzaren kalitateari buruzko erreklamazioak eta kexak agintari akademikoei jartzeko eskubidea.

i) Hautazko eta aukera askeko irakasgaietan, behar adinako eskaintza bermatuta izateko eskubidea.

j) Klasera ez joateko eskubidea.

k) Beren interesak zainduko dituzten elkarteak sortzeko eskubidea.

l) Elkarteak egiteko askatasuna, adierazpen-askatasuna eta batzarrean biltzeko askatasuna. Unibertsitateak erraztasunak emango ditu elkarteei buruz dituzten eskubideak bete daitezen, ahal duen neurrian eta bere estatutu eta erregelamenduetan ezarritakoarekin bat etorriz.

m) Unibertsitateko kide anitzeko organoetan hautesle eta hautagai izateko eskubidea, oinarrizko legedian, unibertsitateen antolaketa eta jarduteko moduaren gaineko estatutu eta arauetan ezarritakoarekin bat etorriz.

n) Beren eskubide guztiak bermatuta izateko eskubidea, prozedura egokiak erabiliz, eta, beharrezkoa bada, ikasleen arartekoari kexak eta erreklamazioak aurkeztuta.

ñ) Lege honetan eta gainerako ordenamendu juridikoan onartutako zein ezarritako beste guztiak.

b) A la libre elección de enseñanzas conforme al correspondiente plan de estudios. Los centros universitarios, en la medida de sus posibilidades, procurarán organizar la enseñanza de manera que se haga posible la libre elección del profesor.

c) A la libertad de estudio, dentro de los contenidos y objetivos fijados en el correspondiente programa.

d) A recibir becas, ayudas y créditos al estudio en la forma que dispongan los poderes públicos y las universidades, en el ámbito de sus respectivas competencias.

e) A ser asistidos dentro del horario de permanencia en la universidad que tengan establecido los profesores y profesoras, mediante un sistema eficaz de tutorías, y a ser asesorados directamente por quienes les impartan las enseñanzas y les inicien en tareas de investigación.

f) A ser calificados objetivamente y en el idioma oficial de la Comunidad Autónoma del País Vasco que deseen, así como a requerir la revisión de las calificaciones y ejercer los medios de impugnación correspondientes a través del procedimiento que establezca la universidad, con anterioridad a que la calificación se convierta en definitiva, atendiendo al plan universitario y a los recursos de que disponga la universidad.

g) A participar en la evaluación de cada profesor o profesora a la finalización del curso académico, en la forma prevista por cada universidad.

h) A formular ante las autoridades académicas reclamaciones y quejas acerca de la calidad de la enseñanza impartida.

i) A que se les garantice una suficiente oferta de asignaturas optativas y de libre elección.

j) A la no asistencia a clase.

k) A crear asociaciones que velen por sus intereses.

l) A la libertad de asociación, expresión y reunión. La universidad facilitará el cumplimiento de sus derechos asociativos en la medida de sus posibilidades y de acuerdo con lo establecido en sus estatutos y reglamentos.

m) A ser elector y elegible en los órganos universitarios colegiados de conformidad con lo establecido en la legislación básica y en los estatutos y normas de organización y funcionamiento.

n) A la garantía de todos sus derechos, mediante procedimientos adecuados y, en su caso, formulando quejas o reclamaciones ante el Defensor Universitario.

ñ) A cualesquiera otros reconocidos o establecidos en la presente ley y en el resto del ordenamiento jurídico.

*42. artikulua.*– Oinarrizko betebeharrak

1.– Euskal unibertsitate-sistemako ikasleek oinarrizko betebehar hauek dituzte:

a) Unibertsitateko helburuak lortzeko, gainerako unibertsitate-erkidegoarekin lankidetzan aritzeko betebeharra.

b) Ikasketa-plan bakoitzaren arabera ikasketak eta ikerketak egiteko betebeharra.

c) Unibertsitate-erkidegoko kide guztien oinarrizko eskubideak eta askatasun publikoak eta gainerako eskubideak errespetatu beharra, eta besteek beren betebeharrak betetzeari errespetua izatea.

d) Unibertsitateko zentro eta zerbitzuetan indarrean dauden arauak errespetatu eta unibertsitatearen ondarea eta beren eskura jarritako baliabideak zuzen erabili beharra.

e) Hautatu izan direnean, ordezkari moduan dagozkien zereginak bete beharra.

f) Diziplina akademikoko arauak eta estatutuetan ezarritako beste guztiak bete beharra.

2.– Unibertsitateek egin eta onar ditzaten diziplina-araudiek egoki bermatu behar dituzte arau-hausteen eta zigorren tipikotasun-printzipioa, arau-hausteen eta zigorren arteko heinekotasuna eta espedientea irekita duen edonori entzuteko eskubidea, egotzi zaizkion portaeren gainean alegazioak egin eta frogak aurkeztu ahal izan ditzan, kasuan kasuko erabakia hartu aurretik.

*43. artikulua.*– Informazio akademikoa jasotzeko eskubidea

Sailek edo horien pareko organoek eta, kasua hau bada, unibertsitate-institutuek ondorengoak jakinaraziko dituzte, behar besteko publizitatea emanez, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan:

a) Irakasgai, materia edo jakintzagai bakoitzaren programa, horietako bakoitza enborrekoa, nahitaezkoa, hautazkoa edo aukera askekoa den adierazita; bakoitzari dagozkion kredituak; bibliografia, metodoak eta helburuak.

b) Irakasle-eskaintza, irakaskuntzak emango dituzten irakasleak zeintzuk diren eta irakaskuntza horiek zein hizkuntzatan emango diren zehaztuta; irakaslea askatasunez aukeratzea bermatzen ez denean, irakasgaiak emango dituen taldea.

c) Irakasgai, materia edo jakintzagai bakoitza berariaz ebaluatzeko irizpideak.

*44 artikulua.*– Bekak eta kredituak jasotzeko eskubidea

1.– Indarrean dagoen legeriaren arabera, Eusko Jaurlaritzak ikasteko beketarako araubidea finkatuko du, bekadunen ehunekoari dagokionez Ekonomia Lankidetza eta Garapenerako Erakundeko herrialdeekin bat egiteko helburuarekin, eta kreditu-sistema bat zehaztuko du unibertsitateko jendearentzat, goi-mailako irakas-

*Artículo 42.*– Deberes básicos

1.– Las estudiantes y los estudiantes del sistema universitario vasco tienen los siguientes deberes básicos:

a) La cooperación con el resto de la comunidad universitaria para el logro de los fines de la universidad.

b) El estudio y la investigación conforme a los correspondientes planes de estudios.

c) El respeto a los derechos fundamentales y libertades públicas y demás derechos de todos los miembros de la comunidad universitaria, así como el respeto al cumplimiento de sus deberes por los demás.

d) El respeto a las normas vigentes en los diferentes centros y servicios universitarios, así como el uso correcto del patrimonio de la universidad y los medios puestos a su disposición.

e) El cumplimiento de las tareas representativas para las que sean elegidos.

f) El cumplimiento de las normas de disciplina académica y cuantas otras establezcan los estatutos.

2.– Los reglamentos disciplinarios que elaboren y aprueben las universidades garantizarán suficientemente el principio de tipicidad de infracciones y sanciones, la proporcionalidad entre las mismas y el derecho de audiencia de cualquier expedientado de manera que pueda formular alegaciones y proponer pruebas, con anterioridad a la resolución que proceda, en relación con las conductas que se le imputen.

*Artículo 43.*– Derecho a la información académica

Los departamentos u órganos equivalentes y, en su caso, los institutos universitarios darán a conocer con la suficiente publicidad, en los dos idiomas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco:

a) El programa de cada asignatura, materia o disciplina, con indicación del carácter troncal, obligatorio, optativo o libre de cada una de ellas; los créditos que le corresponden; la bibliografía, los métodos y los objetivos.

b) La oferta docente, en particular identificando los profesores o profesoras que dispensen las enseñanzas y la lengua en que se impartirán y, cuando no quede asegurada la libre elección de profesor o profesora, grupo en el que vayan a impartirlas.

c) El criterio de evaluación específica de cada asignatura, materia o disciplina.

*Artículo 44.*– Derecho a becas y créditos

1.– Conforme a la legislación vigente, el Gobierno Vasco establecerá el régimen de becas al estudio, teniendo como objetivo la convergencia en porcentaje de becarios con los países de la Organización para la Cooperación y Desarrollo Económicos, y arbitrará un sistema de créditos específicamente dirigido a la población uni-

kuntza jasotzeko eta arrazoi ekonomikoak direla kasua diskriminatuak ez izateko eskubidea egiazki bermatzeagatik.

2.– Programa honetan hirugarren zikloko ikasleentzako laguntzak izango dira kontuan bereziki, kontratatu gabeko ikertzaileen ikerlana eta bizimodua hobetzea sustatzeko.

III. TITULUA

IRAKASKUNTZA, IKASKETAK ETA IKERKETA

LEHENENGO KAPITULUA
IRAKASKUNTZa

*45. artikulua.*– Printzipio orokorrak

1.– Ikasleen lanbide, zientzia, teknika, arte eta kultura arloetako prestakuntza eta giza prestakuntza dira ikerketarekin batera euskal unibertsitate-sistemak gizarteari ematen dion zerbitzuaren edukiaren parte funtsezkoa.

2.– Unibertsitateko irakaskuntza irakasleen eskubidea eta betebeharra da, eta eragimenik eta zorroztasun zientifikorik handienarekin erantzun behar diote.

*46. artikulua.*– Tituluak

1.– Unibertsitateek emandako irakaskuntzak titulu hauek eskuratzeko bide dira:

a) Estatuak homologatutako titulu ofizialak.

b) Unibertsitateen berezko tituluak eta diplomak, beren estatutuetan arautako moduan.

c) Unibertsitateen berezko tituluak, Euskal Autonomia Erkidegoak onartu, eta erregelamendu bidez ezarritakoarekin bat etorriz antolatu eta irakatsiak.

d) Unibertsitateen berezko tituluak, beste autonomia-erkidego batzuetan ofizialki onartu, eta horretarako izenpetutako hitzarmenekin bat etorriz antolatu eta irakatsiak.

e) Europako unibertsitate entzutetsuek emandako beste titulu ofizial batzuekin homologatu daitezkeen tituluak, beren edukiek horretarako balio dutelako; Euskadiko Unibertsitate Kontseiluak proposatuta, Eusko Jaurlaritzak interes berezikotzat jo beharko ditu Euskal Autonomia Erkidegorako, erregelamendu bidez ezarritakoarekin bat etorriz.

f) Europako beste unibertsitate batzuetako titulu ofizialekin homologatu daitezkeen tituluak, irakasgaiak prozedura telematikoen bidez ikasiaz lortzen direnak, betiere erregelamendu bidez ezarritakoaren arabera.

2.– Era berean, lege honen eta aplikatzekoak diren arauen esparruan, unibertsitateek tituluaren Europako gehigarriaren diploma eman ahal izango dute.

versitaria a fin de garantizar de manera efectiva el derecho a la enseñanza superior y a no ser discriminado por razones económicas.

2.– Se tendrán específicamente en cuenta en este programa las ayudas a estudiantes de tercer ciclo, a fin de estimular la investigación y la mejora de las condiciones de vida del personal investigador no contratado.

TÍTULO III

DOCENCIA, ESTUDIO E INVESTIGACIÓN

CAPÍTULO PRIMERO
DOCENCIA

*Artículo 45.*– Principios generales

1.– La formación profesional, científica, técnica, artística, cultural y humana de los estudiantes y las estudiantes constituye, junto con la investigación, parte esencial del contenido del servicio a la sociedad que lleva a cabo el sistema universitario vasco.

2.– La docencia en la universidad es un derecho y un deber de los profesores y profesoras, que han de atender con la máxima eficiencia y rigor científico.

*Artículo 46.*– Titulaciones

1.– Las enseñanzas que impartan las universidades darán lugar a la expedición de las siguientes titulaciones:

a) Títulos oficiales homologados por el Estado.

b) Títulos y diplomas propios de las universidades, regulados en sus estatutos.

c) Títulos propios de las universidades reconocidos por la Comunidad Autónoma, que sean organizados e impartidos conforme a lo que reglamentariamente se establezca.

d) Títulos propios de universidades, reconocidos oficialmente en otras comunidades autónomas, que sean organizados e impartidos de acuerdo con los convenios suscritos al efecto.

e) Títulos cuyos contenidos pueden permitir su homologación con otros títulos oficiales expedidos por universidades europeas de prestigio y que sean considerados por el Gobierno, a propuesta del Consejo Vasco de Universidades, de interés especial para el País Vasco, de acuerdo con lo que se establezca reglamentariamente.

f) Títulos homologables con títulos oficiales de otras universidades europeas, que se obtengan cursando asignaturas mediante procedimientos telemáticos, conforme a lo que se establezca reglamentariamente.

2.– Asimismo, en el marco de la presente ley y la normativa que resulte de aplicación, las universidades podrán expedir el diploma de suplemento europeo del título.

3.– Funts publikoz finantzatutako titulu berriak ezartzerakoan, taldeak finkatzeko euskara erabiliko da lehentasuneko irizpide.

*47. artikulua.*– Ikasketa-planak

Unibertsitateen gainean eskumenak dituen sailak eta unibertsitateek ikasketa-planak egiterakoan neurri hauek sustatu eta bultzatuko dituzte, betiere indarrean dauden arauak beteta:

a) Ikasketak amaitzen dituztenean beren lanbideetan sartzeko gaitasun nahikoa izateko eta beren tituluei dagozkien gaietan iritzi autonomoak emateko adina ikas dezaten saiatzea.

b) Ikasketa-planak Europako titulu-esparruko eskakizunetara egokitzea, tituludunek Europar Batasunean mugitzeko aukerak izan ditzaten, eta aldi berean Europako kreditu-sistema bereganatzeko.

c) Ikasketetarako zeharkakotasun-irizpideak onartzea, ikasketa horiekin, batez ere lehenengo ziklokoekin, ikasleak beste ikasketa batzuetara aldatu ahal izan daitezen, eta etorkizunean profesionalak izango direnak lan ezberdinak egiteko nahiz askotariko gaitasunak hartzeko prest egon daitezen.

d) Hala ikasketa-planen malgutasuna eta etenik gabeko egokitzapena nola kredituen mugikortasuna ahalbidetzeko irizpideak onartzea.

e) Europako unibertsitateekin trukaketa eta mugikortasuna bultzatzea.

f) Kredituak lortzeko, egoki konbinatzea irakaskuntza teorikoa, praktikak, mintegiak, irakurketa osagarriak eta ikaskuntzarako beste baliabide guztiak, baita ikasgelako eta ikasgelatik kanpoko irakaskuntzak ere.

g) Informazio-teknologiak ikasteari bultzada ematea.

h) Hizkuntzak ikasteari indar ematea.

*48. artikulua.*– Ikasketa-planak egin eta onartzea

Ikasketa-planak egin eta onartzea aplikatzekoa den oinarrizko legediaren menpe dago. Hala ere, Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentziaren txostena beharko da beti.

*49. artikulua.*– Irakaskuntza praktikoak emateko hitzarmenak

Irakaskuntza praktikoak emateko, unibertsitateek hitzarmenak egin ahal izango dituzte instituzio publiko eta pribatuekin, enpresak eta profesionalen bulegoak barne hartuta, estatutuetan antolaketaren eta jarduteko moduaren gaineko arauetan aurreikusitako irismen, baldintza eta kontrol-sistemekin.

3.– En la implantación de nuevas titulaciones financiadas con fondos públicos, el establecimiento de los grupos se realizará utilizando el euskera como criterio preferente.

*Artículo 47.*– Los planes de estudios

El departamento competente en materia de universidades y las universidades promoverán y fomentarán las siguientes medidas en la elaboración de los planes de estudios, sin perjuicio del cumplimiento de la normativa vigente:

a) Procurar que los estudiantes y las estudiantes adquieran el aprendizaje suficiente para que a la finalización de sus estudios tengan capacidad suficiente para integrarse en las respectivas profesiones y emitir juicios autónomos sobre las cuestiones atinentes a su titulación.

b) Adaptar los planes de estudios a las exigencias del espacio europeo de titulaciones, a efectos de posibilitar la movilidad de las tituladas y titulados en la Unión Europea, así como la asunción del sistema de crédito europeo.

c) Adoptar criterios de transversalidad, de manera que los estudios, principalmente de primer ciclo, permitan acceder a otros a los efectos de facilitar la adecuación de los futuros profesionales para el desempeño de diferentes trabajos o adquirir diversas aptitudes.

d) Adoptar criterios que permitan la flexibilidad de los planes de estudios y su adecuación permanente, así como la movilidad de créditos.

e) Impulsar el intercambio y la movilidad con universidades europeas.

f) Combinar suficientemente, en la obtención de los créditos, la enseñanza teórica, la realización de prácticas, los seminarios, las lecturas complementarias y cualesquiera otros medios de aprendizaje, así como las enseñanzas presenciales y no presenciales.

g) Fomentar el aprendizaje de las tecnologías de la información.

h) Potenciar el aprendizaje de idiomas.

*Artículo 48.*– Elaboración y aprobación de los planes de estudios

La elaboración y aprobación de los planes de estudios queda sujeta a la legislación básica aplicable. En cualquier caso, será necesario el informe previo de la Agencia de Evaluación de la Calidad y Acreditación del Sistema Universitario Vasco.

*Artículo 49.*– Convenios para la realización de enseñanzas prácticas

Las universidades, para la realización de las enseñanzas prácticas, podrán realizar convenios con instituciones públicas y privadas, incluidas empresas y despachos profesionales, con el alcance, requisitos y sistemas de control que se prevean en sus estatutos y normas de organización y funcionamiento.

*50. artikulua.–* Goi-mailako hezkuntza bizitza osoan

Unibertsitateek, berez zein beste instituzio edo erakunde publiko edo pribatu batzuekin hitzarmenak eginez, bizitza osoan jakintzak eta gaitasunak eguneratzeko programak eskaini ahal izango dituzte. Irakaskuntza horiek emateko ikasgelatik kanpoko baliabideak erabil daitezke lehentasunez edo bete-betean.

*51. artikulua.–* Europako unibertsitate-esparrura egokitzea

1.– Zeinek bere eskumenen esparruan, unibertsitateen gaietan eskumenak dituen sailak eta unibertsitateek euskal unibertsitate-sistema goi-mailako irakaskuntzako Europako sisteman sartzeko eta tituluaren Europako gehigarriaren diploma emateko nahitaezko egokitzapenak bultzatuko dituzte ikasketa-planetan eta kredituen eta balorazioen sistemetan, eta haiekin batera beharrezkoak diren gainerako neurriak.

2.– Ikasleek eta tituludunek Europako esparruan mugikortasuna izan dezaten, unibertsitateek xede hauetara zuzendutako neurriak hartuko dituzte beren tituluei buruz, indarrean dauden arauekin bat etorriz:

a) Irakaskuntzetako modalitate ziklikoak goi-mailako irakaskuntzako Europako esparruaren lerro nagusietara egokitzera zuzendutako neurriak.

b) Tituluen izenak egokitzera zuzendutako neurriak.

c) Ikasketa-planetako irakaskuntzen balorazio-unitatea Europako kreditu-araubidera edo goi-mailako irakaskuntzako Europako esparruan onar daitekeen beste edozein unitatera egokitzera zuzendutako neurriak.

3.– Zeinek bere eskumenen esparruan, unibertsitateen gaietan eskumenak dituen sailak eta unibertsitateek ikasleek goi-mailako irakaskuntzako Europako esparruan mugikortasuna izatea bultzatuko dute. Hartarako, bekak eta ikasketetarako laguntza eta kredituak emateko programak zabalduko dituzte, edo, kasua hala bada, Europar Batasunaren beka eta laguntza programak osatuko.

4.– Zeinek bere eskumenen esparruan, unibertsitateen gaietan eskumenak dituen sailak eta unibertsitateek irakasleek goi-mailako irakaskuntzako Europako esparruan mugikortasuna izatea bultzatuko dute berariazko programa edo hitzarmenen bidez zein Europar Batasunaren beraren programa edo hitzarmenen bidez.

## BIGARREN KAPITULUA
## IKERKETA

### LEHENENGO ATALA
### Xedapen Orokorrak

*52. artikulua.–* Unibertsitatearen lana

1.– Ikertzea eta ikertzaile berriak ikerketan sartzea unibertsitateen funtsezko zereginak dira.

*Artículo 50.–* Educación superior a lo largo de la vida

Las universidades, por sí o mediante convenios con otras instituciones u organizaciones públicas o privadas, podrán ofrecer programas de actualización de conocimientos y de capacidades a lo largo de toda la vida. Estas enseñanzas podrán impartirse utilizando preferente o exclusivamente medios no presenciales.

*Artículo 51.–* Adaptación al espacio universitario europeo

1.– En el ámbito de sus respectivas competencias, el departamento competente en materia de universidades y las universidades impulsarán las adaptaciones necesarias de los planes de estudios, sistema de créditos y de valoración y cuantas otras medidas sean precisas para la inserción del sistema universitario vasco en el sistema europeo de la enseñanza superior y la expedición del diploma de suplemento europeo de titulación.

2.– A los efectos de facilitar la movilidad de las estudiantes y los estudiantes y de las tituladas y titulados en el espacio europeo, las universidades adoptarán en relación con sus titulaciones, y de acuerdo con la normativa vigente, medidas que tiendan a:

a) Adaptar las modalidades cíclicas de las enseñanzas a las líneas generales del espacio europeo de la enseñanza superior.

b) Adaptar las denominaciones de los títulos.

c) Adaptar la unidad de valoración de las enseñanzas de los planes de estudios al régimen del crédito europeo o a cualquier otra unidad que se adopte en el espacio europeo de la enseñanza superior.

3.– En el ámbito de sus respectivas competencias, el departamento competente en materia de universidades y las universidades fomentarán la movilidad de las estudiantes y los estudiantes en el espacio europeo de enseñanza superior mediante programas de becas y ayudas y créditos al estudio, o, en su caso, complementando los programas de becas y ayudas de la Unión Europea.

4.– En el ámbito de sus respectivas competencias, el departamento competente en materia de universidades y las universidades fomentarán la movilidad de los profesores y profesoras en el espacio europeo de enseñanza superior mediante programas y convenios específicos o propios de la Unión Europea.

## CAPÍTULO SEGUNDO
## LA INVESTIGACIÓN

### SECCIÓN PRIMERA
### Disposiciones Generales

*Artículo 52.–* Tarea universitaria

1.– La investigación y la iniciación en la investigación de investigadores e investigadoras constituyen tarea esencial de las universidades.

2.– Kontzientzia-askatasunean oinarritutako ikerketa-askatasunak ez du mugarik izango, legeetan, nazioarteko itun zein hitzarmenetan eta zientzialari-erkidegoek onartutako kode edo arau deontologikoetan ezarritakoetatik aparte.

3.– Unibertsitateak ikerketa, garapen eta berrikuntzako euskal sistemaren oinarrizko parte dira. Instituzio publikoek programa-kontratuak eta beste mota batzuetako hitzarmenak izenpetu ahal izango dituzte unibertsitateetan dauden ikerketa-taldeekin eta unibertsitateetako ikerketako sail eta institutuekin, ikerketa-jarduera zehatzak egiteko eta/edo jakintzak eta teknologia gizartearen eskueran jartzeko.

*53. artikulua.*– Teknologia eta jakintzak gizartearen eskueran jartzea

1.– Eusko Jaurlaritzak eta unibertsitateek unibertsitateko ikerketaren eta ekoizpen-sistemaren arteko loturak egituratzeko beharrezko neurriak hartuko dituzte, unibertsitateetan garatutako jakintzak eta zientzia eta teknologiako berrikuntzak gizartearen eskueran jarriko direla bermatzeko, eta ikerketa-lanetarako baliabide pribatuak lortzeko.

2.– Unibertsitateek enpresak eta zientzia-guneak nahiz teknologia-guneak sor ditzakete, edo, bestela, sortzen parte hartu; irakasleek eta ikertzaileek horien jardueretan parte hartu ahal izango dute xede hauekin:

a) Unibertsitateko ikerketa sustatu eta horren alde egiteko, eta ikerketaren emaitzak zabaltzeko.

b) Enpresetan kalitatearen eta berrikuntzaren aldeko jarrerak bizteko.

c) Teknologia-hobekuntzarekin eta berrikuntzarekin, enpresen lehiakortasuna hobetzen laguntzeko.

*54. artikulua.*– Itundutako ikerketa

1.– Unibertsitateek harremanak izan ditzakete teknologia-guneekin, enpresetako (I+G) ikerketa eta garapeneko lan-taldeekin, zientzia-elkarteekin zein berrikuntza-jarduerak egiteko xedea duten erakundeekin. Elkarren arteko harreman horiek azpiegitura berberak erabiliaz, langileak elkarren artean trukatuz, ikerketa-proiektuak batera eginez, zein lortu nahi diren helburuetarako egoki den beste edozein molde erabiliz gauzatuko dira.

2.– Unibertsitateek, barne-arautegiarekin bat etorriz, ikerketa-proiektuak eta ikerketa-hitzarmenak itundu ditzakete beste pertsona fisiko edo juridiko batzuekin. Unibertsitateek zehaztuko dituzte itundutako ikerketa baimentzeko irizpideak, eta prestaldian diren ikertzaileak horretara biltzen ahaleginduko dira.

*55. artikulua.*– Euskal Herriko Unibertsitatea, ikerketako agentea

Kalitate-irizpideak, produkzio-mailak eta garatzen diren ikerketa oinarrizko eta aplikatuko arloak kontuan izanik, Euskal Herriko Unibertsitatea oinarrizko era-

2.– La libertad de investigación, basada en la libertad de conciencia, no tendrá otras limitaciones que las establecidas en las leyes, en los tratados o convenios internacionales y en los códigos o reglas deontológicos aprobados por la comunidad científica.

3.– Las universidades forman parte fundamental del sistema vasco de investigación, desarrollo e innovación. Las instituciones públicas podrán firmar contratos-programa y otro tipo de convenios con los grupos de investigación existentes en las universidades así como con los departamentos e institutos universitarios de investigación, para llevar a cabo actividades específicas de investigación y/o transferencia de conocimientos y de tecnología a la sociedad.

***Artículo 53.***– Transferencia de tecnología y de conocimientos

1.– El Gobierno y las universidades instrumentarán las medidas precisas para articular la vinculación entre la investigación universitaria y el sistema productivo, a fin de asegurar la transferencia del conocimiento y de la innovación científica y tecnológica llevada a cabo en las universidades, así como para captar recursos privados para las tareas de investigación.

2.– Las universidades podrán crear o participar en la creación de empresas y parques científicos o tecnológicos, en cuyas actividades podrá participar el personal docente e investigador, con los siguientes objetivos:

a) Promover y propiciar la investigación universitaria y la difusión de sus resultados.

b) Estimular la cultura de la calidad y de la innovación entre las empresas.

c) Contribuir, mediante el perfeccionamiento tecnológico y la innovación, a la mejora de la competitividad de las empresas.

***Artículo 54.***– Investigación concertada

1.– Las universidades podrán relacionarse con los centros tecnológicos, las unidades de investigación y desarrollo (I+D) de empresas, las sociedades científicas o cuantas entidades tengan como objeto realizar actividades de innovación. Dicha interacción puede adoptar la forma de uso de infraestructuras comunes, intercambio de personal, proyectos conjuntos de investigación, o cualquier otra que sea adecuada para los objetivos a alcanzar.

2.– Las universidades, con arreglo a su normativa interna, podrán concertar proyectos o convenios de investigación con otras personas físicas o jurídicas. Las universidades determinarán los criterios de autorización de la investigación concertada, procurando la incorporación de personal investigador en formación.

***Artículo 55.***– Universidad del País Vasco, agente de investigación

Atendiendo a criterios de calidad, niveles de producción y campos de investigación básica y aplicada desarrollados, la Universidad del País Vasco es agente bá-

gilea da ikerketa, garapen eta berrikuntzako euskal sisteman. Haren ikerketa-jarduerak bultzatzea, beraz, instituzio publikoek hartu beharreko helburua da.

*56. artikulua.*– Euskadiko Ikerketa Kontseilua

Jaurlaritzak Euskadiko Ikerketa Kontseilua sortuko du ikerketa, garapnea eta berrikuntza behatu, koordinatu eta sustatzeko. Eusakal Herriko Unibertsitateak Euskadiko I+D+b sistemaren oinarrizko eragile gisa parte hartuko du kontseilu horretan.

BIGARREN ATALA
Unibertsitate publikoko ikerketa

*57. artikulua.*– Ikertzaileen kidegoaren osaera

Unibertsitateetako ikertzaile-multzoa honako hauek osatzen dute: doktore-titulua beharrezko duten lanpostuetako langileek, ikertzaile laguntzaileek eta ikerketako beka duten ikertzaile hasiberriek eta ikertzaile esperimentatuek.

*58. artikulua.*– Irakasleak eta ikerketa

1.– Ikertzaileek bakarka zein taldean ikerketa-jarduerak egiteko eskubidea eta betebeharra dute.

2.– Irakasleak irakaskuntza-lanetatik liberatu ahal izango dira aldi batean ikerketa-zereginetan aritzeko, unibertsitatearen estatutuek ezarriko dituzten gobernu-organoen baimenarekin. Baimen hori urtero berritu ahal izango da, betiere betetzen ari diren ikerketa-lanengatik giza baliabiderik kontratatu behar ez bada nahitaez.

*59. artikulua.*– Ikerketaren egitura

1.– Irakasle edo ikertzaile bakoitza egiten ari den ikerketen aurka jarri gabe, ikerketa-taldeetan, sailetan, ikerketako unibertsitate-institutuetan eta enpresetan zein teknologia-guneetan egin behar da ikerketa, edo itunduta, 54. artikuluan ezarritako moduan.

2.– Sail bakar bateko zein hainbateko kideek osa ditzakete ikerketa-taldeak. Era berean, euskal unibertsitate-sistemako edozein unibertsitatetako irakasle eta ikertzaile aldeetara bil daitezke, edo Espainiako nahiz beste herrialde bateko zeinahi unibertsitatetakora, baldin eta horrek osagarritasunari edo ikerketaren kalitateari laguntzen badio.

*60. artikulua.*– Ebaluazioa

Ikerketa-taldeek, sailek eta unibertsitate-institutuek urtero aurkeztuko diote unibertsitateari egin dituzten ikerketa-jardueren eta ikertzaile-prestakuntzaren txostena, estatutuetan zehaztutako eran.

sico en el sistema vasco de investigación, desarrollo e innovación. Potenciar sus actividades de investigación constituye, por ello, un objetivo para las instituciones públicas.

*Artículo 56.*– Consejo Vasco de Investigación

El Gobierno creará el Consejo Vasco de Investigación para realizar funciones de observación, coordinación y promoción de la investigación, desarrollo e innovación. La Universidad del País Vasco participará en dicho consejo como agente básico del sistema vasco de I+D+i.

SECCIÓN SEGUNDA
De la investigación en la universidad pública

*Artículo 57.*– Composición del personal investigador

El personal investigador de las universidades está integrado por aquellos cuyo puesto de trabajo requiera estar en posesión del título de doctor o doctora, las ayudantes y los ayudantes de investigación, las investigadoras e investigadores en fase inicial y las investigadoras e investigadores experimentados en posesión de una beca de investigación.

*Artículo 58.*– El personal docente y la investigación

1.– El personal investigador tiene el derecho y el deber de llevar a cabo actividades de investigación, individualmente o en grupo.

2.– El personal académico podrá ser liberado de la dedicación docente para dedicarse temporalmente a tareas de investigación, con la autorización de los órganos de gobierno que establezcan los estatutos de la universidad, renovando dicha autorización anualmente, siempre y cuando ello no requiera necesariamente la contratación de recursos humanos.

*Artículo 59.*– Estructura de la investigación

1.– Sin perjuicio de las investigaciones particulares que lleve a cabo cada docente o investigador, la investigación se llevará a cabo en grupos de investigación, en los departamentos, en los institutos universitarios de investigación y en las empresas o parques tecnológicos, o en forma concertada, conforme al artículo 54.

2.– Los grupos de investigación podrán estar integrados por personal perteneciente a un solo departamento, o ser interdisciplinares. Asimismo, podrán integrarse en los grupos los docentes e investigadores que pertenezcan a cualquiera de las universidades del sistema universitario vasco o a cualquier otra universidad española o extranjera, cuando ello contribuya a su complementariedad o a la calidad de la investigación.

*Artículo 60.*– Evaluación

Los grupos de investigación, los departamentos y los institutos universitarios presentarán anualmente a la universidad, en la forma que determinen los estatutos, una memoria de las actividades de investigación y de formación de investigadores que hayan realizado.

## IV. TITULUA

## EUSKAL UNIBERTSITATE SISTEMAREN ANTOLAMENDUA

### LEHENENGO KAPITULUA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ERAKUNDE ETA ORGANOEI DAGOZKIEN AHALMENAK EUSKAL UNIBERTSITATE-SISTEMA ANTOLATZEKO

***61. artikulua.***– Unibertsitateak sortu, ezabatu eta onartzea

Eusko Legebiltzarrari ez beste inori dagokio unibertsitate publikoak sortu eta ezabatzea, bai eta unibertsitate pribatuak onartzea eta, hala balegokio, horiei lehenago emandako onarpena kentzea ere.

***62. artikulua.***– Unibertsitateen gaietan eskumenak dituen sailaren ahalmenak

1.– Unibertsitateen gaietan eskumenak dituen sailari dagokio Euskal Autonomia Erkidegoan diren arautako ikasketa guztiak arrazoizko eran antolatu eta gizartearen beharrizanetara egokitzeko tresnak taxutzea. Berari dagokio, orobat, beste unibertsitate batzuekiko koordinazioa eta elkarlana hedatzea gai hauetan osagarritasuna lortze aldera: tituluen eskaintzan, euskararen irakaskuntzan, ikerketan eta unibertsitate-politikarako ezarritako xedeak iriste aldera interesgarri izan daitekeen beste edozein arlotan.

2– Autonomia Erkidegoaren lurraldean kokatutako unibertsitate publikoei dagokienean, unibertsitateen gaietan eskumenak dituen sailari dagozkio ahalmen hauek, lege honetan eta aplikatzekoa den araudian ezarritakoaren barruan:

a) Unibertsitate publikoak sortzeko edo ezabatzeko beharrezkoa den lege-egitasmoa egitea, eta hura Eusko Jaurlaritzari proposatzea.

b) Unibertsitateen jarduerak hasteko baimena ematea, indarrean dagoen legerian eta sortzeko legean aurreikusitako baldintzak betetzen direla egiaztatu eta gero.

c) Honako hauek sortu, aldatu eta ezabatzea: fakultateak, goi-mailako eskola tekniko edo politeknikoak, unibertsitate-eskolak, unibertsitate-eskola politeknikoak, ikerketako unibertsitate-institutuak edo ikasgelatik kanpoko irakaskuntza antolatzen duten beste erakunde edo ikastetxe batzuk.

d) Euskal Autonomia Erkidegoak onartutako titulu ofizialak lortzeko irakaskuntzak, ikasgela barrukoak edo birtualak, ezarri edo ezabatzea.

e) Ikastetxe publiko publikoak eta publiko ez direnak, unibertsitateko titulu ofizialen ikasketak eskain ditzaten, unibertsitate publikoari atxikitzea onestea, edo atxikipena kentzea.

## TÍTULO IV

## LA ORDENACIÓN DEL SISTEMA UNIVERSITARIO VASCO

### CAPÍTULO PRIMERO DE LAS FACULTADES DE ORDENACIÓN DEL SISTEMA UNIVERSITARIO VASCO CORRESPONDIENTES A INSTITUCIONES Y ÓRGANOS DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA

***Artículo 61.***– Creación, supresión y reconocimiento de universidades

Corresponde al Parlamento Vasco, con carácter exclusivo, la creación y supresión de universidades públicas, así como el reconocimiento de las universidades privadas y, en su caso, la revocación de dicho reconocimiento.

***Artículo 62.***– Facultades del departamento competente en materia de universidades

1.– Corresponde al departamento competente en materia de universidades articular los instrumentos que permitan racionalizar y adecuar a las necesidades sociales todo el conjunto de los estudios reglados en la Comunidad Autónoma del País Vasco. A él incumbe, además, extender la coordinación y colaboración con otras universidades, al objeto de promover la complementariedad en la oferta de titulaciones, en la enseñanza en euskera, en la investigación y en cualesquiera otras materias de interés para alcanzar los objetivos previstos en su política universitaria.

2.– En relación con las universidades públicas establecidas en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma, corresponde al departamento competente en materia de universidades, en los términos previstos en la presente ley y en la normativa aplicable:

a) La elaboración del proyecto de ley necesario para su creación o supresión y su propuesta al Gobierno Vasco.

b) Autorizar el comienzo de las actividades de las universidades una vez comprobado que cumplen los requisitos previstos en la legislación vigente y en la ley de creación.

c) La creación, modificación y supresión de facultades, escuelas técnicas o politécnicas superiores, escuelas universitarias, escuelas universitarias politécnicas, institutos universitarios de investigación u otros centros o estructuras que organicen enseñanzas en modalidad no presencial.

d) La implantación o supresión de enseñanzas, presenciales o virtuales, conducentes a la obtención de títulos oficiales o reconocidos por la Comunidad Autónoma.

e) Aprobar la adscripción de centros docentes, de titularidad pública o no pública, para impartir títulos universitarios oficiales, así como su desadscripción.

f) Unibertsitateak ikasketa-planak onartu ondoren, plan horien gaineko txostena egitea, titulua homologatu aurretik; horretarako, plan horiek ekonomiaren aldetik bideragarriak diren aztertu beharko du sailak, bai eta lege honetan eta aplikatzekoa den gainerako araudian ezarritako oinarrizko eskakizunei egokitzen zaizkien edo ez.

g) Titulua homologatu ondoren, ikasketa-planetako jarduerei ekiteko baimena ematea.

h) Lege honetan aurreikusitako gainerako eginkizunak, edo, betearazpen hutseko eskumenak izanik, Estatuko antolamenduak Euskal Autonomia Erkidegoari aitortzen dizkionak.

3.– Unibertsitate pribatuei eta dagokion heinean Eliza Katolikoaren unibertsitateei buruz, unibertsitateen gaietan eskumenak dituen sailak ahalmen hauek ditu:

a) Unibertsitate horiek onartzeko lege-egitasmoa egitea, edo, hala balegokio, onarpen hori kentzekoa, eta hala bata nola bestea Eusko Jaurlaritzari proposatzea.

b) Aurreko 2. paragrafoko c), d), g) eta h) idatz-zatietan aipatzen direnak.

c) Lege honetan aurreikusitako gainerako ahalmenak, edo betearazpen hutseko eskumenak izanik Estatuko antolamenduak Euskal Autonomia Erkidegoari aitortzen dizkionak.

4.– Unibertsitateen gaietan eskumenak dituen sailari dagokio, halaber, atzerriko hezkuntza-sistemen arabera irakasten duten ikastetxeei baimena ematea, bai eta horrelakoetan aplikatzekoa den antolamendu juridikoaren arabera dagozkiokeen gainerako ahalmenak ere.

*63. artikulua.–* Ikuskatzeko eginkizuna

Unibertsitateen gaietan eskumenak dituen sailari dagokio lege honetan eta aplikatzekoa den gainerako ordenamendu juridikoan ezarritakoa unibertsitateek betetzen dutenetz zaintzea.

*64. artikulua.–* Unibertsitateko Arartekoa

Unibertsitate organo eta zerbitzuen jardueren aurrean irakasleen, ikasleen eta administrazioko eta zerbitzuetako langileen eskubide eta askatasunen errepestua babesteko, euskal unibertsitateek Unibertsitateko Arartekoa eratuko dute beren antolamendu-egituraren barruan. Arartekoaren jarduerak independentziaren eta autonomia funtzionalaren printzipioen araberakoak izango dira.

BIGARREN KAPITULUA
EUSKADIKO UNIBERTSITATE KONTSEILUA

*65. artikulua.–* Eginkizunak

1– Euskadiko Unibertsitate Kontseilua euskal unibertsitate-sistema koordinatzeko erakundea da, eta, oro-

f) La emisión de informe sobre los planes de estudios una vez aprobados por la universidad, con carácter previo a la homologación del título, verificando su viabilidad económica así como su adecuación a los requisitos básicos previstos en la presente ley y en el resto de la normativa de aplicación.

g) La autorización del inicio de actividades de los planes de estudios una vez homologado el título.

h) Las demás previstas en la presente ley o que, siendo de estricta ejecución, reconozca el ordenamiento estatal a la Comunidad Autónoma.

3.– En relación con las universidades privadas y en su medida de la Iglesia católica establecidas en el ámbito territorial de la comunidad autónoma, corresponden al departamento competente en materia de universidades las siguientes facultades:

a) La elaboración del proyecto de ley de reconocimiento y, en su caso, de revocación de dicho reconocimiento, y en ambos casos su propuesta al Gobierno Vasco.

b) Las previstas en las letras c), d), g) y h) del apartado 2 anterior.

c) Las demás establecidas en la presente ley o que, siendo de ejecución, el ordenamiento jurídico estatal reconoce a la Comunidad Autónoma.

4.– Corresponde igualmente al departamento competente en materia de universidades autorizar los centros que impartan enseñanzas con arreglo a sistemas educativos extranjeros, y demás facultades que se deriven del ordenamiento jurídico que resulte aplicable.

*Artículo 63.–* Función inspectora

Corresponde al departamento competente en materia de universidades velar por la inspección del cumplimiento por las universidades de lo previsto en la presente ley y en el resto del ordenamiento jurídico que resulte aplicable.

*Artículo 64.–* El Defensor Universitario

Con el objeto de velar por el respeto de los derechos y libertades de las profesoras y profesores, las estudiantes y los estudiantes y el personal de administración y servicios ante las actuaciones de los diferentes órganos y servicios universitarios, las universidades vascas establecerán en su estructura la figura del Defensor Universitario, cuyas actuaciones estarán regidas por los principios de independencia y autonomía funcional.

CAPÍTULO SEGUNDO
CONSEJO VASCO DE UNIVERSIDADES

*Artículo 65.–* Funciones

1.– El Consejo Vasco de Universidades es el órgano de coordinación del sistema universitario vasco y de

bat, Eusko Jaurlaritzaren kontsulta eta aholku erakundea unibertsitate-gaietarako.

2.– Hauek dira Euskadiko Unibertsitate Kontseiluaren eginkizunak:

a) Jaurlaritzari, unibertsitateen gaietan eskumenak dituen sailari eta unibertsitate bakoitzari aholku ematea, iritzia emateko aurkezten zaizkion gai guztietan.

b) Lege hau garatzeko eman daitezkeen xedapen orokorren proiektuak aztertzea.

c) Unibertsitate berriak sortu edo onartzeko legeegitasmoak aztertzea, Jaurlaritzari igorri baino lehen.

d) Unibertsitate-mailako jakintzaren eta prestakuntzaren arloan zer beharrizan dagoen eta horien gizarteeskaria zenbateraino asetzen den aztertzea, eta horren gaineko txostena egitea.

e) Unibertsitate bakoitzaren tituluen eta ikasketaplanen egoera eta bilakaera aztertzea eta horien gaineko txostena egitea, eta, bereziki, hemengo titulazio-sistema goi-mailako irakaskuntzako Europako sisteman sar dadin sustatzea.

f) Unibertsitateen arteko informazio-trukerako bidea jartzea.

g) Unibertsitateak elkarrekin jardun daitezen egitasmoak bultzatzea, gehienbat ikerketaren arloan eta irakaskuntzan eta kudeaketan kalitatea ezartzearen arloan, eta unibertsitateak zientzia, teknologia eta berrikuntzaren Europako sisteman sar daitezen sustatzea.

h) Beste unibertsitate batzuekin euskal kulturaren arloan elkarlanean aritzeko egitasmoak bultzatzea.

i) Unibertsitateen eta beste instituzio publiko eta pribatu batzuen arteko elkarlana sustatzea, interes orokorreko egitasmoak gauzatzeko. Bereziki, unibertsitateen eta enpresen arteko harremanak bultzatzea, eta Jaurlaritzak arlo horretan sustatutako ekimenen gaineko txostena egitea.

j) Ikasketetarako beka eta diru-laguntzen arloko gidalerroen inguruan txostenak egitea.

k) Oro har, unibertsitateen arteko elkarlanaren eta unibertsitate-sistemaren kalitatearen eta egokitasunaren inguruan interesgarri iritzitako gaiak aztertu edo proposatzea, edo gai horien gainean txostenak egitea.

l) Unibertsitate-erakundeen arteko euskal sarea bultzatzea, irakaskuntza, ikerkuntza eta ekimen kulturalen koordinazioaren eta aipatu unibertsitate-erakundeeako ikasle eta irakasleen mugikortasunarez bidez, euskara eta euskal kultura bultzatzeko asmoz.

3.– Unibertsitateen gaietan eskuduna den sailarenak edo Eusko Jaurlaritzarenak diren gaien inguruan egindako txostenek ez dute Jaurlaritza lotuko. Gainerako erabakiek, aho batez hartzen direnean, kasuan-kasuan

consulta y asesoramiento del Gobierno Vasco en materia de universidades.

2.– Corresponden al Consejo Vasco de Universidades las siguientes funciones:

a) Asesorar al Gobierno y al departamento competente en materia de universidades y a cada universidad en todos los asuntos que se sometan a su consideración.

b) Conocer los proyectos de disposiciones generales que se dicten en desarrollo de la presente ley.

c) Conocer, con carácter previo a su elevación al Gobierno, los proyectos de ley de creación o reconocimiento de nuevas universidades.

d) Conocer e informar sobre las necesidades de conocimiento y formación universitaria y el grado de satisfacción de la demanda social en dichos aspectos.

e) Conocer e informar sobre la situación y evolución de las titulaciones y los planes de estudios implantados en cada universidad, y, en particular, promover la integración del sistema de titulaciones en el sistema europeo de la enseñanza superior.

f) Facilitar el intercambio de información entre las universidades.

g) Impulsar programas conjuntos de actuación interuniversitaria, principalmente en los campos de la investigación y de la implantación de la calidad en la docencia y en la gestión, y promover la integración de las universidades en el sistema de ciencia, tecnología e innovación europeo.

h) Impulsar programas de colaboración con otras universidades en el ámbito de la cultura vasca.

i) Promover la colaboración de las universidades con otras instituciones, públicas y privadas, para ejecutar programas de interés general. En particular, promover las relaciones de las universidades con las empresas e informar sobre las iniciativas que promueva el Gobierno en este campo.

j) Informar sobre las directrices básicas en materia de becas y ayudas al estudio.

k) En general, conocer, informar y proponer cuantos asuntos se estimen de interés en relación con la cooperación entre universidades y la calidad y suficiencia del sistema universitario vasco.

l) Promover la red vasca de instituciones universitarias, a través de la coordinación de la enseñanza, investigación e iniciativas culturales así como mediante la movilidad del alumnado y profesorado de las mencionadas instituciones universitarias, a fin de potenciar el euskera y la cultura vasca.

3.– Los informes sobre asuntos del departamento competente en materia de universidades o del Gobierno Vasco no serán vinculantes para el Gobierno. El resto de los acuerdos, cuando sean adoptados por unani-

dagokien eraginkortasuna izango dute, eta ez dute Jaurlaritza lotuko, inoiz ere ez.

*66. artikulua.*– Osaera eta jarduteko modua

1.– Euskadiko Unibertsitate Kontseiluaren buru unibertsitateen gaietan eskumenak dituen saileko sailburua izango da, eta unibertsitateen gaietan eskumenak dituen sailburuordea izango da kontseilu-buruordea. Kide hauetaz osatuko da Euskadiko Unibertsitate Kontseilua:

a) Unibertsitateen gaietan eskumenak dituen saileko sailburuak izendatuta, bost kide, horien artean unibertsitateen gaietan eskumenak dituen sailburuordea.

b) Euskal Herriko Unibertsitateko errektorea.

c) Euskal unibertsitate-sistema osatzen duten gainerako unibertsitateetako errektoreak.

d) Unibertsitateetako gizarte-kontseiluetako edo indarrean dauden legeen arabera eratutako antzeko organoetako lehendakariak.

e) Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreak izendatutako bi kide.

f) Euskal Autonomia Erkidegoa osatzen duten hiru lurralde historikoetako ahaldun nagusiak edo horien eskuordeak.

g) Euskadiko Udalen Elkarteko (Eudel) ordezkari bat.

h) Gizarteko kide bat, unibertsitate-erkidegokotik kanpokoa. Kontseiluburuak proposatuko du eta kontseiluak osoko bilkuran izendatuko, eta unibertsitateen ordezkaria izango da.

i) Euskal Autonomia Erkidegoko Eskola Kontseiluko lehendakaria.

2.– Unibertsitateen gaietan eskumenak dituen sailburua izango da batzorde iraunkorraren buru; kide hauetaz osatuko da batzorde iraunkorra:

a) Unibertsitateen gaietan eskumenak dituen sailburuak izendatutako bost kide.

b) Euskal Herriko Unibertsitateko errektorea.

c) Euskal unibertsitate-sistema osatzen duten gainerako unibertsitateetako errektoreak.

d) Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte Kontseiluko lehendakaria.

e) Hiru foru-aldundien izenean ordezkari bat.

Batzorde iraunkorraren eginkizunak izango dira aholku ematea, kontseiluaren egitasmoak eta harremanak sustatzea eta horien gainean txostenak egitea. Ze-

midad, tendrán la eficacia que en cada caso se les atribuya, sin que en ningún caso puedan ser vinculantes para el Gobierno.

*Artículo 66.*– Composición y funcionamiento

1.– El Consejo Vasco de Universidades estará presidido por el consejero o consejera titular del departamento competente en materia de universidades, y ejercerá funciones de vicepresidente el viceconsejero o viceconsejera competente en materia de universidades. Formarán parte del mismo:

a) Cinco vocales por designación de la consejera o consejero titular del departamento competente en materia de universidades, entre los que se incluye al viceconsejero o viceconsejera competente en materia de universidades.

b) El rector o rectora de la Universidad del País Vasco.

c) Los rectores o rectoras del resto de las universidades del sistema universitario vasco.

d) Las presidentas o presidentes de los consejos sociales de las universidades u órganos equivalentes creados conforme a la legislación vigente.

e) Dos vocales por nombramiento del rector o rectora de la Universidad del País Vasco.

f) Los diputados generales de los tres territorios históricos que integran la Comunidad Autónoma del País Vasco, o personas en que éstos deleguen.

g) Un representante de la Asociación de Municipios Vascos (Eudel).

h) Un miembro de la sociedad, no perteneciente a la comunidad universitaria, que representará a las universidades, nombrado por el pleno del consejo, a propuesta de la presidencia.

i) El presidente o presidenta del Consejo Escolar de la Comunidad Autónoma vasca.

2.– La consejera o consejero titular del departamento competente en materia de universidades presidirá la comisión permanente, compuesta por estos miembros:

a) Cinco vocales por designación de la consejera o consejero titular del departamento competente en materia de universidades.

b) El rector o rectora de la Universidad del País Vasco.

c) Los rectores o rectoras del resto de las universidades del sistema universitario vasco.

d) El presidente o presidenta del Consejo Social de la Universidad del País Vasco.

e) Un representante en nombre de las tres diputaciones forales.

La comisión permanente asumirá las funciones de asesoramiento, informe y promoción de programas y relaciones propias del consejo. En concreto, a ella corres-

hatz esateko, berari dagokio kontseiluaren osoko bilkurari onar ditzan aurkeztu behar zaizkion txostenak egin eta proposamenak lantzea.

3.– Berariazko batzorde bat egongo da, unibertsitateen gaietan eskumenak dituen sailburua buru duela, eginkizun hauek izango dituena: goi-mailako irakaskuntzaren Europako sistemaren nondik norakoari beha egotea, unibertsitateak eta haien ikasketa-planak egokitzeko neurriak proposatu eta bultzatzea, Europako sistema hori eraikitzeko foroetan parte hartzea, Europako unibertsitateen eta euskal unibertsitate-sistemaren arteko harremanak sustatzea, eta, oro har, Euskal Herriko Unibertsitateak goi-mailako irakaskuntzaren Europako esparruan erabat sartzen lagunduko duen eginkizun oro. Berariazko batzorde horren barruan azpibatzorde bat eratuko da, unibertsitate-erakundeen arteko euskal sareraren sorrera bultzatzeko. Horretarako, irakaskuntza, ikerkuntza eta ekimen kulturalen koordinazioa eta aipatu unibertsitate-erakundeetako ikasle eta irakasleen mugikortasuna sustatuko ditu, euskara eta euskal kultura bultzatzeko asmoz.

4.– Kontseiluak berariazko lan-batzordeak sortu ahal izango ditu, gizartearen, lanbideen, irakaskuntzaren edo sindikatuen edo ekonomiaren arloetako interesak ordezkatzen dituzten pertsona eta erakundeek parte har dezaten, baldin eta, pertsona edo erakunde horiek, beren gaitasun, jarduera, jakintza edo esperientziarengatik, kontseiluaren gain utzitako eginkizunak hobeto betetzen lagun badezakete.

5.– Kontseiluaren osoko bilkura hiru hilabeterik behin egingo da, gutxienez; orobat kontseiluko buruak edo gutxienez kontseiluko bost kidek eskatzen dutenean.

HIRUGARREN KAPITULUA
EUSKAL UNIBERTSITATE-SISTEMAREN ANTOLAMENDURAKO TRESNAK

*67. **artikulua**.–* Unibertsitate-plana

1.– Unibertsitate-plana da euskal unibertsitate-sistema antolatzeko Jaurlaritzak onartutako berariazko tresna.

2.– Unibertsitate-planak lau urteko iraupena izango du, eta beraren bitartez eginbehar hauei guztiei erantzungo zaie: unibertsitateko irakaskuntzaren egoera ebaluatu, unibertsitateko irakaskuntzaren beharrizanak zehaztu, indarrean egongo den aldi horretarako helburu eta lehentasunak ezarri, eta, orobat, finantzaketa-beharrizanak eta aurreikus daitezkeen diru-sarrerak zehaztu, Euskal Herriko Unibertsitateari helburuak betetzeko eta kalitatea hobetzeko besteko finantzaketa-eredu bat bermatuz.

3.– Jaurlaritzak lehentasunezko ikerketa arlo edo gaiak zehaztu ahal izango ditu, eta horiek berariazko programa-kontratuz hornitu, Euskal Autonomia Erki-

ponde la elaboración de informes y la realización de propuestas, que serán elevadas al pleno del consejo para su aprobación.

3.– Bajo la presidencia de la consejera o consejero titular del departamento competente en materia de universidades, existirá una comisión específica con funciones de seguimiento de la evolución del sistema europeo de la enseñanza superior, propuesta e impulso de medidas de adaptación de las universidades y de sus planes de estudio, participación en los foros encaminados a la construcción de dicho sistema, fomento de las relaciones entre las universidades europeas y el sistema universitario vasco, y, en general, cuantas funciones sean útiles a los efectos de potenciar la plena integración de las universidades del País Vasco en el espacio europeo de la enseñanza superior. Dentro de esta comisión específica existirá una subcomisión que tendrá como función el desarrollo de una red vasca de instituciones universitarias, a través de la coordinación de la enseñanza, investigación e iniciativas culturales, así como mediante la movilidad del alumnado y profesorado de las mencionadas instituciones universitarias, a fin de potenciar el euskera y la cultura vasca.

4.– El consejo, para las funciones que tiene asignadas, podrá crear comisiones de trabajo específicas, con la presencia y participación de personas y de entidades representativas de los intereses sociales, profesionales, académicos, sindicales o económicos que por sus competencias, actividades, conocimientos o experiencias puedan contribuir al mejor cumplimiento de las funciones encomendadas.

5.– El pleno del consejo se reunirá, al menos, una vez cada tres meses, o cuando así lo requieran su presidente o presidenta o, al menos, cinco de sus miembros.

CAPÍTULO TERCERO
INSTRUMENTOS DE ORDENACIÓN DEL SISTEMA UNIVERSITARIO VASCO

***Artículo** 67.–* El Plan Universitario

1.– El Plan Universitario es el instrumento específico aprobado por el Gobierno para la ordenación del sistema universitario vasco.

2.– El Plan Universitario tendrá una vigencia de cuatro años, y evaluará la situación de la enseñanza universitaria, determinará sus necesidades y establecerá los objetivos y prioridades para su periodo de vigencia, así como las necesidades de financiación y los ingresos previsibles, garantizando a la Universidad del País Vasco un modelo de financiación suficiente para el cumplimiento de sus finalidades y la mejora de la calidad.

3.– El Gobierno podrá determinar áreas o materias de investigación preferente por su interés estratégico para el País Vasco o por razones de interés científico, ar-

degorako duten interes estrategikoarengatik edo zientziaren, artearen edo gizartearen alderako interesarengatik.

***68. artikulua.***– Unibertsitateko Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseilua

1.– Unibertsitateko Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseilua da unibertsitate-sistema publikoaren helburuak zehazteko zeregina duen koordinazio, aholkularitza eta parte-hartzerako erakundea.

2.– Unibertsitateen gaietan eskumenak dituen saileko sailburua edo berak izendatutako ordezkaria izango da kontseiluaren buru, eta, horrez gain, beste kide hauek izango ditu:

a) Unibertsitateen gaietan eskumenak dituen sailaren ordezkari, sei kide, sailburuak izendatuta.

b) Euskal Herriko Unibertsitatearen ordezkari, sei kide:

– Errektorea.

– Gobernu-kontseiluko hiru kide, errektoreak izendatuta, irakasleen, ikasleen eta administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkari.

– Gizarte Kontseiluak bere kideen artetik aukeratutako bi kide.

3.– Kontseiluak berak onartuko ditu jarduteko bere arauak.

V. TITULUA

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN GIZARTE KONTSEILUA

***69. artikulua.***– Izaera

1.– Gizarte Kontseilua da gizarteak unibertsitatearen gobernu eta zuzendaritzan parte hartzeko eratutako unibertsitatearen organoa.

2.– Gizarte Kontseiluak pertsonen eta erakundeen parte-hartzea sustatuko du; pertsona horiek –unibertsitate-erkidegoaren baitakoak ere izan daitezke– eta erakunde horiek gizartearen, lanbideen, irakaskuntzaren edo ekonomiaren arloetako interesen ordezkari izan beharko dute, eta beren gaitasun, jarduera, jakintza edo esperientziagatik kontseiluaren eginkizunak hobeto betetzen lagun dezaketenak izan behar dute.

***70. artikulua.***– Eginkizunak

Gizarte Kontseiluari eginkizun hauek dagozkio:

a) Gizarteak eta haren ordezkari diren erakunde eta entitateek unibertsitatearen helburuak gizarte-interesei egokitzeko zereginean parte har dezaten sustatzea, eta, orobat, gizarteak unibertsitatearen jardueren finantzaketan eta jarduera horiei babes ematen parte har dezan sustatzea. Era berean, unibertsitatearen eta gizar-

tístico o social, que serán dotadas mediante contratos-programa específicos.

***Artículo 68.***– El Consejo de Coordinación de la Enseñanza Pública Universitaria

1.– El Consejo de Coordinación de la Enseñanza Pública Universitaria es el órgano de coordinación, asesoramiento y participación para la determinación de las finalidades y objetivos del sistema universitario público.

2.– El consejo estará presidido por la consejera o consejero titular del departamento competente en materia de universidades o persona en quien delegue, y estará compuesto, además, por:

a) Seis vocales en representación del departamento competente en materia de universidades, por designación de su titular.

b) Seis vocales en representación de la Universidad del País Vasco:

– El rector o rectora.

– Tres miembros del consejo de gobierno nombrados por el rector o rectora, en representación del profesorado, del alumnado y del personal de administración y servicios.

– Dos miembros nombrados por el Consejo Social de entre sus miembros.

3.– Las normas de funcionamiento se aprobarán mediante acuerdo del propio consejo.

TÍTULO V

DEL CONSEJO SOCIAL DE LA UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO

***Artículo 69.***– Naturaleza

1.– El Consejo Social es el órgano de la universidad a través del cual la sociedad participa en su gobierno y dirección.

2.– El Consejo Social promoverá la presencia y participación de personas, incluidos miembros de la comunidad académica, y de entidades representativas de los intereses sociales, profesionales, académicos o económicos que por sus competencias, actividades, conocimientos o experiencias puedan contribuir al mejor desempeño de sus funciones.

***Artículo 70.***– Funciones

Corresponde al Consejo Social el ejercicio de las siguientes funciones:

a) Promover la participación de la sociedad, sus organizaciones y entidades representativas, en el establecimiento de los objetivos de la universidad para su adecuación a los intereses sociales, así como promover la participación de la sociedad en la financiación y en el patrocinio de las actividades universitarias. Asimismo,

tearen ordezkaritza duten entitate eta korporazioen arteko elkarlanerako formulak ere berak sustatu behar ditu.

b) Unibertsitatearen gobernu-kontseiluari eta/edo unibertsitateen gaietan eskumenak dituen sailari proposamen hauek egitea: titulu ofizialak edo Euskal Autonomia Erkidegoak onartutakoak lortzera bideratutako irakaskuntzak ezarri, aldatu edo kentzea; unibertsitateko ikastetxeak edo ikerketa-institutuak sortu, aldatu edo kentzea; unibertsitateari ikastetxeak edo ikerketa-zentroak atxikitzea edo atxikipen horiek kentzea.

c) Unibertsitatearen eta beste erakunde publiko edo pribatu batzuen arteko elkarlana sustatzea, ikasleen prestakuntza osatze aldera eta baita ikasleak eta tituludunak lan-merkatuan errazago sar daitezen laguntze aldera ere.

d) Unibertsitatearen gobernu-kontseiluak proposatuta, ikasleek unibertsitateko mailetan gora egin ahal izateko eta unibertsitatean jarraitu ahal izateko bete behar dituzten arauak onartzea, ikasketa-mota bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartuz eta ikasleen artean bereizkeriarik eragin gabe.

e) Gobernu-kontseiluak egindako unibertsitatearen aurrekontua eztabaidatu eta, hala balegokio, onartzea, edo berriz egin dezan gobernu-kontseiluari itzultzea; berriz egiteko itzuliz gero, horretarako izan den arrazoia adierazi beharko zaio.

f) Aurreko ekitaldiko aurrekontuaren likidazio ikuskatua onartzea, orobat ekitaldiko egoera-balantzea eta memoria ekonomikoa.

g) Euskal Herriko Unibertsitateko gobernu-kontseiluak proposatuta, unibertsitatearen helburuak sustatu eta gauzatzeko eratutako erakunde juridikoen eratze, aldatze edo desegitea onartzea, eta, orobat, unibertsitateak beste erakunde publiko zein pribatu batzuetan parte hartzeari onarpena ematea.

h) Fakultateak, goi-eskola teknikoak, unibertsitate-eskolak eta unibertsitate-institutuak sortu eta ezabatzeko proposamenak egitea unibertsitateen gaietan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako sailari.

i) Ikerketarako edo artea sortzeko instituzio eta zentro publiko zein pribatuak unibertsitate-institutuen gisara unibertsitateari atxikitzeko hitzarmenak proposatzea unibertsitateen gaietan eskumenak dituen sailari, onar ditzan. Sailak proposamena onartutakoan, unibertsitateak dagokion hitzarmena egin ahal izango du.

j) Ikasleentzako beka, laguntza eta kredituen politika bat taxutzea, hala balegokio, eta tasa akademikoak ordaintzeko betebeharraren erabateko edo zati bateko salbuespenaren moduak ezartzea.

k) Unibertsitateko irakasleen plantillako aldaketak erabakitzea, legez ezarritako mugen barruan.

le corresponde promover fórmulas de colaboración mutua entre la universidad y las entidades sociales y corporaciones representativas.

b) Proponer al consejo de gobierno de la universidad y/o al departamento competente en materia de universidades la implantación, modificación o supresión de enseñanzas conducentes a la obtención de títulos oficiales o reconocidos por la Comunidad Autónoma, así como la creación, modificación o supresión de centros docentes universitarios o de institutos de investigación, o la adscripción o desascripción a la universidad de centros docentes o de investigación.

c) Promover la colaboración entre la universidad y otras entidades públicas o privadas con el fin de completar la formación de los estudiantes y las estudiantes y facilitar su acceso al mercado de trabajo, así como el de los titulados y tituladas.

d) Aprobar, a propuesta del consejo de gobierno, las normas de progreso y permanencia de las estudiantes y los estudiantes en la universidad, atendidas las características de los diferentes estudios, de manera que se evite la discriminación de los estudiantes y las estudiantes.

e) Debatir y, en su caso, aprobar el presupuesto de la universidad elaborado por el consejo de gobierno o devolverlo para su reelaboración motivando su rechazo.

f) Aprobar la liquidación auditada del presupuesto del ejercicio anterior, el balance de situación del ejercicio económico y la memoria económica.

g) Aprobar, a propuesta del consejo de gobierno de la Universidad del País Vasco, la constitución, la modificación y la extinción de las entidades jurídicas constituidas para la promoción y desenvolvimiento de los fines de la universidad, así como aprobar la participación de la universidad en otras entidades, públicas o privadas.

h) Proponer al departamento competente en materia de universidades del Gobierno Vasco la creación y supresión de facultades, escuelas técnicas superiores, escuelas universitarias e institutos universitarios.

i) Proponer al departamento competente en materia de universidades, para su aprobación, los convenios de adscripción a la universidad, como institutos universitarios, de instituciones o centros de investigación o de creación artística de carácter público o privado. Una vez otorgada la aprobación, la universidad podrá formalizar el convenio correspondiente.

j) Instrumentar, en su caso, una política de becas, ayudas y créditos a los estudiantes y las estudiantes y establecer modalidades de exención total o parcial del pago de tasas académicas.

k) Acordar modificaciones en la plantilla del profesorado de la universidad dentro de los límites establecidos legalmente.

l) Jaurlaritzak ezarritako mugen barruan, unibertsitateko gobernu-kontseiluak proposatuta eta aldez aurretik Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatzeko Agentziaren ziurtagiria izanik, unibertsitateko irakasle bakoitzari eta irakaskuntza, ikerketa eta kudeaketa merezimenduen arabera ordainsari gehigarriak ematea erabakitzea.

m) Euskal Herriko Unibertsitate gobernu-kontseiluak proposatuta, unibertsitatearen hainbat urteko inbertsio-programaren proposamena onartzea.

n) Tasa akademikoak ezartzea, bai eta titulu ofizialetarako ez diren ikasketengatik ordaindu beharrekoak ere.

ñ) Gastu arruntetatik kapital-gastuetarako transferentziak erabakitzea, bai eta, Eusko Jaurlaritzak baimena eman ondoren, kapital-gastuetatik beste edozein kapitulutarako transferentziak ere, lege honetako 107. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

o) Izaera ekonomikoa duten unibertsitatearen jarduerak ikuskatzea, bai eta haren zerbitzuen errendimendua ere.

p) Unibertsitateen gaietan eskumenak dituen sailari proposatzea atxiki dakizkiola unibertsitateari ikastetxe edo ikerketa-zentro publiko zein pribatuak unibertsitate-titulu ofizialak emateko, edo atxikipen hori ken diezaiela.

q) Euskal Herriko Unibertsitatearen kudeatzailea izendatzeko orduan entzuna izatea.

r) Lege honek, unibertsitateen gaineko oinarrizko legeriak eta estatutuek esleitutako gainerako eginkizunak.

*71. artikulua*.– Osaera

1.– Gizarte Kontseilua hogeita lau kidez osatuko da; hona hemen nola osatuko den:

– Kontseiluburu bat izango du, unibertsitateen gaietan eskumenak dituen saileko sailburuak proposatu eta lehendakariak izendatuta; lau urteko agintaldia izango da harena, eta beste lau urterako berriz izendatzea ere izango da.

– Unibertsitate-erkidegoko sei ordezkari, abenduaren 21eko 6/2001 Legeko 14.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

– Hamazazpi pertsona, gizarte-interesen ordezkari.

2.– Gizarte-interesen ordezkaritza honela osatuko da:

a) Eusko Legebiltzarrak zortzi pertsona izendatuko ditu.

b) Lurralde historiko bakoitzeko Biltzar Nagusiek hiru pertsona izendatuko dituzte, bakoitzak bana.

c) Izendapena egin aurreko azken sindikatu-hauteskundeetan emaitza ofizialen arabera Euskal Autonomia

l) Dentro de los límites fijados por el Gobierno, a propuesta del consejo de gobierno de la universidad y previa certificación de la Agencia de Evaluación de la Calidad del Sistema Universitario Vasco, acordar la asignación de retribuciones adicionales a profesoras y profesores universitarios con carácter individual y en atención a méritos docentes, investigadores y de gestión.

m) Aprobar, a propuesta del consejo de gobierno de la Universidad del País Vasco, el programa plurianual de inversiones de la universidad.

n) Fijar las tasas académicas y demás derechos para estudios no conducentes a títulos oficiales.

ñ) Acordar las transferencias de gastos corrientes a gastos de capital y, previa autorización del Gobierno Vasco, las transferencias de gastos de capital a cualquier otro capítulo, de acuerdo con lo previsto en el artículo 107 de la presente ley.

o) Supervisar las actividades de carácter económico de la universidad y el rendimiento de sus servicios.

p) Proponer al departamento competente en materia de universidades la adscripción o desadscripción de centros docentes o de investigación, de titularidad pública o privada, para impartir títulos universitarios oficiales.

q) Ser oído en el nombramiento del gerente de la Universidad del País Vasco.

r) Las demás que le atribuyen la presente ley, la legislación básica sobre universidades o los estatutos.

*Artículo 71*.– Composición

1.– El Consejo Social estará integrado por veinticuatro personas de acuerdo con la siguiente composición:

– La presidenta o presidente, nombrado por el lehendakari a propuesta de la consejera o consejero titular del departamento competente en materia de universidades, con mandato de cuatro años, renovable por otro periodo de igual duración.

– Seis personas pertenecientes a la comunidad universitaria, conforme a lo dispuesto en el artículo 14.3 de la Ley 6/2001, de 21 de diciembre.

– Diecisiete personas representativas de los intereses sociales.

2.– La representación de los intereses sociales se compondrá de la siguiente manera:

a) Ocho personas designadas por el Parlamento Vasco.

b) Tres personas designadas por las Juntas Generales de cada territorio histórico, a razón de una por cada una de ellas.

c) Tres personas designadas por los órganos de gobierno de cada una de las organizaciones sindicales que,

Erkidegoan ordezkari gehien eskuratu dituzten sindikatuek hiru pertsona izendatuko dituzte, beren gobernu-erakundeen bitartez.

d) Euskal Enpresarien Konfederazioaren kide anitzeko gobernu-organoak hiru pertsona izendatuko ditu.

3.– Kideok gizartean, kulturan, artean, zientzian, ekonomian eta sindikatuetan edo lanbideen arloan izen ona duten pertsonen artean izendatu beharko dira; gainera, zientzia, teknologia, herri-administrazio, enpresen zuzendaritza edo lanbide-jardueraren arloetan esperientzia duten pertsonak izan beharko dute.

*72. artikulua.–* Bateraezintasunak

1.– Gizarte-interesen ordezkariak ezin izango dira lege honetan definitutako unibertsitate-erkidegoko parte izan.

2.– Eusko Legebiltzarrak edo Biltzar Nagusiek izendatutako pertsonak ezin dira legebiltzarkide edo biltzarkide izan, ez eta erakundeetako kargudun ere.

3.– Gizarte Kontseiluko kideak ezin dira izan, ez zuzenean ez eta norbaiten bitartez ere, unibertsitateak obrak, zerbitzuak edo hornikuntzak egiteko kontratatzen dituen enpresetako zuzendari, eta, orobat, ezin dute eduki horrelako enpresetako kapitalaren ehuneko 10 baino gehiago. Horrez gain, Gizarte Kontseiluko kideek ezin dute inolako eginkizunik bete enpresa edo teknologia-parkeetan, unibertsitateak berak sortu baditu edo unibertsitatea horien kapitalaren zati baten jabe bada, zati hori edozelakoa dela ere.

*73. artikulua.–* Gizarte Kontseiluko kideak izendatzea eta haien agintaldiaren iraupena

1.– Unibertsitateak Gizarte Kontseiluan eduki beharreko ordezkariak estatutuetan ezarritakoari jarraituz aukeratu eta izendatuko dira; estatutuetan zehaztu beharko da, orobat, agintaldiaren iraupena eta ordezkapenak egiteko araubidea.

2.– Gizarte-interesen ordezkariak unibertsitateen gaietan eskumenak dituen sailburuak izendatuko ditu, agindu bidez, ordezkariak aukeratzeko eskumena duten erakundeek aukeraketa egin ondoren.

3.– Gizarte Kontseiluko buruaren agintaldia lau urtekoa izango da, eta beste agintaldi bakar batez luzatu ahal izango da, segitakoa nahiz alternatiboa izan. Nolanahi ere, ezin izango du kontseilukide zortzi urte edo gehiagoan izan.

4.– Gizarte Kontseiluan gizarte-interesen ordezkari diren gainerako kideen agintaldia lau urtekoa izango da, beren izendapena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik kontatzen hasita. Gizarte Kontseiluko kideak beste lau urteko agintaldi baterako baizik ezingo dira berriz aukeratu, den aurreko agintaldiaren segidan edo beste noizbait. Edonola

de acuerdo con los resultados oficiales, hayan obtenido el mayor número de representantes en la Comunidad Autónoma en las últimas elecciones sindicales anteriores al nombramiento.

d) Tres personas designadas por el órgano colegiado de gobierno de la Confederación Empresarial Vasca.

3.– La designación de los miembros habrá de recaer en personas de reconocido prestigio en los ámbitos de la vida social, cultural, artística, científica, económica, sindical y profesional y con experiencia en alguno de los campos de la ciencia, la tecnología, la administración pública, la dirección de empresas o la actividad profesional.

*Artículo 72.–* Incompatibilidades

1.– Los representantes de los intereses sociales no pueden pertenecer a la comunidad universitaria definida en esta ley.

2.– Las personas designadas por el Parlamento Vasco o por las Juntas Generales no podrán tener la condición de parlamentarios o junteros, ni ostentar ningún cargo institucional.

3.– Con carácter general, la condición de miembro del Consejo Social es incompatible con el desempeño, por sí o por persona interpuesta, de cargos directivos en empresas que contraten con la universidad obras, servicios o suministros, así como con la participación superior al 10 por 100 en el capital de las mismas. Es incompatible en cualquier caso con el desempeño de cualquier función en las empresas o parques tecnológicos creados o participados por la universidad, y, en este supuesto, con la titularidad de cualquier parte del capital.

*Artículo 73.–* Nombramiento y duración del mandato

1.– La representación de la universidad en el Consejo Social se designará y nombrará conforme a lo que establezcan los estatutos, que también habrán de determinar la duración de su mandato y el régimen de sustituciones.

2.– Los representantes de los intereses sociales serán nombrados por orden de la consejera o consejero competente en materia de universidades, previa designación por los organismos competentes.

3.– La duración del mandato del presidente o presidenta del Consejo Social será de cuatro años, prorrogable sólo por un nuevo mandato, sucesivo o alternativo. En cualquier caso, no podrá pertenecer a él por un periodo total superior a ocho años.

4.– La duración del mandato de los demás miembros del Consejo Social en representación de los intereses sociales será de cuatro años, contados a partir del momento de la publicación de su nombramiento en el Boletín Oficial del País Vasco. Los miembros del Consejo Social podrán ser reelegidos sólo para un nuevo mandato, sucesivo o alternativo. En cualquier caso, no po-

ere, ezingo dira, guztira, zortzi urte baino luzaroago Gizarte Kontseiluko kide izan.

5.– Gizarte Kontseiluan gizarte-interesak ordezkatzen dituzten kideen lekuak hutsik gelditzen badira, heriotzagatik, dimisioagatik, izendatu ondoren agertutako bateraezintasunagatik edo kargua behartuta uzteagatik gertatu denean beteko dira berriro, beste inoiz ere ez. Lekua hutsik utzi duen kidea aukeratu zuen erakundeari dagokio leku horretarako beste kide bat aukeratzea. Lekua hutsik utzi zuen pertsonak agintaldia osatzeko behar zuen aldia iraungo du kide berri horren agintaldiak. Horrelakoetan, ordea, kide berria aukeratu behar duten erakunde edo instituzioek ez dute beste aukeraketa-prozesu bat egin beharrik izango, ez behintzat harik eta hasierako agintaldia amaitzen den arte.

*74. artikulua.*– Antolaketa

1.– Gizarte Kontseiluko buruak kide anitzeko administrazio-organoetako buruek bete ohi dituzten eginkizun berak beteko ditu, bai eta unibertsitatearen estatutuek eta kontseiluaren antolaketa-araudiak esleitzen dizkiotenak ere.

Gizarte Kontseiluari esleitutako eginkizunak betetzeko behar adina informazio eskatu ahal izango die Gizarte Kontseiluko buruak unibertsitateko organoei, bai eta Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentziari ere, eskatutako informazioa agentzia horren egitekoei dagokien bezainbatean. Unibertsitateko eta agentziako organoek eman egin beharko dute informazio hori.

2.– Gizarte Kontseiluaren administrazio-egitura idazkari nagusiaren menpean dago eratuta; kontseiluburuak izendatzen eta kentzen du kargutik idazkari nagusia, askatasunez, eta unibertsitateko administrazio eta zerbitzuetako funtzionarioen kidegoan A maila duten langile kualifikatuen artean aukeratuko du, edo Euskal Autonomia Erkidegoko A mailako funtzionarioen kidegoetako funtzionarioen artean.

Idazkari nagusiak kontseiluburuaren zuzendaritzaren pean beteko du bere lana. Edonola ere, kide anitzeko administrazio-organoetako idazkariek izan ohi dituzten eginkizunak dagozkio berari ere.

3.– Gizarte Kontseiluak osoko bilkuraren eta batzordeen bitartez egingo du lan.

4.– Gizarte Kontseiluak aholku-batzordeak eratu ahal izango ditu, eta batzorde horretan lege honetako 64.2 artikuluan aipatutako ezaugarriak dituzten pertsona eta erakundeek hartu ahal izango dute parte.

*75. artikulua.*– Aurrekontua

Gizarte Kontseiluak berezko aurrekontua izango du, Euskal Autonomia Erkidegoaren ekarpen gisa esleitua. Aurrekontuaren kudeaketa administrazio publikoei ezartzekoak diren arau eta prozeduren arabera egingo da, eta kontseiluaren araudiak zehaztuko du zein organori dagokion edo dagokien kudeaketa hori egitea.

drán pertenecer a él por un periodo total superior a ocho años.

5.– Sólo procederá la cobertura de vacantes entre los representantes de los intereses sociales en los casos de fallecimiento, dimisión o incompatibilidad sobrevenida o cese, y corresponderá al órgano que designó a la persona que cause vacante. El mandato de estas personas tendrá la duración que restaba por cumplir a la persona que causó la vacante. Los procesos electorales que afecten a las organizaciones o instituciones competentes para la designación no conllevarán en ningún caso la apertura de un nuevo proceso de designaciones hasta que no finalice el mandato de los anteriores.

*Artículo 74.*– Organización

1.– El presidente o presidenta del Consejo Social ejerce las funciones propias de los presidentes o presidentas de los órganos colegiados de carácter administrativo y las demás que le encomienden los estatutos de la universidad y el reglamento de organización del consejo.

El presidente o presidenta podrá requerir de los órganos de la universidad, así como de la Agencia de Evaluación de la Calidad y Acreditación del Sistema Universitario Vasco en las funciones encomendadas a esta, cuanta información sea precisa para el ejercicio de las funciones atribuidas al Consejo Social. Los órganos de la universidad y de la agencia tendrán el deber de facilitarla.

2.– La estructura administrativa del Consejo Social se constituye bajo la dependencia del secretario o secretaria general, que es nombrado y cesado libremente por el presidente o presidenta, entre personal cualificado de nivel A perteneciente al cuerpo de funcionarios de administración y servicios de la universidad o a los cuerpos de funcionarios de nivel A de la Comunidad Autónoma.

El secretario o secretaria general ejerce su labor bajo la dirección del presidente o presidenta. Le corresponden, en todo caso, las funciones atribuidas a los secretarios o secretarias de los órganos colegiados administrativos.

3.– El Consejo Social funciona en pleno y en comisiones.

4.– El Consejo Social podrá constituir comisiones asesoras con participación de personas o entidades en quienes concurran las características a que se hace referencia en el artículo 64.2 de la presente ley.

*Artículo 75.*– Presupuesto

El Consejo Social dispondrá de presupuesto propio, asignado como aportación de la Comunidad Autónoma del País Vasco. La gestión presupuestaria se llevará, de acuerdo con los procedimientos y reglas aplicables a las administraciones públicas, por el órgano u órganos que determine el reglamento del consejo.

*76. artikulua.–* Barne-araudia

1.– Gizarte Kontseiluak antolaketa eta jardunbiderako barne-araudi bat izango du, eta araudi hori, onartutakoan, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

2.– Araudi horretan, beren eginkizunak –bereziki, deitzen zaien bileretara ez joatekoa– behin eta berriz betetzen ez dituzten kontseiluko kideak kargutik kentzeko prozedura arautuko da.

3.– Lege honetan eta Gizarte Kontseiluaren barne-araudian aipatzen ez diren gaietan 30/92 Legeak –Herri Administrazioen Araubide eta Administrazio Prozedura Erkidearen gainekoak– orokortasunez xedatutakoa aplikatuko da.

*77. artikulua–* Barne-araudia

Publikoak ez diren unibertsitateek gizarteak unibertsitatean parte hartzeko organoak sortu ahal izango dituzte, abenduaren 21eko 6/2001 Legearen arabera. Publikoak ez diren unibertsitateek arautu egingo dituzte organo horien jarduteko modua eta osaera, eta Eusko Jaurlaritzak onartuko ditu.

VI. TITULUA

KALITATEA EBALUATU ETA EGIAZTATZEA

LEHENENGO KAPITULUA
KALITATEA

*78. artikulua.–* Eginkizun partekatua

1.– Kalitatea sustatu eta bermatzea unibertsitate bakoitzaren eta unibertsitateen gaietan eskumenak dituen sailaren eginkizuna da, Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentziari eta kalitatea ebaluatu eta egiaztatzeko beste agentzia batzuei esleitutako eginkizunen kalterik gabe.

2.– Kalitatea sustatu eta bermatzeko eginkizun hori honetara zuzenduko da: gizarte-eskariei etengabe egokitzera, unibertsitateko prestakuntzaren eskakizunei erantzutera eta prestakuntza horren prozedurak etengabe hobetzera.

3.– Helburu programatuekin zerikusia duten ebaluazio eta ikuskaritza sistemak, barnekoak zein kanpokoak, ezarriko dira. Programa-kontratuek beren ebaluazioa ahalbidetuko duten helburuak, adierazleak eta finantzaketa baldintzatua zehaztu beharko dituzte. Ebaluazioen emaitzak eta gomendioak agerikoak izango dira.

*Artículo 76.–* Reglamento interno

1.– El Consejo Social se dotará de un reglamento interno de organización y funcionamiento que, una vez aprobado, será publicado en el Boletín Oficial del País Vasco.

2.– El reglamento regulará el procedimiento para el cese de los miembros del consejo por incumplimiento reiterado de sus funciones, y, en particular del deber de asistencia a las reuniones a que fueran convocados.

3.– En lo no previsto en la presente ley y en el reglamento interno del Consejo Social, será de aplicación lo previsto con carácter general en la Ley 30/92, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

*Artículo 77.–* Naturaleza

Las universidades no públicas podrán crear, en virtud de la Ley Orgánica 6/2001, de 21 de diciembre, órganos de participación de la sociedad en la universidad. Las universidades no públicas regularán su funcionamiento y composición, que será aprobada por el Gobierno Vasco.

TÍTULO VI

EVALUACIÓN Y ACREDITACIÓN DE LA CALIDAD

CAPÍTULO PRIMERO
LA CALIDAD

*Artículo 78.–* Función compartida

1.– La promoción y la garantía de la calidad corresponde a cada una de las universidades y al departamento competente en materia de universidades, sin perjuicio de las funciones atribuidas a la Agencia de Evaluación de la Calidad y Acreditación del Sistema Universitario Vasco, así como a otras agencias de evaluación de la calidad y acreditación.

2.– La promoción y la garantía de la calidad se orientarán a su adecuación permanente a las demandas sociales, a las exigencias de la formación universitaria y a la mejora continua de sus procedimientos.

3.– Se implantarán sistemas de evaluación y de auditoría, internos y externos, relacionados con objetivos programados. Los contratos-programa habrán de concretar los objetivos, los indicadores y la financiación condicionada que posibiliten su evaluación. Los resultados y las recomendaciones de las evaluaciones serán públicos.

BIGARREN KAPITULUA
EUSKAL UNIBERTSITATE SISTEMAREN KALITATEA EBALUATU ETA EGIAZTATZEKO AGENTZIA

LEHENENGO ATALA
Izaera, araubide juridikoa eta eginkizunak

*79. artikulua.*– Izaera eta araubide juridikoa

1.– Honen bidez Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentzia sortzen da, Zuzenbide pribatuko ente publiko gisa; unibertsitateen gaietan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako sailari atxikita egongo da, eta berezko nortasun juridikoa eta jarduteko gaitasun osoa izango ditu, bai eta bere eginkizunak betetzeko berezko ondarea ere, eta oro lege honetan ezarritakoarekin bat etorriz.

2.– Agentziaren estatutuak Eusko Jaurlaritzaren dekretu baten bidez onartuko dira, unibertsitateen gaietan eskumenak dituen sailburuak proposatuta. Estatutuek hau zehaztu beharko dute, gutxienean: agentziaren gobernu-organoen eginkizunak, organo-egitura, jarduteko arauak, haren egintzen aurka jotzeko araubidea eta haren ondare-erantzukizunaren araubidea.

3.– Agentziaren jarduera, kanporako harremanetan, Zuzenbide zibilaren, Merkataritza Zuzenbidearen eta Lan Zuzenbidearen pean egongo dira, oro har, ebaluazio-, egiaztapen eta ziurtatze egintzetan eta ahal publikoak erabiltzea dakarten egintzetan izan ezik, horiek Zuzenbide publikoaren pean izango baitira.

4.– Agentziako langileak bi eratakoak izango dira:

a) Berezko langileak, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak begiratuz lan-zuzenbidearen pean kontratatutakoak.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetako langileak eta Espainiako unibertsitate publikoetako langileetatik berari atxikitzen zaizkionak.

*80. artikulua.*– Xedea eta eginkizunak

1.– Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentziaren xedea da euskal unibertsitate-sistemaren eremuan kalitatea ebaluatu, egiaztatu eta ziurtatzea, nazioarteko europar eremua kontuan izanda.

2.– Agentziaren helburuak dira:

a) Euskal unibertsitate-sistemaren kalitatea hobetzen laguntzea, irakaskuntzaren edo ikaskuntzaren, ikerketaren eta kudeaketaren arloetan.

b) Gizarteari eta pertsonei informazioa ematea.

c) Administrazio publikoei eta unibertsitateei informazioa eta irizpideak ematea erabakiak hartzeko euren prozesuetarako.

3.– Helburu horiek eskuratze aldera, agentziak eginkizun hauek beteko ditu, kalitatea ebaluatu eta egiaz-

CAPÍTULO SEGUNDO
LA AGENCIA DE EVALUACIÓN DE LA CALIDAD Y ACREDITACIÓN DEL SISTEMA UNIVERSITARIO VASCO

SECCIÓN PRIMERA
Naturaleza, régimen jurídico y funciones

*Artículo 79.*– Naturaleza y régimen jurídico

1.– Se crea la Agencia de Evaluación de la Calidad y Acreditación del Sistema Universitario Vasco, bajo la forma jurídica de ente público de Derecho privado adscrito al departamento del Gobierno Vasco competente en materia de universidades, con personalidad jurídica propia y plena capacidad de obrar y patrimonio propio para el ejercicio de sus funciones, de acuerdo con lo establecido en la presente ley.

2.– Los estatutos de la agencia serán aprobados por decreto del Gobierno Vasco a propuesta de la persona titular del departamento competente en materia de universidades. Los estatutos establecerán como mínimo las funciones de los órganos de gobierno, la estructura orgánica, las normas de funcionamiento, el régimen de impugnación de sus actos y el régimen de su responsabilidad patrimonial.

3.– La agencia somete su actividad en las relaciones externas, con carácter general, a las normas del Derecho civil, mercantil y laboral que le sean aplicables, excepto en los actos de evaluación, acreditación o certificación y los que impliquen el ejercicio de potestades públicas, los cuales quedan sometidos al Derecho público.

4.– El personal de la agencia estará formado por:

a) Personal propio, contratado en régimen de Derecho laboral respetando los principios de igualdad, mérito y capacidad.

b) Personal de la Administración pública de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de las universidades públicas españolas que les sea adscrito.

*Artículo 80.*– Objeto y funciones

1.– La Agencia de Evaluación de la Calidad y Acreditación del Sistema Universitario Vasco tiene como objeto la evaluación, la acreditación y la certificación de la calidad en el ámbito del sistema universitario vasco, considerando el marco europeo internacional.

2.– Constituyen fines de la agencia:

a) Contribuir a la mejora de la calidad del sistema universitario vasco, en sus aspectos de docencia o aprendizaje, investigación y gestión.

b) Proporcionar información a la sociedad y a las personas.

c) Proporcionar información y criterios a las administraciones públicas y a las universidades en sus procesos de toma de decisiones.

3.– Para el logro de estos fines, la agencia llevará a cabo las siguientes funciones, sin perjuicio de las que

tatzeko beste agentzia batzuei dagozkien eginkizunen kalterik gabe:

a) Unibertsitateen, goi-mailako irakaskuntzako ikastetxeen eta ikerketako unibertsitate-institutuen jardueren, programen, unibertsitate-zerbitzuen eta kudeaketaren kalitatea ebaluatu, egiaztatu eta ziurtatzea.

b) Ikasketa-planak edo horietan egin beharreko aldaketak onartu aurretik, beren kalitatea ebaluatu eta egiaztatzea.

c) Unibertsitateek eta goi-mailako irakaskuntzako ikastetxeek eskaintzen dituzten titulu ofizial eta berezkoak eskuratzeko ikasketen kalitatea ebaluatu eta egiaztatzea, baita goi-mailako unibertsitate-hezkuntzako atzerriko tituluak eskuratzeko ikasketak eskaintzen dituzten ikastetxeena ere.

d) Irakaskuntzen egiaztapena egitea, kalitatearen europar esparrua kontuan izanda.

e) Unibertsitateek beren kalitatea ebaluatzeko dituzten sistema eta prozedurak ebaluatu, egiaztatu eta ziurtatzea.

f) Unibertsitate publikoak irakasleak eta ikertzaileak kontratatu behar dituenerako, lege honek aurreikusten dituen txostenak ematea, horien merezimenduak ebaluatuz.

g) Irakasle irakurleak kontratatzeko txostenak egitea.

h) Txostenak egitea unibertsitateentzat, hezkuntza-administrazioarentzat, gizarte-eragileentzat eta, oro har, gizartearentzat.

i) Lege honetako 34. artikuluan Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle eta ikertzaileentzat aurreikusitako ordainsari-osagarriak esleitu ahal izate aldera, irakaskuntzako, ikerketako eta kudeaketako merezimenduak ebaluatzea.

j) Irakasle bakoitzak –funtzionario zein kontratatutako– arlo hauetan egin dituen merezimenduak baloratzea: euskara unibertsitateko jarduera guztietan benetan sartzeari begira egindako jardueretan, eta, bereziki, irakaskuntzako, zientzia gizartera zabaltzeko eta ikerketa-jarduera gizartera hedatzeko materialen prestaketa eta kudeaketan, orobat espezializatutako glosarioenean.

k) Publikoak ez diren unibertsitateetako irakasleen irakaskuntza eta ikerketa jarduera ebaluatzea.

l) Ikerketaren kalitatea ebaluatzea.

m) Ebaluatze-, ziurtatze eta egiaztatze ereduak hobetu eta berriztatzeko azterlanak egitea.

n) Ebaluazioa eta kalitate-irizpideak nazioarteko eta Europako esparruan alderatuz sustatzea.

ñ) Hezkuntza-administrazioa, unibertsitateak eta gainerako erakundeak beren eginkizunen eremuan aholkatzea.

correspondan a otras agencias de evaluación de la calidad y acreditación:

a) La evaluación, la acreditación y la certificación de la calidad de las actividades, de los programas, de los servicios universitarios y de la gestión de las universidades, de los centros de enseñanza superior y de los institutos universitarios de investigación.

b) La evaluación y la acreditación de la calidad de los planes de estudio, con carácter previo a su aprobación, así como de sus modificaciones.

c) La evaluación y la acreditación de la calidad de las enseñanzas conducentes a la obtención de los títulos oficiales y propios que impartan las universidades y los centros docentes de enseñanza superior, incluidos los que impartan enseñanzas conducentes a la obtención de títulos extranjeros de educación superior universitaria.

d) La acreditación de las enseñanzas en el marco europeo de la calidad.

e) La evaluación, la acreditación y la certificación de los sistemas y procedimientos de evaluación interna de la calidad de las universidades.

f) La emisión de los informes previstos en la presente ley para la contratación de personal docente e investigador por la universidad pública, evaluando sus méritos.

g) La emisión de los informes pertinentes para la contratación de profesorado lector.

h) La emisión de informes de evaluación dirigidos a las universidades, la administración educativa, los agentes sociales y la sociedad en general.

i) La evaluación de los méritos docentes, de investigación y de gestión, a los efectos de la asignación de los complementos retributivos previstos para el personal docente e investigador de la Universidad del País Vasco en el artículo 34 de la presente ley.

j) La valoración de los méritos individuales del personal docente, funcionario y contratado, en todas aquellas actividades encaminadas a la incorporación efectiva del euskera al conjunto de las actividades universitarias, y en particular la preparación y gestión de materiales docentes, de divulgación científica y de extensión social de la actividad investigadora y de glosarios especializados.

k) La evaluación de la actividad docente e investigadora del profesorado en las universidades no públicas.

l) La evaluación de la calidad de la investigación.

m) La elaboración de estudios orientados a la mejora y a la innovación de modelos de evaluación, certificación y acreditación.

n) La promoción de la evaluación y de la comparación de criterios de calidad en el marco europeo e internacional.

ñ) El asesoramiento a la administración educativa, las universidades y demás instituciones en el ámbito de sus funciones.

o) Unibertsitateen gaietan eskumenak dituen sailak eta unibertsitateek agindutako lanak.

p) Bere jardute-eremuarekin zerikusia duelako esleitutako beste edozein eginkizun.

4.– Beste autonomia-erkidego batzuetan, Estatuan edo atzerrian unibertsitateen kalitatea ebaluatu, egiaztatu eta ziurtatzeko eginkizunak dituzten beste agentzia batzuekin harremanak lotu ahal izango ditu agentzia horrek, elkarlanerako, lankidetzarako eta elkarren artean informazioa trukatzeko.

5.– Irakasleen egokitasuna zaintze aldera egindako prozeduretako probak jendaurrekoak izango dira, eta ezagutua izan dadin nahi den kategoria bereko edo goragoko irakasleez osatutako batzordeek epaituko dituzte; batzorde horietako kideen erdiak, gutxienez, ebaluatutako irakaslearenaz besteko unibertsitate publiko edo pribatuetan jardun behar du zerbitzu ematen.

BIGARREN ATALA
Egitura eta jardunbidea

*81. artikulua.*– Egitura

1.– Hauek dira agentziaren gobernu-erakundeak: administrazio-kontseilua eta zuzendaria.

2.– Agentziak adituen batzorde bat izango du kide anitzeko organo tekniko gisa.

*82. artikulua.*– Administrazio-kontseiluaren osaera

Honela osatuko da administrazio-kontseilua:

a) Kontseiluburua, unibertsitateen gaietan eskumenak dituen sailburua edo berak eskuorde izendatutakoa.

b) Agentziako zuzendaria.

c) Unibertsitateen gaietan eskumena duen sailburuak izendatutako hiru pertsona.

d) Lehendakariak izendatutako hiru pertsona ospekoak.

e) Euskal Herriko Unibertsitateko errektorea.

f) Euskal unibertsitate-sistemako gainerako unibertsitateetako errektoreak.

g) Euskadiko Unibertsitate Kontseiluak izendatutako bost pertsona ospe jakinekoak.

Administrazio-kontseiluko kideak ezin izango dira izan batzorde iraunkorretako kide, eta ezin izango dute inolako ebaluatze-, egiaztatze edo ziurtatze lanik egin.

*83. artikulua.*– Administrazio-kontseiluaren eskumenak

o) Las tareas que le sean encargadas por el departamento competente en materia de universidades y por las universidades.

p) Cualquier otra que se le encomiende en relación con su ámbito de actuación.

4.– La agencia podrá establecer relaciones de cooperación, colaboración e intercambio de información con otras agencias autonómicas, estatales o extranjeras que tengan atribuidas funciones de evaluación, acreditación y certificación de la calidad en las universidades.

5.– En orden al control de idoneidad del profesorado, las pruebas que integren estos procedimientos serán públicas y juzgadas por comisiones de profesores y profesoras de categoría igual o superior a aquella cuyo reconocimiento se pretende, y al menos la mitad de sus componentes han de prestar servicios en universidades públicas o privadas distintas a la de la profesora o profesor evaluado.

SECCIÓN SEGUNDA
Estructura y funcionamiento

*Artículo 81.*– Estructura

1.– Son órganos de gobierno de la agencia el consejo de administración y el director o directora.

2.– La agencia contará con una comisión de expertos como órgano colegiado de carácter científico-técnico.

*Artículo 82.*– Composición del consejo de administración

El consejo de administración está formado por:

a) El presidente o presidenta, que lo es la consejera o consejero del departamento competente en materia de universidades o persona en quien delegue.

b) El director o directora de la agencia.

c) Tres personas nombradas por la consejera o consejero del departamento competente en materia de universidades.

d) Tres personalidades nombradas por el lehendakari.

e) El rector o rectora de la Universidad del País Vasco.

f) Los rectores o rectoras de las demás universidades del sistema universitario vasco.

g) Cinco personas de reconocido prestigio nombradas por el Consejo Vasco de Universidades.

Los miembros del consejo de administración no podrán formar parte de las comisiones permanentes ni llevar a cabo actividad alguna de evaluación, acreditación o certificación.

*Artículo 83.*– Competencias del consejo de administración

Administrazio-kontseiluari eginkizun hauek dagozkio:

a) Agentziaren estatutuak egin eta onartzea.

b) Agentzia zuzendu eta ordezkatzea eta agentziaren kudeaketa eta jarduera planak onartzea.

c) Ebaluazioa, egiaztapena eta ziurtapena egiteko irizpide edo adierazle orokorrak onartzea; irizpide edo adierazle horiek nazioartean onartuak izan behar dute. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira adierazleak.

d) Agentziaren aurrekontu-aurreproiektua onartzea.

e) Bere jardute-eremuarekin zerikusia duelako esleitutako beste edozein eginkizun.

*84. artikulua.–* Zuzendaria

Agentziako zuzendariak agentzia ordezkatu eta zuzendu egingo du; lanak agindu eta antolatuko ditu, eta, oro har, aurreko eginkizun horiek ahalik eta ondoen betetzeko behar dituen ahalak erabiliko ditu, bai eta estatutuetan esleitutako gainerako eginkizunak bete ere.

Administrazio-kontseiluko buruak proposatuta, administrazio-kontseiluak izendatuko du zuzendaria, sei urtetarako.

*85 artikulua.–* Adituen Batzordea

1.– Adituen Batzordea agentziaren izaera teknikoko kide anitzeko organo gisa eratzen da.

2.– Batzordeburu agentziako zuzendaria izango da, eta estatutuetan aurreikusitako osaera, eginkizunak eta jarduteko moduaren araubidea izango ditu.

3.– Agentziaren jarduera-esparru batzuetan eta besteetan onartutako ospea duten ikertzaile eta irakasleez osatua izango da, eta bateraezintasun-araubide zorrotz baten mende egongo dira.

4.– Ebaluazio, egiaztapen eta ziurtapen adierazle edo irizpideak sortuko ditu. Irizpide horiek objektiboak, agerikoak eta nazioarteko komunitate zientifikoak hartutakoekin bat datozenak izango dira.

5.– Ebaluazio, egiaztapen eta ziurtapen prozesuak inpartzialak eta objektiboak izan daitezen zainduko du.

*86. artikulua.–* Finantzaketa

Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan jarriko dira agentziak bere eginkizunak betetzeko behar dituen baliabideak, eta hori ez da eragozpen izango agentziak beste diru-sarrera batzuk ere eduki ahal izateko, bere eginkizunak betez sortzen direnak barne.

Inolaz ere ez du dirurik jasotzerik izango, bere jardunagatik, ebaluatu beharreko entitateen eskutik.

Corresponden al consejo de administración las siguientes funciones:

a) La elaboración y aprobación de los estatutos de la agencia.

b) El gobierno y representación de la agencia y la aprobación de sus planes de gestión y de actuación.

c) La aprobación de los indicadores o criterios de evaluación, acreditación y certificación de carácter general, que deberán ser internacionalmente acreditados. Los indicadores se publicarán en el Boletín Oficial del País Vasco.

d) La aprobación del anteproyecto de presupuestos de la agencia.

e) Cualquier otra que se le encomiende en relación con su ámbito de actuación.

*Artículo 84.–* El director o directora

El director o directora de la agencia ejerce la representación de la misma y su dirección; ordena y organiza los trabajos, y, en general, desempeña todas las potestades precisas para el mejor cumplimiento de las anteriores y las demás funciones o atribuciones que le encomienden los estatutos.

Es nombrado por el consejo de administración, a propuesta de su presidente o presidenta, por un periodo de seis años.

*Artículo 85.–* Comisión de expertos

1.– La comisión de expertos se constituye como órgano colegiado de carácter técnico de la agencia.

2.– Estará presidida por el director o directora de la agencia, y tendrá la composición, funciones y régimen de funcionamiento que prevean los estatutos.

3.– Estará formada por investigadoras e investigadores y profesionales docentes de reconocido prestigio en las diferentes áreas de actuación de la agencia, y estarán sujetos a riguroso régimen de incompatibilidades.

4.– Se encargará de elaborar los indicadores o criterios de evaluación, acreditación y certificación. Dichos criterios serán objetivos, públicos y acordes con los captados por la comunidad científica internacional.

5.– Velará por el mantenimiento de la imparcialidad y objetividad de los procesos de evaluación, acreditación y certificación.

*Artículo 86.–* Financiación

Los Presupuestos Generales del País Vasco asignarán a la agencia los recursos precisos para el desempeño de sus funciones, sin perjuicio de los demás ingresos de que pueda disponer, incluidos los que resulten del ejercicio de sus actividades.

En ningún caso podrá recibir dinero, en el ejercicio de sus actividades, de las entidades a las que tenga que evaluar.

Agentziarentzat lege honetan ezarritako araubide juridikoarekin bat etorriz, haren jardun ekonomikoa eta finantzazkoa zein haren kontuen kontrola Euskal Autonomia Erkidegoko dagokion araudiari egokituko zaizkio.

*87. artikulua.–* Ondarea

Eginkizunak betetzeko beharrezko dituen ondasun eta ondarea izendatuko ditu Jaurlaritzak agentziarentzat.

Agentziaren ondarearen araubidea Euskadiko Ondarearen Legeari egokitu beharko zaio.

*88. artikulua.–* Kode etikoa

Agentziaren jardueren objektibotasuna eta inpartzialtasuna bermatzeko, kode etiko bat ezarriko du. Kodea agerikoa izango da.

VII. TITULUA

EUSKAL UNIBERTSITATE SISTEMAREN EKONOMIA ETA FINANTZA ARAUBIDEA

LEHENENGO KAPITULUA
EUSKAL UNIBERTSITATE-SISTEMA

*89. artikulua.–* Printzipio orokorrak

Unibertsitatea autonomoa da bere kudeaketa egiteko, eta eragimen, eraginkortasun eta kalitatea hobetzearen printzipioen pean jarduten da.

Unibertsitateen gaietan eskumenak dituen sailak, Jaurlaritzaren ordezkari gisa, dagokion unibertsitatearekin programa-kontratuak hitzartu ahal izango ditu, lankidetza-formulatzat; programa-kontratu horiek administrazio-izaera izango dute, eta berez diru-laguntzak izango dira.

Unibertsitate publikoaz gain, publikoak ez diren eta jarduerak Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentziak ebaluatzen dizkien unibertsitateek ere kontratu-programak hitzartu ahal izango dituzte.

Kontratu-programak hitzartzeko orduan, publikoak ez diren unibertsitateei ezarritako baldintzak, gutxienez, unibertsitate publikoari ezarritako berberak izango dira.

BIGARREN KAPITULUA
UNIBERTSITATE PUBLIKOA

LEHENENGO ATALA
Aurrekontu Orokorren kontura egindako hornidura

*90. artikulua.–* Egitura

1.– Urteko hornidura, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura, lege honetan eta unibertsitate-planean ezarritako irizpideen arabera zehaztuko da.

De acuerdo con el régimen jurídico establecido en esta ley para la agencia, su funcionamiento económico y financiero y el control de sus cuentas se ajustarán a la normativa correspondiente de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

*Artículo 87.–* Patrimonio

El Gobierno adscribirá a la agencia los bienes y el patrimonio precisos para el desarrollo de sus funciones.

El régimen patrimonial habrá de ajustarse a la Ley de Patrimonio de Euskadi.

*Artículo 88.–* Código ético

Para garantizar la objetividad e imparcialidad de sus actuaciones, la agencia establecerá un código ético que tendrá carácter público.

TÍTULO VII

RÉGIMEN ECONÓMICO Y FINANCIERO DEL SISTEMA UNIVERSITARIO VASCO

CAPÍTULO PRIMERO
DEL SISTEMA UNIVERSITARIO VASCO

*Artículo 89.–* Principios generales

La universidad es autónoma en su gestión y actúa de conformidad con los principios de eficiencia, eficacia y mejora de la calidad.

El departamento competente en materia de universidades, en representación del Gobierno, como fórmula de colaboración, podrá suscribir con la universidad correspondiente contratos-programa, que tendrán carácter administrativo y naturaleza subvencional.

Además de la universidad pública, las universidades no públicas cuyas actividades evalúe la Agencia de Evaluación de la Calidad y Acreditación del Sistema Universitario Vasco podrán suscribir contratos-programa.

Para suscribir contratos-programa, las condiciones establecidas a las universidades no públicas serán, como mínimo, las mismas que se establecerán a la universidad pública.

CAPÍTULO SEGUNDO
DE LA UNIVERSIDAD PÚBLICA

SECCIÓN PRIMERA
Dotación con cargo a los Presupuestos Generales

*Artículo 90.–* Estructura

1.– La dotación anual, con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma, se determinará de conformidad con los criterios establecidos en la presente ley y en el Plan Universitario.

2.– Jaurlaritzak erabakiko du unibertsitaterako hornidura aurrekontu-ekitaldi bakoitzerako, unibertsitateen gaietan eskumenak dituen sailburuak proposatuta, unibertsitateari entzun eta Unibertsitateko Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseiluak txostena egin ondoren; hornidura hori Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren lege-egitasmoan egongo da sartuta.

3.– Unibertsitatearentzako aurrekontu-hornidura hiru ekarpen-motaz dago egituratuta:

a) Ekarpen arrunta, askitasun-printzipioari begira ezarritako irizpideen araberakoa.

b) Ekarpen osagarria, unibertsitateen gaietan eskumena duen sailak ezarritako berariazko irizpideen araberakoa, Unibertsitateko Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseiluaren iritzia entzun ondoren erabakita.

c) Inbertsio eta azpiegituretarako hainbat urtetarako programa hornitzeko behar diren kredituak.

*91. artikulua.*– Ekarpen arrunta

Ekarpen arrunta Jaurlaritzak ezarritako irizpideen arabera kalkulatuko da; Jaurlaritzak Unibertsitateko Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseiluaren txostena baliatuko du irizpide horiek ezartzeko.

*92. artikulua.*– Programa-kontratuak

1.– Programa-kontratuak baldintzapeko finantzaketa-era bat dira. Xede jakin batzuetara zuzendutako jarduera zehatz batzuen arabera eta adierazleen bidez neurtutako emaitzen arabera zehaztuko da programa-kontratua.

2.– Programa-kontratuek beren guztiko kostuaren aurreikuspena eduki beharko dute, bai eta beste finantzaketa-iturri batzuena eta ustez izango dituen diru-sarreren zenbatekoena ere. Era berean, gastu arrunta eta kapital-gastua bereizi beharko dituzte, eta honako gai hauek zehaztu: programa bakoitzerako izendatutako funtsak, baita, hala balegokio, ikerketarako edo hezkuntzaren berrikuntzarako ordainsaritzat eman daitezkeen diru-kopuruak ere; ebaluazio-irizpideak; programa-kontratuen indarraldia; programa-kontratua iraungiarazteko arrazoiak, eta programa-kontratua ez betetzeak eragingo dituen erantzukizunak, eskualdatutako funtsak itzultzeko betebeharra barne.

3.– Programa-kontratuak urtero-urtero berrikusiko dira, helburuen betetze-mailaren arabera; eta, hala balegokio, bertan behera utzi ere egin ahal izango dira, aurreikusitako helburuak lortzen ez badira.

*93. artikulua.*– Inbertsio eta azpiegituretarako hainbat urtetarako programa

1.– Azpiegitura materiala garatu, hobetu eta egokitzea da inbertsio eta azpiegituretako hainbat urtetarako programaren xedea.

Programak obren beharrizanak antzeman eta beharrizan horiek arrazoitu egin beharko ditu, eta alderdi

2.– La dotación a la universidad será acordada por el Gobierno para cada ejercicio presupuestario e incluida en el proyecto de ley de Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma, a propuesta del consejero o consejera titular del departamento competente en materia de universidades, previa audiencia de la universidad e informe del Consejo de Coordinación de la Enseñanza Pública Universitaria.

3– La dotación presupuestaria a la universidad se estructura en tres tipos de aportaciones:

a) Ordinaria, según criterios objetivos establecidos atendiendo al principio de suficiencia.

b) Complementaria, en función de los objetivos específicos del departamento competente en materia de universidades, oído el Consejo de Coordinación de la Enseñanza Pública Universitaria.

c) Créditos precisos para dotar el programa plurianual de inversión e infraestructuras.

***Artículo 91.***– La aportación ordinaria

La aportación ordinaria se calculará en función de los criterios que establezca el Gobierno, con el informe del Consejo de Coordinación de la Enseñanza Pública Universitaria.

***Artículo 92.***– Los contratos-programa

1.– Los contratos-programa constituyen una financiación condicionada. Esta quedará definida en función de determinadas actuaciones finalistas y de resultados cuantificables mediante indicadores.

2.– Los contratos-programa deberán contener una previsión de sus costes totales, así como de otras fuentes previstas de financiación y el volumen presumible de ingreso. Asimismo, diferenciarán entre gasto corriente y gasto de capital, y determinarán la asignación de fondos a los distintos conceptos de cada programa y, en su caso, las cantidades que puedan asignarse como remuneración cuando su objeto sea la investigación o la innovación educativa, los criterios de evaluación, el periodo de vigencia, las causas de resolución, y las responsabilidades por incumplimiento, incluida la devolución de los fondos transferidos.

3.– Los contratos-programa serán revisados anualmente en función del logro de los objetivos y, en su caso, podrán ser rescindidos cuando no se alcanzasen los objetivos previstos.

***Artículo 93.***– Programa plurianual de inversión e infraestructuras

1.– El programa plurianual de inversión e infraestructuras tiene por objeto el desarrollo, mejora y acondicionamiento de la infraestructura material.

El programa habrá de identificar y motivar la necesidad de las obras, el campus en que se llevará a efecto

hauek zehaztu: zein campusetan gauzatu behar diren, obren kostua, inbertsioa egiteko aldien banaketa eta beharrezkoak diren gainerako ezaugarriak.

2.– Unibertsitateen gaietan eskumenak dituen sailari aurkeztuko dio unibertsitateak inbertsio eta azpiegituren hainbat urtetarako programa, eztabaidatu eta onartzeko.

3.– Unibertsitateari dagokio administrazio publikoen kontratuen legerian ezarritakoaren pean programa hori gauzatzea. Unibertsitateen gaietan eskumenak dituen sailak programa nola gauzatzen den ikuskatuko du, eta programa hori betetzeko beharrezko deritzen neurriak hartu ahal izango ditu, eta, hala behar balitz, programa hori bertan behera utzarazi ere egin ahal izango du.

BIGARREN ATALA
Zuzenbide publiko edo pribatuko beste diru-sarrera batzuk

*94. artikulua.*– Araubide orokorra

Unibertsitateko aurrekontuak, Euskal Autonomia Erkidegoaren kontura egindako horniduraz gain, ordenamendu juridikoan aurreikusitako Zuzenbide publiko edo pribatuko beste diru-sarrera batzuekin ere osatuko dira.

*95. artikulua.*– Prezio publikoak

1.– Prezio publikoen gaineko indarreko araudiak arautuko ditu irakaskuntza-zerbitzuengatik ordaindu beharreko prezio publikoak eta legez ezarritako gainerako ordainkizunak, eta unibertsitateen gaietan eskumenak dituen sailburuak onartu beharko ditu horiek.

2.– Aurreko paragrafo horretan aurreikusitakoaren barruan sartzen dira:

a) Titulu ofizialak lortzeko irakaskuntzen prezioak; Unibertsitateko Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseiluak ezarritako mugen barruan finkatuko dira prezio horiek.

b) Aipatutako titulu horiek emateagatik, ikasketak baliozkotzeagatik, edozein eratako ziurtagiriengatik, agiriak jatorrizkoekin erkatzeagatik eta idazkaritza-lanengatik eskatuko diren prezioak.

3.– Irakaskuntzari dagozkion prezioak zehazteko, honako oinarrizko irizpide hauei jarraituko zaie:

a) Ikasgai bakoitzaren kreditu-kopurua, ikasgaiaren esperimentaltasun-mailaren barruan, eta lehenbiziko, bigarren, hirugarren edo hortik aurrerako matrikula den kontuan hartuta.

b) Matrikula kurtso osokoa den edo ikasgaika egindakoa den, edo, hala balegokio, kreditu bereizikakoa.

c) Ikasgaia enborrekoa, nahitaezkoa edo aukerakoa den.

la inversión, su cuantía económica, periodificación de la inversión y demás características precisas.

2.– La universidad presentará al departamento competente en materia de universidades el programa plurianual de inversión e infraestructuras para su deliberación y aprobación.

3.– Corresponde a la universidad la ejecución del programa con sujeción a lo establecido en la legislación de contratos de las administraciones públicas. El departamento competente en materia de universidades supervisará la ejecución del programa, pudiendo acordar las medidas que estime precisas para su cumplimiento y, en su caso, la supresión.

SECCIÓN SEGUNDA
Otros ingresos de Derecho público o privado

*Artículo 94.*– Régimen general

Los presupuestos de la universidad se nutrirán, además de por la dotación a cargo de la Comunidad Autónoma, por los demás ingresos de Derecho público o de Derecho privado previstos en el ordenamiento jurídico.

*Artículo 95.*– Precios públicos

1.– Los precios públicos por servicios académicos y demás derechos que legalmente se establezcan se regirán por lo establecido en la normativa vigente sobre precios públicos y serán aprobados por la consejera o consejero del departamento competente en materia de universidades.

2.– Se incluyen en lo previsto en el apartado anterior:

a) Los precios por las enseñanzas conducentes a la obtención de títulos oficiales, que se determinarán dentro de los límites que establezca el Consejo de Coordinación de la Enseñanza Pública Universitaria.

b) Los precios que deriven de la expedición de los títulos anteriores, convalidaciones de estudios, certificaciones de cualquier tipo, compulsas y trabajos de secretaría.

3.– Para la determinación de los precios correspondientes a enseñanzas se adoptarán los siguientes criterios básicos:

a) Número de créditos asignados a cada materia, dentro del grado de experimentalidad correspondiente y según se trate de primera, segunda, tercera o sucesivas matrículas.

b) Matrícula por curso completo o por materias, o, en su caso, créditos sueltos.

c) Carácter troncal, obligatorio u optativo de la materia.

d) Ikasgaia urte osokoa, lau hilabetekoa edo hiru hilabetekoa den.

e) Zikloa.

*96. artikulua.*– Irakaskuntzengatik eskatuko diren beste prezio batzuk

Gizarte Kontseiluak ezarriko ditu prezioak, bai unibertsitatearen berezko irakaskuntzen kasuan –Euskal Autonomia Erkidegoak onartutako titulu edo diplomak horien artean direla– zein espezializazio-ikastaroen eta unibertsitateak eskainitako prestakuntzako bestelako jardueren kasuan.

*97. artikulua.*– Beste erakunde edo pertsona fisiko batzuekiko kontratuak

1.– Euskal Herriko Unibertsitateak erakunde publiko eta pribatuekin edo pertsona fisikoekin egin beharreko kontratuetarako baimena estatutuetan ezarritako prozedurei jarraituz emango da, aplikatzekoak diren oinarrizko arauen pean; estatutuek eurek ezarriko dute kontratuen bidez eskuratutako ondasun eta baliabideak zertarako erabiliko diren.

2.– Kontratu horiek eragindako diru-ordainak unibertsitatearen diru-sarreratzat joko dira, eta haren diru-sarreren aurrekontuan agertu beharko dira. Diru-sarrera horien likidazioa unibertsitatearen aurrekontuen likidazioaren barruan agertu beharko da.

3.– Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, gai horren inguruan oinarrizko legeriak eta unibertsitatearen estatutuek aurreikusitakoarekin bat etorriz, irakasleek eta ikertzaileek ordainsari osagarriak eskuratu ahal izango dituzte kontratu horien kontura.

4.– Unibertsitateak erantzukizuna izango du kontratuak ez badira betetzen; hala ere, zuzeneko erantzuleen aurka jo ahal izango du atzera itzultzeko akzioaren bidez, eta legozkiokeen diziplina-akzioak ere erabili ahal izango ditu.

HIRUGARREN ATALA
Lanpostuen zerrendak

*98. artikulua.*– Esanahia eta edukia

1.– Lanpostuen zerrenda unibertsitatearen tresna bat da, bere barruko egiturak arrazoizko eran eratu eta antolatu, zenbat langile behar dituen erabaki, lanpostuak betetzeko eskakizunak zehaztu eta lanpostu bakoitza sailkatzeko.

2.– Aurrekontuetan diru-hornidura duten lanpostu guztiak sartu beharko dira lanpostuen zerrendetan.

3.– Bestalde, unibertsitatearen zerbitzu orokorretako lanpostuen zerrenda bereizia izango da; zerrenda horretan, unibertsitatearen gobernu-organo orokorrei eta campus bakoitzeko gobernu-organo orokorrei atxikitako lanpostuetako langileak sartuko dira.

d) Carácter anual, cuatrimestral o trimestral de la materia.

e) Ciclo.

*Artículo 96.*– Otros precios por enseñanzas

Los precios de las enseñanzas propias, incluidas las titulaciones o diplomas reconocidos por la Comunidad Autónoma, por los cursos de especialización y por otras actividades de formación que lleve a cabo la universidad, serán fijados por el Consejo Social.

*Artículo 97.*– Contratos con otras entidades o personas físicas

1.– Los contratos de la Universidad del País Vasco con entidades públicas y privadas o con personas físicas serán autorizados conforme a los procedimientos establecidos por los estatutos, en el marco de las normas básicas aplicables. Dichos estatutos fijarán además el destino de los bienes y recursos que con ellos se obtengan.

2.– Las contraprestaciones económicas que resulten tendrán la consideración de ingreso de la universidad y habrán de figurar en su presupuesto de ingresos. Su liquidación habrá de constar en la liquidación de los presupuestos de la universidad.

3.– Lo dispuesto en el apartado anterior se entiende sin perjuicio de las retribuciones complementarias que puedan percibir los profesores o profesoras e investigadores o investigadoras con cargo a dichos contratos, de conformidad con lo previsto en la legislación básica sobre la materia y en los estatutos de la universidad.

4.– La universidad responde del incumplimiento de los contratos, sin perjuicio de la acción de regreso contra los responsables o las responsables y las acciones disciplinarias a que hubiere lugar.

SECCIÓN TERCERA
Relaciones de puestos de trabajo

*Artículo 98.*– Concepto y alcance

1.– Las relaciones de puestos de trabajo son el instrumento mediante el cual la universidad racionaliza y ordena sus estructuras internas, determina sus necesidades de personal, define los requisitos exigidos para su desempeño y clasifica cada uno de ellos.

2.– Las relaciones de puestos de trabajo deberán incluir la totalidad de los existentes que se hallen dotados presupuestariamente.

3.– Asimismo, tendrá carácter singularizado la relación de puestos de trabajo de servicios generales de la universidad, que incluirá a todo el personal cuyo puesto de trabajo esté afecto a los órganos generales de gobierno de la universidad y a los órganos generales de gobierno de cada campus.

*99. artikulua.–* Lanpostu-zerrenden edukia

1.– Administrazio eta zerbitzuetako langileen lanpostuen zerrendak Euskal Funtzio Publikoaren gaineko uztailaren 6ko 6/1989 Legean (lege horretan azaroaren 7ko 16/1997 Legeak sartutako aldaketak kontuan hartuta) herri-administrazioetarako orokortasunez ezarritakoari egokituko zaizkio.

2.– Irakasleen eta ikertzaileen lanpostuen zerrendetan hau zehaztu beharko da, gutxienez:

a) Lanpostu bakoitzari dagokion izena eta kategoria. Irakasleen kidegokoa edo kontratudunena den.

b) Zein sail edo ikerketa-institututuri atxikita dagoen.

c) Dedikazio-araubidea.

d) Ordainsari-araubidea, oinarrizko soldata eta dagozkion ordainsari-osagarriak aipatuz, irakaskuntza edo ikerketako merezimenduengatik dagozkionak alde batera utzita.

e) Euskarazko hizkuntza-gaitasunaren maila baloratzeko eta nahitaez eskatzeko araubide orokorra; lege honen 11. artikuluari lotuz garatuko da araubide hori. Hizkuntza-gaitasuna egiaztatzen ez duenak ezingo inolaz ere euskaraz irakatsi beharra duen lanpostu bat bete.

3.– Lanpostuen zerrendak aurrekontuetako aurreikuspenei egokitu beharko zaizkie, halako moldez non aurrekontu-plantillan kreditu-hornidurarik ez daukan lanposturik ezingo den agertu.

4.– Unibertsitateko gobernu-kontseiluari dagokio aurrekontu-aurreikuspenen esparruan lanpostuen zerrendak egitea.

5.– Lanpostuen zerrendak eta haien aldaketak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira.

LAUGARREN ATALA
Ondarea eta kontratazioa

*100. artikulua.–* Ondarea

1.– Ondarea eskuratu, norabaiterako izendatu eta kudeatzeari dagokiona arau hauen pean egongo da: lege hau eta unibertsitateen gaineko oinarrizko legeria, Euskadiko Ondarearen Legea, administrazio publikoen ondarea arautzen duen araudia eta unibertsitatearen estatutu eta aplikatzekoak diren gainerako barne-arauak.

2.– Unibertsitate publikoaren ondasun eta eskubideak, zerbitzu publikoari atxikiak daudenak, jabari publikoko ondasunak direla joko da.

Hala ere, Euskal Autonomia Erkidegoak eta administrazio publikoek badaukate ondasunak eta eskubideak unibertsitateari lagatzea, jabetza beretzat gorde-

*Artículo 99.–* Contenido

1.– Las relaciones de puestos de trabajo del personal de administración y servicios se ajustarán a lo previsto con carácter general para las administraciones públicas en la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca, con las modificaciones introducidas por la Ley 16/1997, de 7 de noviembre.

2.– Las relaciones de puestos de trabajo del personal docente e investigador incluirán, como mínimo:

a) Denominación y categoría que corresponde a cada puesto. Se hará constar su asignación a los cuerpos docentes o a personal contratado.

b) Departamento o instituto de investigación a que se encuentra adscrito.

c) Régimen de dedicación.

d) Régimen retributivo con referencia al sueldo base y a los complementos retributivos que correspondan, con excepción de los reconocidos en función de méritos docentes o de investigación.

e) Régimen general de valoración y preceptividad del nivel de competencia lingüística en euskera, que será desarrollado de acuerdo al artículo 11 de esta ley. En ningún caso podrá ocupar una plaza que requiera docencia en euskera quien no acredite su plena capacitación lingüística.

3.– Las relaciones de puestos de trabajo se ajustarán a las previsiones presupuestarias, de tal forma que no podrán contener puestos cuya dotación no pueda ser atendida con los créditos previstos en la plantilla presupuestaria.

4.– Corresponde al consejo de gobierno de la universidad elaborar las relaciones de puestos de trabajo, en el marco de las previsiones presupuestarias.

5.– Las relaciones de puestos de trabajo, así como sus modificaciones, se publicarán en el Boletín Oficial del País Vasco.

SECCIÓN CUARTA
Patrimonio y contratación

*Artículo 100.–* Patrimonio

1.– La adquisición, afectación y gestión del patrimonio se rige por lo previsto en la presente ley y en la legislación básica de universidades, por la Ley de Patrimonio de Euskadi, por la normativa reguladora del patrimonio de las administraciones públicas y por los estatutos y demás normas internas de la universidad que resulten de aplicación.

2.– Los bienes y derechos de la universidad pública afectos al servicio público tienen la consideración de bienes de dominio público.

No obstante, la Comunidad Autónoma u otras administraciones públicas podrán ceder bienes y derechos a la universidad manteniendo su titularidad en los su-

rik, ondasun eta eskubide horiek ez direnean unibertsitatearentzako bakar-bakarrik edo horiek aldi baterako erabiltzeko lagatzen direnean.

3.– Gizarte Kontseiluari dagokio ondasunak jabari publikotik kentzeko erabakia hartzea, bai eta ondasun horietaz xedatzeko erabakia hartzea ere; horretarako, ordea, unibertsitateen gaietan eskumenak dituen sailak baimena eman behar du aldez aurretik. Ondasun horietaz xedatuta ateratzen den etekina Gizarte Kontseiluak erabakiko du zertarako erabili behar den.

4.– Euskal unibertsitate-sistemaren zerbitzu publikoari atxikita ez dauden ondasun eta eskubideak ondare-ondasunak direla joko da. Halako ondasunak eskuratu, kudeatu eta horietaz xedatzeko egintzak administrazio publikoei ezartzekoa den araudiaren pean egongo dira; orobat, ondasun horiek eskuratu eta horietaz xedatzeko eskumena duten unibertsitate-organoek jarraitu beharreko prozeduraren eta gehienezko mugen gainean Gizarte Kontseiluak araudi horren esparruan erabakitakoaren pean.

***101. artikulua.***– Ondarearen inbentarioa

Unibertsitateak bere ondasun eta eskubideen inbentarioa egin beharko du, eta eguneratuta eduki, erregelamendu bidez ezarritako moduan.

***102. artikulua.***– Kontratazioaren araubide orokorra

Hala unibertsitateak nola berak baliatzeko sortutako enteak herri-administrazioen kontratuen gaineko legeriak kasu bakoitzerako ezarritakoaren pean egongo dira; hala ere, zientzia, teknika edo arte lanak egiteko kontratuek nahiz espezializazio-irakaskuntzak edo prestakuntza-ekintza zehatzak emateko egindakoek berezitasunak izan ditzakete.

***103. artikulua.***– Jabetza nahitaez kentzea

1.– Jabetza nahitaez kentzearen inguruko legeriaren ondorioetarako, unibertsitatea onuradun dela joko da.

2.– Unibertsitate zerbitzu eta ekipamenduak –teknologia-parkeak barne– ipini, handitu eta hobetzeko obren proiektuak herri-onurakoak direla joko da, proiektu horietarako behar diren ondasun eta eskubideen jabetza nahitaez kentzea dela-eta.

3.– Jaurlaritzak obra-proiektu horiek onartzeak herri-onurakotzat jotzea eta ondasun eta eskubideak okupatu beharra dakar berekin. Dena delako obra-proiektua onartzeko erabakiak ondasun eta eskubide guztien eta horien jabeen zerrenda osoa jaso beharko du, jendaurrean erakutsi beharko da hamabost egunez, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, dagokion lurralde historikoaren aldizkari ofizialean eta dagokion lurralde historikoan hedapen handienetakoa duen egunkari batean gutxienez argitaratu beharko da.

puestos en que su destino no sea exclusivo para la universidad o se trate de una cesión de uso temporal.

3.– Corresponde al Consejo Social, previa autorización del departamento competente en materia de universidades, adoptar los acuerdos de desafectación de los bienes de dominio público y, en su caso, de disposición. El producto de los actos de disposición habrá de ser asignado a los fines que acuerde el Consejo Social.

4.– Tienen la consideración de bienes patrimoniales los bienes y derechos no afectos al servicio público del sistema universitario vasco. Sus actos de adquisición, disposición y gestión se sujetarán a lo previsto en la normativa aplicable a las administraciones públicas y a lo que se acuerde en dicho marco por el Consejo Social en cuanto a procedimientos y límites máximos para la adquisición o disposición que corresponde a los diferentes órganos de la universidad.

***Artículo 101.***– Inventario de patrimonio

La universidad elaborará y tendrá al día un inventario de sus bienes y derechos en la forma que se determine reglamentariamente.

***Artículo 102.***– Régimen general de contratación

La universidad, al igual que sus entes instrumentales, estará sujeta a lo establecido en cada caso en la legislación de contratos de las administraciones públicas, sin perjuicio de las particularidades que deriven de los contratos para la realización de trabajos de carácter científico, técnico o artístico, así como para el desarrollo de enseñanzas de especialización o actividades específicas de formación.

***Artículo 103.***– Expropiación forzosa

1.– La universidad tendrá la consideración de beneficiaria, a los efectos de la legislación de expropiación forzosa.

2.– Los proyectos de obras para la instalación, ampliación y mejora de los servicios y equipamientos universitarios, incluidos los parques tecnológicos, tendrán la consideración de utilidad pública, a los efectos de la expropiación forzosa de los bienes y de los derechos necesarios para su establecimiento.

3.– La aprobación por el Gobierno del proyecto de obras llevará implícita la declaración de utilidad pública y de necesidad de ocupación. El acuerdo aprobatorio, que habrá de incluir en todo caso la relación completa de bienes y derechos y sus titulares, se someterá a información pública por plazo de quince días y se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco, en el del territorio histórico correspondiente y, al menos, en uno de los diarios de mayor difusión del territorio histórico correspondiente.

BOSGARREN ATALA
Aurrekontua

***104. artikulua.***– Aurrekontu eta kontabilitate araubidea

1.– Unibertsitatearen aurrekontua publikoa, bakarra eta orekatua izango da, eta bere diru-sarrera eta gastu guzti-guztiak agertu beharko dira bertan. Urteko bat egingo da, eta urte naturalaren iraupena izango du.

2.– Finantza-, aurrekontu- eta kontabilitate-araubidea Euskal Autonomia Erkidegoko Administraziorako orokortasunez ezarritakoari egokituko zaio. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrak egingo du egokitze hori, unibertsitateen gaietan eta aurrekontu eta kontrol ekonomikoarenetan eskumenak dituzten sailen bitartez; egokitze horrek unibertsitate publikoaren aurrekontuaren egitura, haren kontabilitate-sistema eta urteko kontuek eduki beharreko agiriak hartuko ditu bere baitan.

Era berean, aurrekontuaren orekaren gaian Euskal Autonomia Erkidegoak bere gain hartuta dituen konpromisoei egokituko zaie unibertsitatea. Gai honen inguruko informazioaren gaineko eskakizunak baliteke ez etortzea bat lege honetako 106. artikuluan kontuen kontrolaren gainean ezarritako urteroko aurreikuspenekin, ez edukiaren aldetik, ez denboraren aldetik, ez eta aldizkakotasunaren aldetik ere.

3.– Unibertsitateak unibertsitateen gaietan eskumenak dituen sailari igorriko dio, ezarritako aldizkakotasunarekin, aurrekontu eta finantza gauzapenaren gainean beharrezkoa den informazioa, hartara artikulu honetan ezarritakoa betetze aldera.

***105. artikulua.***– Langile-kostuetarako baimena

1.– Langile-kostuetarako baimena eskuratze aldera, unibertsitateak agiri hauek helarazi beharko ditu urtero, maiatzaren 31 baino lehen:

a) Ezabatu diren lanpostuen zerrenda; betetzeko eskakizunak aldatu eta gastua gehitzea eragin duten lanpostuen zerrenda, edo irakasleen kidegoetatik kontratatzekoetara edo alderantziz aldatu diren lanpostuena; berrian berri sortu eta hurrengo aurrekontu-ekitaldian unibertsitateko irakasleen kidegoei edo kontratatzekoei dagozkien enplegu-eskaintzetan aterako diren lanpostuen zerrenda. Lanpostuak kategoria hauetan sailkatuz egingo da zerrenda: unibertsitateko irakasleen kidegoetako lanpostuak, irakaskuntzako langile kontratatuen lanpostuak, berezko ikertzaileen lanpostuak eta administrazio eta zerbitzuetako langileen lanpostuak. Era berean, lanpostu horiek guztiek eragingo duten gastu gehitzea edo gutxitzea zenbatekoa den ere zehaztu beharko da.

b) Hurrengo urteko aurrekontu-ekitaldirako talde hauei dagokien orotarako kostuen zerrenda, ordainsari-mota eta osagarri guztiak zehaztuta eta talde bakoitzari dagokiona adierazita: unibertsitateko irakasleen kidegoetakoak, kategoriatan sailkatuta; irakasle eta

SECCIÓN QUINTA
El presupuesto

***Artículo 104.***– Régimen presupuestario y contable

1.– El presupuesto de la universidad será público, único y equilibrado y comprenderá la totalidad de sus ingresos y gastos. Tendrá carácter anual coincidente con el año natural.

2.– El régimen financiero, presupuestario y contable se adecuará a lo establecido con carácter general para la Administración de la Comunidad Autónoma. Tal adecuación se realizará por la Administración general de la Comunidad Autónoma del País Vasco, a través de los departamentos competentes en materia de universidades y de presupuestos y control económico, y alcanzará, al menos, a la estructura del presupuesto de la universidad pública, a su sistema contable y a los documentos que comprenden sus cuentas anuales.

Asimismo, la universidad se ajustará a los compromisos que en materia de equilibrio presupuestario tenga asumidos la Comunidad Autónoma del País Vasco. Los requerimientos de información sobre este extremo podrán no coincidir en contenido, en tiempo ni en periodicidad con las previsiones anuales de control de cuentas que se establecen en el artículo 106 de la presente ley.

3.– La universidad remitirá al departamento competente en materia de universidades, con la periodicidad que se determine, la información de ejecución presupuestaria y financiera necesaria, al objeto de lograr el cumplimiento de lo establecido en el presente artículo.

***Artículo 105.***– Autorización de costes de personal

1.– A los efectos de la autorización de costes de personal, la universidad habrá de remitir con anterioridad al 31 de mayo de cada año la siguiente documentación:

a) Relación de puestos de trabajo amortizados; de puestos transformados en los requisitos exigidos para su desempeño en cuanto impliquen incremento de gasto, o reasignados de cuerpos docentes a personal contratado o viceversa, y puestos de nueva creación que saldrán en la oferta de empleo correspondiente a cuerpos docentes universitarios o de contrataciones durante el siguiente ejercicio presupuestario. La relación será ordenada por categorías, según puestos de los cuerpos docentes universitarios, puestos de personal contratado docente, puestos de investigadores propios y puestos de personal de administración y servicios. Asimismo se acompañará referencia cuantificada del incremento o decremento total del gasto que comportan.

b) Relación agregada, para el ejercicio presupuestario del año siguiente, de los costes totales, incluidos todos los conceptos retributivos y los complementos, correspondiente a los siguientes grupos: personal perteneciente a los cuerpos docentes universitarios, por ca-

ikertzaile kontratatuak, kategoriatan sailkatuta; administrazio eta zerbitzuetako langileak, dagokien sailkapen-taldearen arabera bereizita; kudeaketa-eginkizunak dituzten irakasleak eta ikertzaileak, irakaskuntza edo ikerketa zereginik gabeak.

2.– Unibertsitateen gaietan eskumenak dituen sailak eman beharko du baimena hala irakasleen eta ikertzaileen nola administrazio eta zerbitzuetako langileen kostuetarako, bai eta lanpostuen eta kontratuen aurreikuspenetarako ere.

*106. artikulua.–* Kontuak fiskalizatzea

1.– Herri Kontuen Euskal Epaitegiari dagokio Euskal Herriko Unibertsitatearen, haren Gizarte Kontseiluaren eta, oro har, erakunde publiko zein pribatuek egiten duten herri-funtsen erabileraren fiskalizazioa egitea, unibertsitateak berak egin nahi dituen ikuskaritzak alde batera utzita.

2.– Errektoreak bidaliko die aurrekontua unibertsitateen gaietan eta aurrekontuen zein kontrol ekonomikoarenetan eskumenak dituzten sailei, agiri osagarri guztiekin batera; hilabeteko epea izango du horretarako, aurrekontua onartu zenetik kontatzen hasita.

Era berean, urtero-urtero lehenbiziko sei hilabeteen barruan, aurreko ekitaldiko aurrekontuaren likidazio ikuskatua, ekitaldi-amaierako egoera-balantzea eta memoria ekonomikoa igorriko dizkie sail horiei.

3.– Era berean, unibertsitatea erakunde baten kapitalaren edo horren pareko ondare-funtsaren gehiengoaren jabe bada, Gizarte Kontseiluko buruak erakunde horren urteko aurrekontu eta agiri osagarriak igorri beharko dizkie sail horiei, horrelako parte-hartzea duen erakunde guztienak, hain zuzen ere. Baita erakunde horien aurreko ekitaldiko aurrekontuen likidazioa ere, behar bezala ikuskatutako aurrekontuena, alegia. Aurreko lerroaldean aipatutako epea izango dute horretarako.

*107. artikulua.–* Kreditu-transferentziak, zorpetzeak eta bermeak

Lege honetan aurreikusitakoez gain, unibertsitateen gaietan eskumenak dituen sailari eginkizun hauek dagozkio, Ogasun eta Herri Administrazio Sailarekin batera:

a) Kapital-eragiketetako kredituak gastu arruntetako eragiketetara aldatzeko baimena ematea. Baimen horren ondoren Gizarte Kontseiluaren erabakia behar izango da, lege honetako 70.ñ) artikuluan ezarritakoaren arabera.

b) Zorpetzeko eta abalak eskatzeko eragiketetarako baimena ematea.

tegorías; personal docente e investigador contratado, por categorías; personal de administración y servicios, por grupos de clasificación; personal docente e investigador con funciones de gestión, liberado de tareas docentes e investigadoras.

2.– Los costes del personal docente e investigador y del personal de administración y servicios, y la previsión de puestos y contratos, deberán ser autorizados por el departamento competente en materia de universidades.

*Artículo 106.–* Fiscalización de cuentas

1.– Corresponde al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas la fiscalización de la Universidad del País Vasco, de su Consejo Social y, en general, la relativa al uso de fondos públicos por instituciones públicas o privadas, además de los correspondientes controles de auditoría de que se dote la propia universidad.

2.– El rector o rectora remitirá el presupuesto a los departamentos competentes en materia de universidades y de presupuestos y control económico, en el plazo máximo de un mes desde que fuera aprobado, con toda la documentación complementaria.

Asimismo, remitirá a dichos departamentos, dentro del primer semestre de cada año, la liquidación auditada del presupuesto correspondiente al ejercicio anterior, el balance de situación a fin de ejercicio y una memoria económica.

3.– Igualmente, el presidente o presidenta del Consejo Social remitirá a los departamentos y en los plazos previstos en el apartado anterior, los presupuestos anuales, con toda la documentación complementaria, de las entidades en las que la universidad tiene participación mayoritaria en su capital o fondo patrimonial equivalente, así como la liquidación de los presupuestos anteriores de estas entidades debidamente auditadas.

*Artículo 107.–* Transferencias de créditos, endeudamientos y garantías

Además de lo previsto en la presente ley, corresponde al departamento competente en materia de universidades, junto con el Departamento de Hacienda y Administración Pública:

a) Autorizar la transferencia de créditos de operaciones de capital a operaciones para gasto corriente. Ésta requerirá del posterior acuerdo del Consejo Social, según lo establecido en el artículo 70.ñ) de esta ley.

b) Autorizar las operaciones de endeudamiento y de solicitud de garantías.

VIII. TITULUA

PUBLIKOAK EZ DIREN UNIBERTSITATEAK

*108. artikulua.–* Baldintzak

1.– Edozein pertsona fisiko edo juridikok sustatu ahal izango du publikoak ez diren unibertsitateen onarpena, horretarako muga edo debeku bakarrak unibertsitateen gaineko oinarrizko legerian ezarritakoak izango dira. Onarpenak berekin dakar unibertsitatea gizarte-intereseko eta herri-onurako erakundetzat jotzea, bai eta onuradun izatea jabetza nahitaez kentzeko legeriaren ondorioei dagokienez.

2.– Unibertsitateen gaietan eskumenak dituen sailak egingo du espedientea, eta unibertsitateak onartzeko eskatzen diren legezko eskakizunak betetzen direla egiaztatu beharko du espediente horretan.

3.– Publikoak ez diren unibertsitateek berezko nortasun juridikoa izango dute, sustatzaileenaz bestekoa. Jarduerak hasteko baimena eman aurretik egiaztatu beharko da betekizun hori betetzen dela.

4.– Unibertsitatea sortu ahal izateko, diru-bermea eskatuko da, eta ezingo da izan hiru milioi eurotik beherakoa. Unibertsitatearen sustatzailea merkataritza-sozietatea bada, ez da beharrezkoa izango diru-bermerik jartzea, betiere eratze-agirian ageri den sozietatearen hasierako kapitala hiru milioi eurotik beherakoa ez bada eta bazkide bakoitzari dagokion zatia zehaztuta agertzen bada.

Hasieran ordaindutako sozietatearen kapitala ezin izango da izan kapital osoaren erdia baino gutxiago, eta, edonola ere, hasierako jarduerak hitzartutako eran gauzatzeko bestekoa izan beharko du.

*109. artikulua.–* Onartzea

1.– Unibertsitate pribatuen onarpena legez egingo da.

2.– Onarpena emateko legeak ezarriko du unibertsitate berriak nahitaez utzi beharko duela bere jarduerak Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentziak ebaluatzea.

3.– Unibertsitateen gaietan eskumenak dituen sailburuak erabakiko du, agindu bidez, unibertsitatearen jardueren hasiera; sei hilabeteko epea izango du horretarako, unibertsitatea onartzeko legea indarrean sartzen denetik kontatzen hasita. Horretarako, ordea, aipatutako epearen barruan bere titulu ofizialak homologatu beharko ditu eta gainerako legezko eskakizunak bete dituela egiaztatu.

*110. artikulua.–* Kontrola

1.– Unibertsitateen gaietan eskumenak dituen sailak, aldiro-aldiro, ikuskatu egin beharko du publikoak ez diren unibertsitateek aplikatzekoak diren arauak eta onarpena lortzeko beren gain hartu zituzten konpromisoak betetzen dituzten.

TÍTULO VIII

DE LAS UNIVERSIDADES NO PÚBLICAS

*Artículo 108.–* Condiciones

1.– Cualquier persona física o jurídica podrá promover el reconocimiento de universidades no públicas, sin otras limitaciones o prohibiciones que las establecidas en la legislación básica de universidades. El reconocimiento llevará aparejada su consideración como entidad de interés social y utilidad pública, y su condición de beneficiaria a los efectos de la legislación de expropiación forzosa.

2.– El expediente será instruido por el departamento competente en materia de universidades, que habrá de verificar que se reúnen los requisitos legales exigidos para el reconocimiento.

3.– Las universidades no públicas tendrán personalidad jurídica propia, distinta de la de sus promotores. El cumplimiento de esta obligación deberá acreditarse con carácter previo a la autorización para el inicio de actividades.

4.– Para la creación de la universidad se requerirá una garantía financiera que no podrá ser inferior a tres millones de euros. En el caso de que el promotor sea una sociedad mercantil, no será precisa prestación de garantía cuando el capital social inicial que figure en la escritura de constitución no sea inferior a tres millones de euros y conste en ella la participación que ostente cada socio.

El capital social inicialmente desembolsado no podrá ser inferior al 50 por 100 del total, y en todo caso el necesario para llevar a cabo las actividades iniciales en los términos que se acuerden.

*Artículo 109.–* Reconocimiento

1.– El reconocimiento de universidades privadas se hará mediante ley.

2.– La ley de reconocimiento establecerá el sometimiento preceptivo de la nueva universidad a evaluación de sus actividades por la Agencia de Evaluación de la Calidad y Acreditación del Sistema Universitario Vasco.

3.– El inicio de actividades se acordará por orden del consejero o consejera titular del departamento competente en materia de universidades en el plazo máximo de seis meses desde la entrada en vigor de la ley de reconocimiento, siempre que dentro de dicho plazo se hubiera obtenido la homologación de sus títulos oficiales y se hubiera acreditado el cumplimiento de los demás requisitos legales.

*Artículo 110.–* Control

1.– El departamento competente en materia de universidades ejercerá la función inspectora para velar por el cumplimiento por las universidades no públicas de las normas que les sean de aplicación y el cumplimiento de los compromisos adquiridos para el reconocimiento.

2.– Baldin eta, jarduerak hasi ondoren, ikusten bada dena delako unibertsitateak legezko eskakizunen bat edo hartutako konpromisoren bat ez duela betetzen, sailak hiru hilabeteko epea emango dio, gehienez, bete gabekoa bete dezan. Epe hori igaro eta dena delako unibertsitateak ez badu artean hutsa konpondu, Jaurlaritzak, sailak proposatuta eta unibertsitateari, Euskadiko Unibertsitate Kontseiluari eta dagokien erakundeei entzun ondoren, bertan behera utziko du unibertsitatearen jarduera guztia edo jardueraren zati bat, eta, hala balegokio, lege-egitasmo bat igorriko du Eusko Legebiltzarrera unibertsitate horri emandako onarpena kentze aldera.

3.– Bai publikoak ez diren unibertsitateek, bai unibertsitate publikoei atxikitako ikastetxe pribatuek, unibertsitateen gaietan eskumenak dituen sailaren aldez aurreko baimena beharko dute ondoko ekintza hauetarako:

a) Nortasun juridikoa aldatzeko.

b) Unibertsitateen izaeran eta egituran aldaketak egiteko.

c) Publikoak ez diren unibertsitateen gainean pertsona fisikoek edo juridikoek duten titulartasun osoa edo haren zati bat dohainik edo ordain trukean eskualdatzea edo lagatzea dakarten egintza edo negozio juridikoak egiteko, dela negozio edo egintza hori inter vivos erakoa edo mortis causa erakoa, baldin eta titulartasuna daukan erakundearen administrazio-kontseiluan lekua izateko eskubidea ematen badute.

d) Sozietatearen kapitala ordezkatzen duten tituluak kargatzeko.

e) Obligazioak edo antzeko tituluak jaulkitzeko.

4.– Baimenaren ukapena araututako egintza bat izan behar da, eta honako arrazoi hauengatik baino ezingo da ukatu: lege honetan, onarpena emateko legean edo dena delako nortasun juridiko mota horri aplikatzekoak diren legeetan aurreikusitakoa ez betetzea; unibertsitateen gaineko oinarrizko legerian ezarritako debekuak ez betetzea eta unibertsitatea onartzeko eskatzerakoan edo ikastetxe pribatua unibertsitate publikoari atxikitzeko hitzarmena sinatzerakoan hartutako konpromisoak betetzeko emandako bermeak nahikoa ez izatea.

5.– Aurreko 4. paragrafo horretan aurreikusitako arau-hausteek, onarpena edo atxikipena emanda gero gertatzen badira, aldaketa eragingo dute funtsezko baldintzetan. Unibertsitateen gaietan eskuduna den sailburuak egingo du arau-hausteari dagokion espedientearen instrukzioa, artikulu honetako 2. paragrafoan aurreikusitako prozeduraren eta ondorioen arabera.

6.– Titulartasunaren aldaketa gertatzen denean, titular berriak hartuko ditu bere gain aurreko titularraren eskubide eta obligazioak.

7.– Publikoak ez diren unibertsitateek laguntza publikorik jasotzen badute, Gobernuak unibertsitate pu-

2.– Si con posterioridad al inicio de actividades se comprobara algún tipo de incumplimiento de las condiciones legales y los compromisos adquiridos, el departamento requerirá su regularización en el plazo máximo de tres meses. Transcurrido el mismo sin que se proceda a la regularización, previa audiencia de la universidad y del Consejo Vasco de Universidades y de los demás organismos que proceda, el Gobierno, a propuesta del departamento, suspenderá las actividades total o parcialmente, y, en su caso, remitirá al Parlamento un proyecto de ley a los efectos de revocación del reconocimiento.

3.– Requerirán de autorización previa del departamento competente en materia de universidades las siguientes actuaciones de las universidades no públicas o de los centros privados adscritos a las universidades públicas:

a) La modificación de la personalidad jurídica.

b) Las modificaciones que puedan producirse en la naturaleza y estructura de las universidades.

c) Los actos o negocios jurídicos que conlleven la transmisión o cesión, total o parcial, a título oneroso o gratuito, inter vivos o mortis causa, de la titularidad que las personas físicas o jurídicas ostenten sobre las universidades no públicas, cuando impliquen derecho a ocupar puesto en el consejo de administración de la entidad titular.

d) Los actos de gravamen de los títulos representativos del capital social.

e) La emisión de obligaciones o títulos similares.

4.– La denegación de las autorizaciones tendrá carácter reglado y deberá fundarse en el incumplimiento de lo previsto en la presente ley, en la ley de reconocimiento o en las leyes de aplicación al tipo de personalidad jurídica; en el incumplimiento de las prohibiciones establecidas en la legislación básica de universidades, o en la insuficiencia de las garantías para el cumplimiento de los compromisos adquiridos al solicitarse el reconocimiento de la universidad o al firmarse el convenio de adscripción del centro privado a una universidad pública.

5.– Los incumplimientos previstos en el apartado 4 anterior supondrán, caso de producirse tras el reconocimiento o adscripción, una modificación en las condiciones esenciales de la misma. El consejero o consejera del departamento competente en materia de universidades instruirá el expediente oportuno de incumplimiento, conforme al procedimiento y efectos previstos en el apartado 2 del presente artículo.

6.– En los supuestos de cambio de titularidad, el nuevo titular quedará subrogado en los derechos y obligaciones del titular anterior.

7.– El Gobierno establecerá un régimen de condiciones análogas a las exigidas a la universidad pública

blikoari eskatzen zaizkion baldintzen antzekoen araubidea ezarriko du.

*111. artikulua.–* Ikastetxeak eta tituluak onartu eta ezabatzea

1.– Antolamendu juridikoak ikastetxeen egiturari, titulazioei eta mailei buruz eskatzen dituen gutxieneko eskakizunak bete beharko dituzte, uneoro, publikoak ez diren unibertsitateek.

2.– Unibertsitateen gaietan eskumenak dituen sailaren aldez aurreko baimena behar izango da honako hauetarako:

a) Fakultateak, goi-mailako eskola tekniko edo politeknikoak, unibertsitate-eskolak, unibertsitate-eskola politeknikoak, ikerketako institutuak edo ikasgelatik kanpoko irakaskuntza antolatzen duten beste zentro edo egitura batzuk sortu eta ezabatzeko.

b) Titulu ofizialak edo Euskal Autonomia Erkidegoak onartutakoak lortzeko irakaskuntzak, ikasgela barrukoak nahiz birtualak, ezarri edo ezabatzeko.

c) Unibertsitate-ikasketak eskaintzen dituzten ikastetxeak unibertsitate publikora, unibertsitatearen berezko ikastetxe gisa biltzeko.

d) Ikasketa-planen gaineko txostenak egiteko, unibertsitateak horiek onartu eta gero, baina titulua homologatu eta ikasketa-planak abiatzeko baimena eman baino lehen.

3.– Ezin izango dira tituluak ezabatu titulu horietan matrikulatutako ikasleek beren ikasketak amaitzen ez dituzten bitartean, lege honetako 110. artikuluan aurreikusitako hartan izan ezean.

4.– Baimenak esleituko badira, aurreko paragrafo horretan ezarritakoa bermatuta egon beharko da, eta indarreko legeriak ezarritako gainerako eskakizunak bete beharko dira.

*112. artikulua.–* Publikoak ez diren unibertsitate-ikastetxeak

Publikoak ez diren unibertsitate-ikastetxeek publikoa ez den unibersitate baten baitan egon beharko dute sartuta, horien berezko ikastetxe gisa, edo, bestela, unibertsitate publiko bati atxikiak.

*113. artikulua.–* Publikoak ez diren unibertsitateetako irakasleak

1.– Abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 72.2 artikuluan aurreikusitako %25a kalkulatzeko erabili behar den irakasle guztien kopuruaren zenbaketarako, denbora osoa izango da neurria, eta denbora-zati batez diharduten irakasleen eragina haztatu egingo da.

2.– Publikoak ez diren unibertsitateek, abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoak beren irakasleen kanpo-ebaluaziorako ezarritako baldintzak betetzeko, ebaluazio hori garatzeko hitzarmenak egin beharko dituzte Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentziaren.

en el caso de que las universidades no públicas reciban ayudas públicas de cualquier tipo.

*Artículo 111.–* Reconocimiento y supresión de centros y titulaciones

1.– Las universidades no públicas habrán de cumplir en todo momento las condiciones mínimas que en cuanto a estructura de centros, titulaciones y niveles requiera el ordenamiento jurídico.

2.– Será necesaria la previa autorización del departamento competente en materia de universidades para:

a) La creación y supresión de facultades, escuelas técnicas o politécnicas superiores, escuelas universitarias, escuelas universitarias politécnicas, institutos de investigación u otros centros o estructuras que organicen enseñanzas no presenciales.

b) La implantación o supresión de enseñanzas presenciales o virtuales conducentes a la obtención de títulos oficiales o reconocidos por la Comunidad Autónoma.

c) La integración en la universidad, como centros propios, de centros que impartan enseñanzas universitarias.

d) La emisión de informe previo sobre los planes de estudio, una vez aprobados por la universidad, con anterioridad a la homologación del título y la autorización para el inicio de los planes de estudio.

3.– En ningún caso podrán suprimirse titulaciones en tanto no hayan finalizado sus estudios los alumnos y alumnas que estuvieran matriculados, salvo lo previsto en el artículo 110 de esta ley.

4.– Las autorizaciones se otorgarán únicamente si queda garantizado lo establecido en el apartado anterior y el cumplimiento de los demás requisitos que, en su caso, establezca la legislación vigente.

*Artículo 112.–* Centros universitarios no públicos

Los centros universitarios no públicos deberán estar integrados en una universidad no pública, como centros propios de la misma, o adscritos a una universidad pública.

*Artículo 113.–* Del profesorado de las universidades no públicas

1.– El cómputo del número total de profesores a utilizar para calcular el 25 por 100 previsto en el artículo 72.2 de la Ley Orgánica 6/2001, de 21 de diciembre, se hará en equivalencia a tiempo completo, ponderando la incidencia del profesorado a tiempo parcial.

2.– Las universidades no públicas, para satisfacer los requisitos de evaluación externa de su profesorado establecidos por la Ley Orgánica 6/2001, de 21 de diciembre, deberán formalizar convenios para el desarrollo de esta evaluación con la Agencia de Evaluación de Calidad y Acreditación del Sistema Universitario Vasco.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

*Lehenengoa.–* Unibertsitateko irakaskuntza-kidegoetako lanpostuetarako deialdiak

Unibertsitateko irakaskuntza-kidegoetako lanpostuetarako deialdietan, lege honetako 16. artikuluan kontratatutako irakasle eta ikertzaileentzat ezarritakoa aplikatuko da.

*Bigarrena.–* Beste hezkuntza-maila batzuetako irakasleak unibertsitatean sartzea

Euskal Autonomia Erkidegoak unibertsitateekiko hitzarmenak sustatuko ditu, indarrean dauden hezkuntza-legeek aipatzen dituzten kidegoetako irakasleak unibertsitateko sailetan errazago sartu ahal izateko.

*Hirugarrena.–* Izendapenaren erabilera esklusiboa

1.– Unibertsitate izena edo unibertsitate-legerian aipatzen diren ikastetxe, ikasketa, titulu ofizial eta kide bakarreko gobernu-erakundeen berezko izenak erabiliko badira, horiek denak unibertsitate-legeriaren arabera sortu edo onartuak behar dute izan. Unibertsitate publikoen, publiko ez direnen edo publikoei atxikitakoen ikastetxeetarako ez bestetarako erabili ahal izango dira izen horiek edo horien antzekoak nahiz eratorriak.

2.– Aurreko paragrafo horretan ezarritakoa haustea, edo, oro har, unibertsitateak eta unibertsitateko ikastetxeak sortu eta onartzearen inguruko Estatuaren edo Euskal Autonomia Erkidegoaren mailako araudian aurreikusitakoa haustea hutsegite oso larria dela joko da, kontsumitzaileei eta erabiltzaileei buruz indarrean dagoen legerian ezarritakoaren arabera.

*Laugarrena.–* Esperimentaltasun-koefizientea

Unibertsitateen gaietan eskumenak dituen sailburuak onartutako dekretuaren bidez zehaztuko dira titulu ofizialen esperimentaltasun-koefizienteak.

*Bosgarrena.–* Publikoak ez diren unibertsitateak

Publikoak ez diren unibertsitateen artetik lege hau indarrean sartzean jardunean direnek legean aurreikusitako eskubideak, onurak eta ustea izango dituzte, lehendik onartuta zituzten eskubideen kalterik gabe.

*Seigarrena.–* Eliza katolikoaren unibertsitateak

Lege honetan Eliza katolikoaren unibertsitateetarako ezarritakoa Espainiako Estatuak eta Egoitza Santuak egindako itunei egokituko zaie.

*Zazpigarrena.–* Hitzarmenak negoziatzeko egitura teknikoa

Unibertsitateen gaietan eskumenak dituen sailak eta Euskal Herriko Unibertsitateak egitura tekniko bat eratzea sustatu behar dute, hitzarmen, akordio edo itun ko-

DISPOSICIONES ADICIONALES

*Primera.–* Convocatoria de puestos de cuerpos docentes universitarios

En la convocatoria de puestos correspondientes a los cuerpos docentes universitarios será de aplicación lo establecido en el artículo 16 de la presente ley para el personal docente e investigador contratado.

*Segunda.–* Incorporación de profesoras y profesores de otros niveles educativos a la universidad

La Comunidad Autónoma vasca fomentará convenios con las universidades a fin de facilitar la incorporación a los departamentos universitarios de los profesores de los cuerpos docentes a los que se refiere la legislación educativa vigente.

*Tercera.–* Del uso exclusivo de las denominaciones

1.– Sólo se podrá utilizar la denominación de universidad o las propias de los centros, enseñanzas, títulos de carácter oficial y órganos unipersonales de gobierno a que se refiere la legislación universitaria cuando hayan sido creadas o reconocidas conforme a ella. Podrán utilizarse dichas denominaciones o similares, o palabras derivadas, sólo en el caso de centros propios de las universidades públicas o no públicas o de centros adscritos a universidades públicas.

2.– La infracción de lo previsto en el apartado anterior y, en general, la infracción de lo previsto en la normativa estatal o autonómica sobre creación y reconocimiento de universidades y centros universitarios se considerará falta muy grave de acuerdo con lo que establezca la legislación vigente en materia de consumidores y usuarios.

*Cuarta.–* Coeficiente de experimentalidad

Por decreto aprobado a propuesta de la consejera o consejero competente en materia de universidades se determinarán los coeficientes de experimentalidad de las distintas titulaciones oficiales.

*Quinta.–* De las universidades no públicas

Las universidades no públicas en funcionamiento a la entrada en vigor de la presente ley ostentarán los derechos, beneficios y consideración previstos en la misma, sin perjuicio de los demás derechos que tuvieran reconocidos.

*Sexta.–* Universidades de la Iglesia católica

La aplicación de lo dispuesto en esta ley a las universidades de la Iglesia católica se ajustará a lo establecido en los acuerdos entre el Estado español y la Santa Sede.

*Séptima.–* Estructura técnica para la negociación de convenios

El departamento competente en materia de universidades y la Universidad del País Vasco han de promover la constitución de una estructura técnica con la fi-

lektiboen negoziazioan alderdi publikoaren ordezkaritza bere gain har dezan eta elkar-hartze horien jarraipena egin dezan.

*Zortzigarrena.–* Aukera berdintasuna gizonen eta emakumeen artean

Unibertsitateen gaietan eskumenak dituen sailak gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasuna sendotzeko ekimenak bultzatuko ditu unibertsitateko arlo guztietan.

*Bederatzigarrena.–* Administrazio eta zerbitzuetako langileen ordainsariak

Administrazio eta zerbitzuetako langileen ordainsariei buruzko 36. artikuluari dagokionez, indarrean dirau Eusko Jaurlaritzak, Euskal Herriko Unibertsitateak eta sindikatuek 1986ko ekainaren 17an soldatak parekatzeko sinatu zuten akordioa.

*Hamargarrena.–* Soin Hezkuntzako Euskal Erakundea

1.– Kultura Sailak eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak batera proposatuta, eta Euskal Herriko Unibertsitatearen iritzia entzun ondoren, Soin Hezkuntzako Euskal Erakundea Euskal Herriko Unibertsitatera bilduko da 2005/2006 ikasturterako, Unibertsitateei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Legean, lege honetan eta beste garapen-xedapenetan ezarritakoaren arabera.

2.– Unibertsitateei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Legean, lege honetan eta beste garapen-xedapenetan ezarritakoaren arabera, Soin Hezkuntzako Euskal Erakundea Euskal Herriko Unibertsitatera biltzen den unerako doktore-titulua eskuratua duten erakunde horretako irakasleak beren jakintza-arloaren arabera irakasle kontratatu doktore agregatuen hezkuntza-kategorian birsailkatuak izango dira ondorio guztietarako, baldin eta irakaskuntza-lanetan gutxienez hiru urtez aritu izana edo doktoregoa lortu ondoren batez ere ikerketa-lanetan aritu izana egiaztatzen badute eta Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Estatuko Agentziak edo lege honek ezartzen duen kanpoko ebaluazio-organoak haien jarduerari buruz ebaluazio positiboa egin badu.

Irakaskuntzako kontratu-kategoria horretan sartuko dira, era berean, lege hau indarrean sartzen den egunaren biharamunetik hasita bost urteko epean doktore-titulua eskuratzen badute eta aurreko lerroaldean adierazitako beste baldintzak betetzen badituzte. Kasu horretan, lehen aipatutako baldintzak betetzean egingo da sailkatze berria.

3.– Soin Hezkuntzako Euskal Erakundea Euskal Herriko Unibertsitatera biltzen den unerako doktore-titulua eskuratua ez duten irakasle kontratatuak, irakasle lankide moduan birsailkatuak izango dira, uztailaren 26ko 774/2002 Errege Dekretuaren VI. eranskinean aurreikusitako jakintza-arloren bati atxikita, baldin eta Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Estatuko Agen-

nalidad de asumir la representación de la parte pública en la negociación de convenios, acuerdos y pactos colectivos, así como para el seguimiento de los mismos.

*Octava.–* Igualdad de oportunidades entre hombres y mujeres

El departamento competente en materia de universidades impulsará en todas las áreas universitarias iniciativas para consolidar la igualdad de oportunidades entre hombres y mujeres.

*Novena.–* Retribuciones del personal de administración y servicios

A efectos del artículo 36 sobre retribuciones del personal de administración y servicios, se mantiene vigente el acuerdo de equiparación salarial firmado por el Gobierno Vasco, la Universidad del País Vasco y los sindicatos el 17 de junio de 1986.

*Décima.–* Instituto Vasco de Educación Física

1.– A propuesta conjunta del Departamento de Cultura y del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, oída la Universidad del País Vasco, para el curso 2005/2006 se llevará a cabo la integración del Instituto Vasco de Educación Física en la Universidad del País Vasco, de conformidad con lo previsto en la Ley 6/2001, de 21 de diciembre, de Universidades, la presente ley y demás disposiciones de desarrollo.

2.– El personal docente contratado al servicio del Instituto Vasco de Educación Física que al momento de la integración de aquél en la universidad se halle en posesión del título de doctor, acredite al menos tres años de actividad docente o prioritariamente investigadora posdoctoral, y disponga de la evaluación positiva de dicha actividad por parte de la Agencia Nacional de Evaluación de la Calidad y Acreditación o del órgano de evaluación externo que la presente ley determina, quedará reclasificado a todos los efectos en la categoría docente de profesor contratado doctor agregado conforme a su área de conocimiento, según lo previsto en la Ley 6/2001, de 21 de diciembre, de Universidades, la presente ley y demás disposiciones de desarrollo.

Quedarán, asimismo, integrados en dicha categoría docente contractual quienes, no disponiendo del mencionado título de doctor, lo obtengan en el plazo de cinco años, contados a partir de la entrada en vigor de la presente ley, y acrediten los demás requisitos del párrafo anterior. En tal caso, la reclasificación se producirá en el momento del cumplimiento de los anteriores requisitos.

3.– El personal docente contratado que al momento de la integración del Instituto Vasco de Educación Física en la Universidad del País Vasco no se halle en posesión del título de doctor y cuente con el informe favorable por parte de la Agencia Nacional de Evaluación de la Calidad y Acreditación o del órgano de evaluación externo que la presente ley determina, se recla-

tziak edo lege honek ezartzen duen kanpoko ebaluazio-organoak haiei buruz aldeko txostena egin badu.

Soin Hezkuntzako Euskal Erakundea Euskal Herriko Unibertsitatera biltzen den unerako aurreko lerroaldearen arabera birsailkatu ezin diren gainerako irakasle kontratatuak iraungitzekotzat joko dira, jatorrizko kategoriari dagozkion eskubideak mantenduz.

4.– Soin Hezkuntzako Euskal Erakundea Euskal Herriko Unibertsitatera biltzen den unean erakunde horretan lanean diharduten eta irakasle ez diren langile kontratatuek beren zerbitzu-harremana mantenduko dute. Soin Hezkuntzako Euskal Erakundea Euskal Herriko Unibersitatera biltzen den unean erakunde horretan lanean diharduten eta irakasle ez diren funtzionarioak aplikatu behar zaien legerian aurreikusitako egoera administratiboan geratuko dira.

5.– Xedapen gehigarri honetan aurreikusitakoak aurrera eraman ahal izateko, baimena ematen zaio Eusko Jaurlaritzari helburu horretarako behar diren arau eta aurrekontu garapen guztiak egin ditzan.

6.– Xedapen gehigarri honen arabera jokatuko da lege hau indarrean sartu aurretik egindako deialdietan plazarik eskuratzen duten irakasleekin eta irakasle ez diren langileekin.

ALDI BATERAKO XEDAPENAK

L*ehenengoa.*– Euskal Herriko Unibertsitatearen Gizarte Kontseilua berritzea

Euskal Herriko Unibertsitatearen Gizarte Kontseilua lege honetan ezarritakoari jarraituz eratuko da; sei hilabeteko epea izango da gehienez horretarako, lege hau indarrean sartzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita. Horrela hautatutako kide berriek kargua hartu bitartean, orain arte kide izan direnek jarraituko dute eginkizun horretan.

***Bigarrena.***– Unibertsitateen gaineko 6/2001 Lege Organikoa indarrean sartzean denbora osoko irakasle elkartuak zirenak

Lege hau indarrean sartzen den unean denbora osoko dedikazioko irakasle elkartu edo irakasle elkartu doktore bezala kontratatuta dauden Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak irakasle lankidea edo irakasle atxiki bezala kontratatuak izango dira, beren doktore-egoeraren arabera, baldin eta unibertsitate horretan gutxienez bost urtean irakasle edo ikertzaile lanetan aritu direla egiaztatzen badute eta Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentziaren aldez aurreko txostena baldin badute.

Lege hau indarrean sartzen den unean kontratatuak izan arren aurreko lerroaldean ezarritako denbora-bal-

sificará como profesor colaborador perteneciente a alguna de las áreas de conocimiento de las previstas en el anexo VI del Real Decreto 774/2002, de 26 de julio.

El restante personal docente contratado que al momento de la integración del Instituto Vasco de Educación Física en la Universidad del País Vasco no sea posible reclasificar en los términos del párrafo anterior, se declara a extinguir, conservando todos los derechos inherentes a su categoría de procedencia.

4.– El personal no docente contratado perteneciente al Instituto Vasco de Educación Física que viene prestando servicios en el momento de la integración en la universidad mantendrá su relación de servicios con igual naturaleza a la que venía prestando. El personal no docente funcionario perteneciente al Instituto Vasco de Educación Física que viene prestando servicios en el momento de la integración en la universidad quedará en la situación administrativa prevista en la legislación que le sea de aplicación.

5.– Se autoriza al Gobierno realizar todas las disposiciones necesarias para el desarrollo normativo y presupuestario necesario para atender las previsiones de esta disposición adicional.

6.– Queda incorporado a las previsiones de esta disposición adicional aquel personal docente y personal no docente que, en su caso, acceda a las plazas convocadas previamente a la entrada en vigor de la presente ley.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

***Primera.***– Renovación del Consejo Social de la Universidad del País Vasco.

El Consejo Social de la Universidad del País Vasco se constituirá, conforme a lo previsto en la presente ley, en el plazo máximo de seis meses a contar desde el día siguiente a su entrada en vigor, manteniéndose sus actuales componentes en el ejercicio de sus funciones hasta la toma de posesión de los nuevos miembros.

***Segunda.***– Profesoras y profesores asociados a tiempo completo a la entrada en vigor de la Ley Orgánica 6/2001, de Universidades.

Las profesoras y profesores de la Universidad del País Vasco que a la entrada en vigor de la presente ley se hallen contratados como profesoras y profesores asociados o asociadas y asociados doctores con dedicación a tiempo completo y acrediten haber realizado, durante al menos cinco años, tareas docentes o investigadoras en esta universidad, serán contratados como profesoras y profesores colaboradores permanentes o profesoras y profesores agregados, dependiendo de su condición de doctor o doctora, previo informe específico de la Agencia de Evaluación de la Calidad y Acreditación del Sistema Universitario Vasco.

Las demás profesoras o profesores de la Universidad del País Vasco contratados a la entrada en vigor de es-

dintza egiaztatzen ez duten Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak, edo antzinatasun hori izan arren legea indarrean sartzean Euskal Herriko Unibertsitateak kontratatuta ez dauden irakasleak, aldi baterako irakasle lankide moduan edo irakasle atxiki moduan izango dira kontratatuak, beren doktore-egoeraren arabera. Legea indarrean sartzean kontratatuta ez dauden irakasleei dagokienez, xedapen honek bi urteko indarraldia izango du, lege hau argitaratzen denetik kontatzen hasita. Horiek guztiek Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentzien ebaluazioa pasa beharko dute, beren titulazioaren arabera kontratatu iraunkorren figura batzuetara edo besteetara iritsi ahal izateko.

*Hirugarrena.–* Kalitatea ebaluatzeko kasuan kasuko agentziaren ebaluariorik gabe ari diren irakasle lankideak.

Lege hau indarrean jartzen den unean irakasle lankide gisa lanean ari direnek, baina kalitatea ebaluatzeko kasuan kasuko agentziaren aldeko txostenik eduki gabe, segitu ahal izango dute lan hori egiten, dagokien hezkuntza-arloan, euren eskaera Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentziak ebatzi arte.

*Laugarrena.–* Administrazio eta zerbitzuetako langileak

1.– Lege hau indarrean sartzen denean behin-behinekoak edo aldi bateko lan-kontratudunak diren Euskal Herriko Unibertsitateko administrazio eta zerbitzuetako langileak, beren egitekoak nola sailkatu diren kontuan harturik, funtzionario edo behin betiko lan-kontratupekoak izatera iritsi ahal izango dira, oposizio-lehiaketa libreko prozeduraren bidez, non langile horiek Euskal Herriko Unibertsitatean prestaturiko zerbitzuak baloratuko diren, gehien jota oposizioan lor daitekeen puntuazioaren ehuneko 45ekoa izanik.

Legea indarrean sartzen denetik izandako lan-eskaintza publikoko lehenengo hiru deialdietan aplikatuko da balorazio hori.

2.– Aurreko atalean agindutakoa bete arte, behin-behineko edo aldi bateko lan-kontratadun langileek oraingo zerbitzu-harremanari eutsiko diote, betetzen ari diren lanpostuetan iraungo dute eta beren soldatak legeak aurreikusitako erregimenari egokitu zaizkio.

*Bosgarrena.–* Karrerako funtzionarioak eta lan-kontratuko langile finkoak

1.– Funtzionario edo lan-kontratuko langile finko izanik, beren zerbitzu-harremanari dagokionaz bestelako izaerakotzat sailkaturiko lanpostuak dituzten Euskal Herriko Unibertsitateko administrazio eta zerbitzuetako langileak, hurrenez hurren, eta betiere horretarako eskaturiko titulazio-baldintzak betetzen badituzte, plantilla laboralean sartu edo dagokien kidegoko funtzionario izatera iritsi ahal izango dira, salbuespen gisa konbokatuko diren hautatze-proba murriztuen bidez.

ta ley que no acrediten el requisito temporal establecido en el párrafo anterior, o bien teniendo dicha antigüedad no se encuentren actualmente contratados en la Universidad del País Vasco, serán contratados como profesoras y profesores colaboradores temporales o profesoras y profesores adjuntos, dependiendo de su condición de doctor. Para quienes no se encuentren actualmente contratados, esta disposición tendrá una vigencia de dos años a partir de la publicación de esta ley. Todos ellos se someterán a la evaluación de la Agencia de Evaluación de la Calidad y Acreditación del Sistema Universitario Vasco para acceder a la figura de contratado o contratada permanente, según su titulación.

*Tercera.–* Profesoras y profesores colaboradores sin el informe positivo de la agencia de evaluación de la calidad correspondiente.

Quienes a la entrada en vigor de la presente ley vengan prestando servicios docentes como profesoras o profesores colaboradores sin ostentar informe positivo de la agencia de evaluación de la calidad correspondiente podrán seguir prestando dichos servicios, dentro de sus áreas correspondientes, mientras se resuelva su solicitud ante la Agencia de Evaluación de la Calidad y Acreditación del Sistema Universitario Vasco.

*Cuarta.–* Personal de administración y servicios.

1.– El personal de administración y servicios de la Universidad del País Vasco que a la entrada en vigor de esta ley sea personal eventual o laboral temporal podrá, atendiendo a la clasificación de sus funciones, convertirse en funcionario o laboral fijo a través de un procedimiento libre de concurso-oposición, en el que se valorarán los servicios que hayan prestado en la Universidad del País Vasco con una puntuación máxima del 45 por 100 del total correspondiente a la fase de oposición.

La citada valoración se aplicará en las tres primeras convocatorias de oferta pública de empleo desde que la ley entre en vigor.

2.– Hasta que se cumpla lo prescrito en el apartado anterior, el personal eventual o laboral temporal mantendrá su actual relación laboral, seguirá en los puestos de trabajo que ocupa actualmente y sus sueldos se adaptarán al régimen previsto por la ley.

*Quinta.–* Personal funcionario de carrera y personal laboral fijo.

1.– El personal de administración y servicios de la Universidad del País Vasco que, siendo funcionario o laboral fijo, ocupe puestos con una calificación distinta a la que corresponde a su relación de servicio, podrá, respectivamente, y siempre que cumpla con las exigencias de titulación, integrarse en la plantilla laboral o convertirse en funcionario del cuerpo correspondiente, a través de pruebas de selección restringidas convocadas con carácter excepcional.

Lege hau argitaratu eta hurrengo sei hilabeteko epearen barruan egingo da deialdia. Hautaketa-prozesuan, hautagaiak egindako zerbitzuak eta hautagaiaren gaitasuna edo egokitasuna egiaztatzeko bideraturiko beste edozein merezimendu balioztatuko da. Horrez gainera, hautagaiaren ezagupenak egiaztatzeko beharrezko irizten diren beste proba batzuk ere jarri ahal izango dira.

Hautatze-proba horietan parte hartu ez dutenek, edo proba horiek gainditzen ez dituztenek, ordura arte zuten harremanarekin jarraituko dute Euskal Herriko Unibertsitatearen zerbitzuan.

2.– Aurreko paragrafoan aipaturiko hautaketa-prozesuaren ondorioz funtzionario edo lan-kontratuko langile finko izatera iristeak, besterik gabe, lanpostuz aldatzea ekarriko du eta, kasuan batean, dagokion kidegoaren plantillan eta, beste kasuan, lan-kontratudunen zerrendan sartuko dira.

***Seigarrena.***– Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentzia eratzea

Legea indarrean sartzen denetik kontatzen hasita, hiru hilabeteko epearen barruan eratuko da Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentzia.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indarrik gabe uzten dira:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitate Antolamenduko ekainaren 29ko 19/1998 Legea.

b) Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte Kontseiluaren gaineko ekainaren 27ko 6/1985 Legea.

c) Lege honetan aurreikusitakoaren aurka doazen gainerako xedapen guztiak.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa.***– Erregelamendu bidezko garapena

Lege hau garatzeko eta betearazteko beharrezkoak diren arauak emateko ahalmena ematen zaio Eusko Jaurlaritzari.

***Bigarrena.***– Indarrean sartzea

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta handik hogei egunera sartuko da indarrean lege hau.

Beraz, Lege honi men egiteko eta men eginarazteko agintzen diet, norbanako zein agintari direla, Euskadiko herritar guztiei.

Vitoria-Gasteiz, 2004ko otsailaren 26a.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU

La convocatoria se llevará a cabo en el plazo de seis meses a partir de la entrada en vigor de esta ley, y se valorarán los servicios prestados y cualquier otro mérito dirigido a verificar la capacidad o idoneidad del candidato, todo ello sin perjuicio de otras pruebas que se puedan considerar necesarias para comprobar sus conocimientos.

Quienes no participen en esas pruebas de selección o quienes no las superen seguirán al servicio de la Universidad del País Vasco con la relación que mantenían anteriormente.

2.– La consecución del estatus de funcionario o laboral fijo en virtud de las pruebas del proceso selectivo a que se refiere el párrafo anterior dará lugar, sin más requisitos, a un cambio del puesto de trabajo y a su inclusión en la plantilla del cuerpo correspondiente o, en su caso, en la lista de contratados y contratadas laborales.

***Sexta.***– Constitución de la Agencia de Evaluación de la Calidad y Acreditación del Sistema Universitario Vasco

La Agencia de Evaluación de la Calidad y Acreditación del Sistema Universitario Vasco se constituirá en el plazo de tres meses a partir de la entrada en vigor de la presente ley.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Quedan derogadas:

a) La Ley 19/1998, de 29 de junio, de Ordenación Universitaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

b) La Ley 6/1985, de 27 de junio, del Consejo Social de la Universidad del País Vasco.

c) Todas las demás disposiciones que se opongan a lo previsto en la presente ley.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera.***– Desarrollo reglamentario.

Se habilita al Gobierno para dictar las normas precisas para el desarrollo y ejecución de la presente ley.

***Segunda.***– Entrada en vigor.

La presente ley entrará en vigor a los veinte días de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Por consiguiente, ordeno a todos los ciudadanos y ciudadanas de Euskadi, particulares y autoridades, que la guarden y hagan guardarla.

Vitoria-Gasteiz, a 26 de febrero de 2004.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU

# EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIA (EHAA) PAPEREAN JASOTZEKO HARPIDETZA-ESKARIA: 2004. URTEA

***BALDINTZAK:***

***Harpidetza-aldia:***

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria paperean jasotzeko harpidetza-aldia urtearekin hasiko eta bukatuko da. Dena den, urtea hasita dagoela egiten bada eskaria, urtea bukatzeko gelditzen den aldirako egin ahal izango da harpidetza.

***Harpidetza eskatzeko eta aleak harpidedunari igortzeko modua.***

Paperezko EHAAren harpidetza izan nahi dutenek idatziz egin beharko diote eskaria Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren bulegoari, Donostia kalea, 1. Vitoria-Gasteiz, 01010, Araba. Eskari hori postabidez nahiz faxez (945.01.86.49) egin ahal izango da. EHAA- Zerbitzuak, eskari hori jaso ondoren, dagokion faktura egin eta bidaliko dio harpidedunari, berak ordaindu dezan. Hori ordainduta, EHAA-Zerbitzuak kontratu-aldiaren hasieratik igorriko dizkio aleak harpidedunari, eta erregularki igorri ere, berak adierazitako helbidera. Aldi hori hasita baldin badago, ahal den lasterren igorriko dizkio aleak, eta, izakinak baldin badaude, ale atzeratuak ere bidaliko dizkio. Izakinik ez egotea gertatzen bada, ez du horrek harpidetzaren prezioan beherapenik ekarriko.

***2004. urterako ordainkizuna:***

Urtebetekoa: 219,07 euro.

Urtebete baino gutxiagokoa: 18,27 euro, urtea bukatzeko gelditzen diren hilabete bakoitzeko.

***Ordaintzeko era:***

Dagokionak faktura jaso ondoren, harpidetzaren ordainketa era honetan egingo du:

1. Dirua, alegia, Caja Vital Kutxaren 2097/0178/13/0015195471 kontu zkn. sartuz. Horretarako, transferentzia bidez, beste kontu batetik egindako itsuldaketaz edo bankuen praktikan onartutako edozein prozeduraren bidez egin daiteke. ***Behar-beharrezkoa izango da kontzeptu gisa dagokion faktura-zenbakia adieraztea.***
2. ***Txekea,*** Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren-EJDN izenean egina, EHAAren bulegoetara (Donostia kalea, 1, Vitoria-Gasteiz, 01010 Araba) postabidez bidaliz. ***Txekearekin batera fakturaren azken zatia, "Ordaintzerakoan bete beharreko datuak" izenekoa, bidali beharko da.***

***Harpidetzak berritzea:***

Urte naturalka berritu ahal izango dira harpidetzak. Hurrengo harpidetza-aldia hasi baino lehen, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariko zerbitzuak dagokion faktura igorriko dizu. Harpidetza berriari dagokion diru-zenbatekoa aurretiaz ordainduko da beti. Ordainketa helbideratu nahi baduzu, jar itzazu zure datuak ondoko harpidetza-eskarian, banku-helbideraketa egiteko eskaintzen den atalean.

***Datu pertsonalen fitxategi automatizatua:***

Harpidedunek emandako datuek tratamendu automatizatua izango dute «Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariak emandako ondasunak eta zerbitzuak fakturatzea» izeneko fitxategi informatikoan. Jaurlaritzaren lehendakariorde eta Ogasun eta Herri Administrazio sailburuak emandako 1997ko azaroaren 17ko Aginduz arautzen da fitxategi automatizatu hori (EHAA, 239 zk, 1997ko abenduaren 15ekoa), eta Datuak Babesteko Agentzian dago hori sartuta, 1980210003 zenbakiarekin.

***Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariari buruzko argibideak:***

Telefonoa: 945.01.86.23 Faxa: 945.01.86.49 E-mail: bopv@ej-gv.es

***EHAA INTERNETen bitartez kontsultatzeko:*** http://www.euskadi.net

Honen bitartez jakinarazten dizut, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria (**EHAA**) paperean jasotzeko, 2004. urteko **harpidetza** egin nahi dudala, (hila) ...........................tik hasita (ez bete hori, urtea hasita dagoenean baino), aurreko zutabean aipatzen diren baldintzetan eta ondoren ematen ditudan datuen arabera:

## HARPIDEDUNAREN DATUAK:

| IZEN-ABIZENAK / BALTZUAREN IZENA | | HELBIDEA: *(Kalea, zenbakia, posta-kodea, herria, lurralde historikoa edo probintzia, herrialdea)* |
|---|---|---|
| | | |
| IFK edo NAN: | TELEFONOA: | FAXA: |

## EHAA-KO ALE-KOPURUA ETA NORAKOA

Harpidetza honen bitartez, EHAAko ............................ **ale** kontratatu nahi ditut. Kontratatutako EHAAko aleak helbide honetara igorri behar dituzue:

- Harpidedunaren helbidera: .................. **ale**
- Gainontzeko aleak hartzaile hauen helbidera:

| IZEN-ABIZENAK EDO BALTZUAREN IZENA | HELBIDEA: *(Kalea, zenbakia, posta-kodea, herria, lurralde historikoa edo probintzia, herrialdea)* | TELEFONOA | ALE KOPURUA |
|---|---|---|---|
| | | | |
| | | | |
| | | | |

## BANKU-HELBIDERAKETA EGITEKO DATUAK:

Harpidetza berritzeari dagozkion ordainketak hemen helbideratu nahi ditut:

| | |
|---|---|
| BANKETXEA: | |
| SUKURTSAL ZKA.: | |
| KONTU ZKA.: | |

*.................................(e)n, .............ko ........................................aren.........(e)an*

Sinadura:

# SOLICITUD DE ALTA EN LA SUSCRIPCIÓN EN PAPEL AL BOLETÍN OFICIAL DEL PAÍS VASCO (BOPV): AÑO 2004

## CONDICIONES:

***Periodo de suscripción:***

El periodo de suscripción al BOPV en papel corresponderá al año natural. No obstante, las peticiones de nuevas altas recibidas una vez comenzado el año podrán formalizarse por los meses que resten hasta final del periodo.

***Formalización de la suscripción y envío de ejemplares al destinatario.***

Las personas interesadas en suscribirse al BOPV en papel remitirán las solicitudes a las oficinas del Boletín Oficial del País Vasco sitas en la calle Donostia-San Sebastián, 1, Vitoria-Gasteiz, 01010, Álava, por correo o por fax (945.01.86.49). Tras su recepción, el Servicio del BOPV expedirá y remitirá la factura correspondiente para su abono por el suscriptor. Una vez realizado el pago, el Servicio del BOPV empezará a remitir los ejemplares regularmente a la dirección señalada a partir del inicio del periodo contratado. Si dicho periodo se ha iniciado, los ejemplares se remitirán a la mayor brevedad posible, enviándose los ejemplares anteriores siempre que queden en existencia, sin que, en caso contrario, haya lugar a deducción en el importe de suscripción.

***Cuota para el año 2004:***

Anual: 219,07 euros.

Inferior al año: 18,27 euros por cada mes que reste hasta final del año.

***Forma de pago del alta:***

El pago del alta de la suscripción se realizará una vez se reciba la correspondiente factura de la forma siguiente:

1. Ingresando el importe en la cuenta de la Caja Vital Kutxa nº 2097/0178/13/0015195471, mediante transferencia, traspaso desde otra cuenta o cualquier otro procedimiento admitido en la práctica bancaria. ***Se deberá indicar obligatoriamente como concepto el número de factura correspondiente.***
2. Enviado por correo un ***cheque***, *expedido a favor del Boletín Oficial del País Vasco-TGGV*, a las oficinas del Boletín Oficial del País Vasco sita en la calle Donostia-San Sebastián, 1, Vitoria-Gasteiz, 01010, Álava. ***Se deberá adjuntar al cheque la parte final de la factura titulada «Datos a consignar al realizar el pago».***

***Renovación de suscripciones:***

Las renovaciones de las suscripciones serán por años naturales. Con anterioridad al inicio del siguiente periodo de suscripción el Servicio del BOPV le remitirá la correspondiente factura. El pago de la renovación de la suscripción será siempre por adelantado. Si desea domiciliar este pago rellene en la solicitud de suscripción el apartado correspondiente a los datos para la domiciliación bancaria.

***Fichero automatizado de datos de carácter personal:***

Los datos suministrados serán objeto de tratamiento automatizado en el fichero informático denominado *«Facturación de los servicios y bienes prestados por el Boletín Oficial del País Vasco»,* regulado por Orden de 17 de noviembre de 1997, del Vicepresidente del Gobierno *(BOPV n.º 239, de 15 de diciembre de 1997)* e inscrito en la Agencia de Protección de Datos con el número de código 1980210003.

***Información del Boletín Oficial del País Vasco:***

Teléfono: 945.01.86.23 Fax: 945.01.86.49 E-mail: bopv@ej-gv.es

***Consulta del BOPV por INTERNET:*** http://www.euskadi.net

Por la presente solicito el alta en la **suscripción** al Boletín Oficial del País Vasco **(BOPV)** en papel, del año **2004,** *desde el mes de ..................................... (rellenar únicamente si la solicitud se realiza una vez iniciado el año),* en las condiciones que figuran en la columna anterior y de acuerdo con los datos siguientes:

## DATOS DEL SUSCRIPTOR:

| NOMBRE Y APELLIDOS / RAZÓN SOCIAL | | DIRECCIÓN: *(calle, número, código postal, población, Territorio Histórico/provincia, País)* |
|---|---|---|
| | | |
| CIF o DNI: | TELÉFONO: | FAX: |

## N.º Y DESTINO DE LOS EJEMPLARES DEL BOPV

Deseo contratar con esta suscripción, ............................ **ejemplares** del BOPV. Los ejemplares del BOPV contratados deberán enviarlos a:

- A la dirección del suscriptor: ............................ **ejemplares**
- El resto a la dirección de los destinatarios siguientes:

| NOMBRE Y APELLIDOS RAZÓN SOCIAL | DIRECCIÓN: *(calle, número, código postal, población, Territorio Histórico/provincia, País)* | TELÉFONO | N.º EJEMPLARES |
|---|---|---|---|
| | | | |
| | | | |
| | | | |

## DATOS PARA LA DOMICILIACIÓN BANCARIA:

Deseo domiciliar los pagos correspondientes a las renovaciones de esta suscripción en:

| | |
|---|---|
| ENTIDAD BANCARIA: | |
| SUCURSAL N.º: | |
| N.º DE CUENTA: | |

*En .................................., a ............ de ........................................ de.........*

Fdo.:

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARIORDETZA — VICEPRESIDENCIA

## EHAA EROSTEKO LEKUAK.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren aleak Eusko Jaurlaritzaren egoitza hauetan erosi ahal izango dira:

## PUNTOS DE VENTA DEL BOPV.

Los ejemplares del Boletín Oficial del País Vasco se pueden adquirir en las sedes del Gobierno Vasco siguientes:

| **LURRALDE HISTORIKOA** TERRITORIO HISTÓRICO | **HERRIA** POBLACIÓN | **EROSTEKO LEKUA** PUNTO DE VENTA | **HELBIDEA ETA TELEFONOA** DIRECCIÓN Y TELÉFONO |
|---|---|---|---|
| **Araba** Álava | Vitoria-Gasteiz | **Liburudenda. Lakua II eraikina.** Librería. Edificio Lakua II | **Donostia kalea, 1.** c/ Donostia-San Sebastián, 1 945 01 85 57 |
| Bizkaia | Bilbao | **Hiritarrei argibideak eman eta jaramon egiteko Zerbitzua.** Servicio de información y atención al ciudadano. | **Kale Nagusia, 85.** c/ Gran Vía, 85. 94 403 10 00 |
| Gipuzkoa | Donostia-San Sebastián | **Hiritarrei argibideak eman eta jaramon egiteko Zerbitzua.** Servicio de información y atención al ciudadano. | **Andia kalea, 13** c/ Andía, 13. 943 02 28 00 |